

Gida, lanbide-heziketako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan hezkuntza-laguntzako premia bereziak (hlpb) dituzten pertsonei lan -eta akademia- orientabidea emateko

CURRICULUMERA SARTZEKO EGOKITZAPENAK

2017ko azaroa - 2018ko apirila
J. Carlos Ollo Oscáriz

AURKIBIDEA

Lehen zatia 05

1. ABIAPUNTUAK. ZERTAZ ETA NORTAZ ARI GARA?	07
Dibertsitate funtzionala	
2. GURE PROPOSAMENAREN HELBURUAK ETA ARRAZOIAK	09
3. LHko ZIKLO EDO PROGRAMETAN ESKOLATUTAKO IKASLEAK	12
LHn HLPBak dituzten ikasleei buruzko datuetatik eratorritako ondorioak	
4. DBHn ETA BATXILERGOAN ESKOLATUTAKO IKASLEAK	14
DBHn HLPBak dituzten ikasleei buruzko datuetatik eratorritako ondorioak	
Batxilergoan HLPBak dituzten ikasleei buruzko datuetatik eratorritako ondorioak	
5. LHko IKASTETXEETAKO JARDUERA-PRINTZIPIOAK	16
6. LHko IKASTETXEETAN HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEENTZAKO HEZKUNTZA-ARRETA	18
6.1. HARRERA- ETA INKLUSIO-PROZESUAK	18
Harrera-jardunaldiak	
Inklusiorako jarduerak	
6.2. HEZKUNTZA-PREMIAK ATZEMATEA, ZEHAZTEA ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA	22
Hezkuntza-premiak atzemateko eta zehazteko prozesua. Faseak	
6.3. CURRICULUMERA SARTZEKO EGOKITZAPENAK. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK	27
a) Ingurune fisikoa aldatzea. Baliabide tekniko eta materialak.	
b) Giza baliabideak.	
c) Metodologia aldatzea. Irakaskuntzako eta ikaskuntzako teknikak.	
d) Ebaluazioa aldatzea.	
e) Antolakuntza aldatzea.	
6.4. LANBIDEA EGIAZTATZEA: TITULAZIOA. PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAK	39
6.5. LANA BILATZEA. NEURRIAK ETA BALIABIDEAK	42
a) Desgaitasunari eta enpleguari buruzko araudia.	
b) Enplegua eta desgaitasuna Espainian. Datu garrantzitsuak.	
c) Enplegua eta desgaitasuna Nafarroan.	
d) Enplegurako neurri eta baliabideak.	

Bigarren zatia 59

1. GIDA, BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIA BEREZIAK (HLPB) DITUZTEN PERTSONEI LAN- ETA AKADEMIA-ORIENTABIDEA EMATEKO	61
---	----

Akademia- eta lan-orientabideko prozesu eta lanak:

- 1. fasea: HLPBak dituzten ikasleen zerrenda.
- 2. fasea: Espediente pertsonala aztertzea.
- 3. fasea: Irakasleek atzemandako hezkuntza-premiak.
- 4. fasea: Hezkuntza-premien autopertzepzioa.
- 5. fasea: LHko prestakuntza-eskaintza eta curriculum-datu garrantzitsuak.
- 6. fasea: Sintesi-txostena (ikaslearen datuen laburpena).
- 7. fasea: Orientatzeko aholkua.
- 8. fasea: Erabakiak hartzea.
- 9. fasea: Ikastetxe hartzaileari informazioa ematea. Bisita.

Bigarren Hezkuntzako jardueraren adibide bat

2. LANTZEKO DAUDEN GAIAK	80
3. OINARRIZKO IZENDEGIA	81
4. BIBLIOGRAFIA	84

Eranskinak 87

Gida, lanbide-heziketako eta bigarren hezkuntzako

ikastetxeetan

hezkuntza-laguntzako premia

bereziak (hlpb) dituzten

pertsonei lan- eta akademia-

orientabidea emateko

LEHEN ZATIA

1.

ABIAPUNTUAK.

ZERTAZ ETA NORTAZ ARI GARA?

Dibertsitate funtzionala

Guzti-guztiok nabaritzen dugu, bizitza osoan, jarduera batzuetan beste batzuetan baino trebe edo abilagoak garela. Gizakiok berezkoa dugu gaitasun-aniztasuna, eta guztioi gertatzen zaigu, hala sekuentzialki (denborak aurrera egin ahala abileziak eskuratu eta galdu egiten ditugu) nola modu baztertzaillean (eskakizun batzuk eraginkorki gauzatu ditugu eta beste batzuetarako ez gara gai). Gure esperientziaren eta prestakuntzaren bitartez eskuratzen ditugun abilezia, trebezia eta gaitasunek lanbide eta lanpostu jakin batzuetan aritzea errazten digute eta beste batzuetan jardutea zailtzen edo eragozten digute.

Dibertsitate funtzionalaren banaketak, edozein abilezia edo gaitasuni dagokionez, banaketa normalaren irizpideak betetzen ditu: gehiengoek eraginkorki funtzionatzeko aukerak dituzte eta bakar batzuek, berriz, disfuntzioak dituzte esparru zehatz horretan. Azken horiei “desgaitasuna duten pertsonak” esaten diegu. Dena den, kontuan hartu behar dugu “normaltasunaren” muga hautamenez eta egoeraren arabera ezartzen dela eta gainerako guztia ezkututzen duela, hau da: disfuntzio fisiologikoak dituzten pertsonak “anormaltasunez” jantziak geratzen dira eta, maiz, desgaitutzat jotzen dira betiko eta testuinguru eta egoera guztietan. Aitzitik, desgaitasuna duten pertsonentzat, disfuntzio hori beren bizimoduaren beste parte bat baino ez da, beste funtzionaltasun eta gaitasunak bezala, eta horiek guztiek osatzen dute beren izaera eta arazo, eskakizun, egoera eta erronkei aurre emateko modua.

“Desgaitasuna duen pertsona bere desberdintasunaz «konturatu» egiten da, ez du eraikitzen. Desberdintasuna besteek zehazten dute eta, halaber, desberdintasunetik sortzen den nortasunak ez du desgaitasuna berezko gertakari bereizletzat hartzen, bestearen aldean duen nortasun-bereizgarrien faltatzat baizik, besteak badituelako. Nortasun heteronomo, negatiboa eta baztertzaillea da; nortasunik eza da. Edo, okerrago esanda, desgaitasuna duen pertsonaren nortasun soziala desgaitu ez direnek baduten hori ez dutenen nortasun eza izango da.”

(Miguel A. V. Ferreira; Eduardo Díaz Velázquez. Universidad Complutense. Madrid).


Testuinguru funtzional batean, desgaitasuna duen pertsona funtzio edo egitura (fisiko, sentsorial, intelektual edo psikiko) aldetik gabeziak dituena izango da; horrez gain, jarduera jakin batzuk egiteko mugak eta gizarte-partaidetzako esparru batzuetan murrizketak ditu. Desgaitasuna banakoen jarduera edo estatusaren eta dagokien talde zehatzeko iguripenen arteko aldean arabera ere zehazten da. Inguruneke araei egokitzeko zailtasunak direla eta, desabantaila handiagoa da. Horregatik guztiagatik, desgaitasuna gertakari sozial bat da, kondizio pertsonal jakin batzuk izateagatik banakoarentzat gizarte- eta ingurune-ondorioak dituena. Ikusi, aurrerago, “*Desgaitasunaren faktoreak*” eskema.

Aipaturiko kondizio pertsonal horien eta hainbat girotan (familia, gizartea, eskola...) dauden mugen ondorioz, desgaitasuna duten pertsonentzat, moldatzeko esparrurik zailenak esparru akademikoa eta lan-esparrua dira. Izan ere, pertsona batek zenbat eta abilezia eta gaitasun gutxiago izan, orduan eta aukera gutxiago izango du hezkuntzan edo lan-merkatuan postu bat lortzeko eta postu horri eusteko.

Alde horretatik, ikastetxeek, badakitenez desgaitasunak gizarte-erantzukizuna dakarrela berekin, egin, aldatu eta hobetu dezaketen horretan egin beharko dute ahalegina: erakundeko giroaren kondizioak (irisgarritasuna, erosotasuna eta erabilera), jarrera pertsonal eta sozialak (harrera,

inklusioa eta errespetua) eta proposamen eta programa akademikoak (normalizazioa, egokitzapenak eta baliabideak). Horrela baino ez dute ziurtatuko estatuko eta nazioarteko araudian ezarritako oinarritzko eskubideak betetzea.

ESKEMA: "DESGAITASUNAREN FAKTOREAK"



Bestalde, gogoan hartu behar dugu desgaitasuna duten pertsona askok gizarteak egozten dizkien eraginkortasun- eta gaitasun-mugak gainditu dituztela, baita disfuntzioak berak markatutako jardueretan ere (kirolari paralinpiko, enpresa-kudeatzaile eta -zuzendari, irakasle, ikertzaile, intelektual eta filosofo bikainak daude, adibidez). Zalantzarik gabe, desgaitasuna duten pertsona askok gaitasun handiak eta talentu bereziak dituzte beste esparru batzuetan, eta, gizarteak, erakundeek eta banakook prestakuntzarako eta enplegurako sarbide inklusiboa erraztuko ez bagenie, nekez adierazi eta gauzatu ahal izango lituzkete. Desgaitasuna duten pertsonak bi eragozpen handi gainditu behar dituzte prestatzeko, lanbide-titulazio edo -egiaztagiriak lortzeko eta beren gaitasunen arabera lanbide egoki eta koherente bat lortzeko: lehenik, desgaitasunak berak jartzen dizkien mugak; eta bigarrenik, gizarteak, erakundeak, profesionalek, herritarrek eta kideek laguntzeko eta haiekin beren gizarte-, akademia- eta lan-esperientzia kondizio beretan ez konpartitu nahi izatea.

2.

GURE PROPOSAMENAREN HELBURUAK ETA ARRAZOIAK

Zenbaitetan, hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleek, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan edo Batxilergoan eskola-emaitza onak izan ondoren, Lanbide Heziketako ikasketak erraztasun berarekin gainditzeko, titulazioa lortzeko eta lanpostu jakin batzuetan sartzeko ustearekin hasten dituzte. Ikasle horiek garapen kognitibo egokia izan ohi dute eta curriculumeko eskakizun teorikoak ongi betetzen dituzte; gero, ordea, lan tekniko eta praktikoak egiterakoan, espero ez dituzten zailtasunekin egiten dute topo zenbaitetan. Ikasle horien bereizgarriek eskatzen dizkieten abilezia eta trebezia praktikoak baldintzatzen dituzte eta, batzuetan, mugatu ere bai. Adibidez: itsuek ziklo jakin batzuetako doitasun handiko manipulazio-lanak egiteko zailtasun handiak izango dituzte (“Elektrizitatea eta elektronika”, “Kimika”...); eta Asperger dutenek, berriz, pertsona arteko harreman handiko zikloetan (“Gizarte-, kultura- eta turismo-animazioa” eta abar) eskatzen dituzten gizarte-abileziekin izango dituzte zailtasunak. Horrela eskolatutako ikasleek orientabide txarra jaso dute edo orientabidean proposaturikoen kontrako erabakiak hartu dituzte.

Desgaitasuna eta enplegua dituzten pertsonen akademia- eta lan-aholkularitza eta -orientabideko zerbitzu eta baliabideen gaian zer iritzi duten eta zer esperientzia izan dituzten jakiteko, horietako batzuei (egilearen ezagun eta gertukoei, partzialki aukeratuta) X eranskinean jaso dugun galdeketa egin diegu: “[Desgaitasuna eta enplegua dituzten pertsonentzako galdeketa](#)”.

Hona hemen galdeketa emaitzak, zenbakizkoak eta iritziak (ez dira desgaitasuna duten pertsonen kolektibo osoaren erakusgarri, lagina mugatua eta partziala zelako):

LAGINA: DESGAITASUNA ETA ENPLEGUA DITUZTEN 15 PERTSONA

Gizonak	5	Emakumeak	10
30-35 urte	9	35-45 urte	6
DESGAITASUN-MOTA			
Adimenekoa			7
Fisikoa (mugimena)			6
Entzumenekoa			2
MINUSBALLOTASUN-PORTZENTAJEA			
% 40 baino gutxiago			13
% 40-50			2
IKASKETA-MAILA			
Eskola-graduatu edo antzekoa			3
DBH			3
Batxilergoa			1
EMHZ			4

GMHZ	1
Unibertsitateko gradua	3
LANPOSTUA	
Zerbitzu orokorrak (atezaina)	1
Irakaslea	2
Administraria	6
Garbiketa	4
Lorezaintza	2
KONTRATU-MOTA	
Kontratu partziala edo ordezenak	5
Kontratu mugagabea	10
SARTZEKO MODUA	
Oposizio-lehiaketa	4
Lan-kontrata	11

Galdeketa erantzun duten pertsona guztiek gauza bat dute berdin: inork ez zuen bere garaian behar zuen informazio edo aholkurik jaso, zer aukera zituen jakiteko eta, era horretan, bere interes eta gaitasunen arabera aukerarik egokiena egiteko. Lana beren kasa eta familiaren laguntzarekin bilatu zuten. Curriculumak aurkeztu zituzten eta funtzio publikoan sartzeko prozesuei eta kontratazio pribatuari buruzko informazioa beren kasa bilatu zuten. Pertsona bati unibertsitateko irakasle batek lagundu zion, partikular gisa. Galdeketa egin duten bi emakumek uste dute aurkeztu ziren oposizioetan Administrazioak ez zituela ongi tratatu; gainera, desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lanpostuak hutsik utzi zituzten (ez dute prozesu horiei buruzko informaziorik jaso).

Galdeketa egin duten pertsona guztiek akademia- eta lan-orientabideko zerbitzuekin esperientziarik ez dutenez edo esperientzia oso txarrak izan dituztenez (inork ez zekien lan-orientabideko baliabideak zituztela eskura), eta egoera hori konpontze aldera, hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei orientabidea, informazioa eta aholkularitza eskaintzeak Lanbide Heziketako ikastetxeetako eta unibertsitateetako Orientabide Sailen funtsezko zereginetako bat izan behar du.

Hori da gure lanaren xedea: **hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten pertsonen akademia- eta lan-orientabidea eskaintzeko protokolo bat diseinatzea, dauzkaten aukeren arabera ikasketa eta lanbide egokienak aukeratzeko eta beren gaitasun guztiak gauzatu ditzaketen enpleguak lortzen laguntzeko.**

Hauek dira, zehazki, lan honen helburuak:

1º. Lanbide Heziketako ikastetxeetako Orientabide Sailei HLPBak dituzten ikasleekin aritzeko gida bat eskaintzea, honako hauek aintzat hartuta: harrera- eta inklusio-prozesuak, banakoen premien zehaztapena eta curriculumera sartzeko egokitzapenak diseinatzea eta martxan jartzea. Gida honako hauetan oinarrituta egongo da:

- Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Heziketan eskolatutako HLPBak dituzten ikasleei buruz dauden datuak.

- Desgaitasuna duten pertsonen ikasketa, prestakuntza eta enplegurako sarbidean dituzten oinarriko eskubideak.
- Estatuan eta Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen lan-egoera, kontuan hartuta, batetik, langabeziak eta/edo enplegu-prekarietateak gehien eragindako kolektiboak; eta bestetik, egoera horretara heltzeko arrazoiak.
- Enplegua informazioa jaso ondoren bilatzeko laguntza-prozesu eta -neurriak.

2º. Bigarren Hezkuntzako institutu eta ikastetxeetako Orientabide Sailei hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak, haiek hala nahi badute, Lanbide Heziketako ikasketetara bideratzeko protokolo-gida bat eskaintzea.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan HLPBak dituzten ikasleei buruz dauden datuak.
- Hezkuntza-premia eta gaitasun pertsonal zehatz eta testuinguruan kokatuak.
- Heziketa-zikloen eskaintzaren eta curriculum-betekizunen azterketa.

3.

LHko ZIKLO EDO PROGRAMETAN ESKOLATUTAKO IKASLEAK

Lehenik eta behin, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan HLPBak dituzten ikasleak 2017ko urrian zer egoera eta kondiziotan zeuden aztertuko dugu. Aldagaien arabera multzokatu ditugu: sexua, diagnostiko-mota eta hezkuntza-maila. Era horretan, Lanbide Heziketako HLPBdun zer ikasle dauden eta zer kondizio dituzten jakingo dugu (Nafarroan Lanbide Heziketako programa zein ziklotan, DBHn eta Batxilergoan eskolatutako HLPBdun ikasleen datu orokorrak [A eranskinean bildu ditugu](#): “Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak. EDUCA. 2017ko urria”).

1. TAULA. HLPBAK DITUZTEN IKASLEAK NAFARROAKO LHKO IKASTETXEETAN. 2017KO URRIA.
ITURRIA: EDUCA.

SEXUA	EMAKUMEAK		GIZONAK										Guztira
	F	A	P	I	E	B	F	A	P	I	E	B	
Diagnostiko-mota	F	A	P	I	E	B	F	A	P	I	E	B	Guztira
EMHZ	6	11	121	2	1	40	9	18	337		2	65	612
GMHZ	8		54	1	4	9	4		138	1	3	21	243
Guztira	14	11	175	3	5	49	13	18	475	1	5	86	855
			257				598						
OLH	2		38			13	10	25	152		3	45	288
BLH	7	71	2	1	4	0	4	107	14		2	0	212

Hezkuntza-premia fisikoa (F): Bostehun kodeekin erroldatutako nahasmenduak dituzten ikasleak. Mugikortasuna eta mugimen larri edota xehea dituzte erasanda.

Adimeneko hezkuntza-premiak (A): Adimen-atzeratasun arina (111 kodea) eta, horrez gain, autismoa (121 kodea) dituzten ikasleak.

Hezkuntza-premia psikikoak (P): Sei ehun kodeekin zerikusia duten nahasmenduak dituzten ikasleak (portaeraren nahasmendu aztoratzaileak, antsietate-nahasmenduak eta aldartearen, tiken eta nortasunaren beste nahasmendu batzuk).

Zentzumeneko hezkuntza-premiak: ikusmenekoak (I) eta entzumenekoak (E). Laurehun eta hirurehun kodeak, hurrenez hurren. Bi kolektiboetan arin, larri eta sakon gisa sailkatzen dira; sailkapen horrek, kasu batzuetan, zerikusi zuzena du hezkuntza-premien mailarekin.

Bestelako hezkuntza-premiak (B): Hizkuntzaren nahasmenduak, ikaskuntzaren nahasmenduak eta adin horietan oso urriak diren eta presentzia deigarria duten beste nahasmendu batzuk (mututasuna...).

LHn HLPBak dituzten ikasleei buruzko datuetatik eratorritako ondorioak

Espero bezala, erdi-mailako heziketa-zikloetan goi-mailakoetan baino hezkuntza-premiadun ikasle gehiago daude: kasuen % **71,6** eta % **28,4**, hurrenez hurren.

Ikasle horietatik % 69,9 gizonak dira eta % 30,1 emakumeak. Alde horretatik, kontuan hartu beharra daukagu LHko ikasle gehienak gizonezkoak direla (batez ere arlo zientifiko eta teknologikoetan).

Premia-motei dagokienez, psikikoak dira nagusi: ikasleen % 76, hain zuzen ere. Gehienek portaeraren nahasmendu aztoratzaileak dituzte (611, 611A, 611B, 612, 613 eta 614 kodeak), baina 630 kodeko 52 ikasle ere badaude (antsietate-nahasmenduak eta aldartearen, tiken eta nortasunaren beste nahasmendu batzuk).

Bigarren diagnostikorik ugariena bestelako hezkuntza premiarena da, HLPBdun ikasleen % 15,8k baititu horrelako beharrak; gehienek, 79 ikaslek, irakurketaren nahasmenduak dituzte (240 kodea).

Diagnostiko fisiko eta zentzumenekoen (entzumena eta ikusmena) prebalentzia % 3,15 eta % 1,6 da, hurrenez hurren.

Adimenarekin zerikusia duten hezkuntza-premiak ikasleen % 3,4k ditu, eta den-denak erdi-mailako zikloetan daude.

Aurreko 1. taularen arabera, Oinarrizko Lanbide Heziketan (OLH) eta erdi-mailako zikloetan matrikulatutako ikasleen portzentajeak antzekoak dira. Alde horretatik, HLPBdun ikasle gehienak gizonak dira, eta batik bat arlo psikikoko eta beste arlo batzuetako premiak dituzte; gizon askok, halaber, adimeneko hezkuntza-premiak dituzte. OLHko ikasleei buruzko datu horiek ezagutzea garrantzitsua da, asko Lanbide Heziketako erdi-mailako graduatara pasako baitira datozen urteetan.

Berariazko Lanbide Heziketan (BLH) eskolatutako ikasle gehienek hezkuntza-premiak adimen-desgaitasunarekin (% 84) eta nahasmendu psikikoekin (% 7,5) dute zerikusia. Ikasle horiek normalean ez dira Lanbide Heziketako beste maila batzuetara joaten, beren hezkuntza-premiak programa horrek betetzen dituelako (21 urtera arte luzatu daiteke).

Adinaren eta hezkuntza-mailaren arabera egokiak ez diren kodeak dituzten LHko ikasleei dagokienez, ohar hauek egin beharra daukagu:

1. Ikasle batzuk bestelako hezkuntza premien diagnostikoen kodeekin daude erroldatuta, adibidez: 623, haurtzaroko lotura-nahasmendu erreaktiboa (bi ikasle erdi-mailan eta ikasle bat goi-mailan); 622, mututasun selektiboa (ikasle bat erdi-mailan); 230, nahasmendu fonologikoa (15 ikasle erdi-mailan eta 9 goi-mailan). Ikasle horiek, gure iritziz, adin horiekin eta etapa horietan, ez lukete kode horiei dagokien hezkuntza-premiarik eduki beharrik. Horregatik, berriz aztertzea komeni da.

2. Halaber, atentzioa ematen du erdi-mailako zikloetan 29 ikaslek adimen-desgaitasun arina izatea. Izan ere, dakigun bezala, adimen-desgaitasun arina duten ikasleak haientzat bereziki diseinatutako Berariazko Lanbide Heziketako programetan egon behar dute. Egoera hori konpondu beharko litzateke; izan ere, litekeena da ikasle horiek adimen-desgaitasun arinaren diagnostiko-irizpideak ez betetzea eta erroldan baja eman behar izatea.

4.

DBHn ETA BATXILERGOAN ESKOLATUTAKO IKASLEAK

Bigarrenik, DBHn HLPBak dituzten ikasleen 2017ko urriko datuak aztertuko ditugu, Nafarroako institutu publiko eta ikastetxe pribatu eta itunpekoetakoak, hain zuzen ere (ikus **A** eranskina, “Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak, EDUCA. 2017ko urria”). DBHko eta Batxilergoko ikasleak oso garrantzitsuak dira gure azterlanerako, datozen ikasturteetan batzuk Lanbide Heziketako zikloetan sartuko direlako.

2. TAULA. NAFARROAKO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTU ETA IKASTETXEETAN HLPBAK DITUZTEN IKASLEAK.

2017KO URRIA.ITURRIA: EDUCA.

SEXUA	EMAKUMEAK	GIZONAK												
Desgaitasun-mota	F	A	P	I	E	B	F	A	P	I	E	B	Guztira	
Maila	DBH	33	55	425	11	20	324	53	52	1,233	6	28	482	2,722
	Batxilergoa	10	2	22	1	13	23	7	3	233	2	6	20	342
	GUZTIRA	43	57	447	12	33	347	60	55	0	8	34	502	3,064
	939	2,125												

DBHn HLPBak dituzten ikasleei buruzko datuetatik eratorritako ondorioak

DBHn dago HLPBdun ikasle gehien (2.722 pertsona), derrigorrezkoa delako eta 12 eta 16 urte arteko gazte guztiak hartzen dituelako. Kopuru horretan CEP eta IEHP programak sartzen dira, baina ez CBUak, non 114 gizon eta emakume dauden, modalitate berezietan eskolatuko direnak, eta ez LHko heziketa-zikloetan. Goi-mailako gaitasunak dituzten ikasleak ere ez ditugu aintzat hartu, LHn matrikulatuz gero ez dutelako sartzeko curriculumua egokitu beharko.

Ikasle gehienek (% 61) nahasmendu **psikikoak** dituzte, batez ere portaeraren nahasmendu aztoratzaileak (611, 611A, 611B, 612, 613 eta 614 kodeak). Halaber, 187 ikaslek antsietate-nahasmenduak eta aldar-tearen, tiken eta nortasunaren beste nahasmendu batzuk dituzte (630 kodea), 35ek Asperger dute (123 kodea) eta 28k garapenaren nahasmendu orokortu zehaztugabeak (125 kodea).

DBHn, nahasmendu psikikoen atzetik **bestelako nahasmenduak** datoz: guztira 806 ikasle daude multzo horretan, % 29,6, hain zuzen. Arlo horretan, ikasle gehienek, 614k, hain zuzen, ikaskuntzaren nahasmenduak dituzte: 470ek irakurketaren nahasmendua (240 kodea), 104k idazketaren nahasmendua (250 kodea) eta 40k kalkuluaren nahasmendua (260 kodea). Eta horien atzetik hizkuntzaren nahasmenduak datoz: 36 ikaslek nahasmendu fonologikoak dituzte (230 kodea), 37k adierazpen-hizkuntzaren nahasmenduak (231 kodea) eta 101ek hizkuntzaren nahasmendu mistoa (232 kodea).

Hezkuntza-premia **fisikoak** DBHn erroldatutako kasuen % 3,1ek ditu, eta zentzumeneko hezkuntza-premiak % 2,4k (17 ikaslek ikusmenekoak eta 48k entzumenekoak).

Adimenaren disfuntzioetatik eratorritako hezkuntza-premiak DBHn erroldatutako kasuen % 3,9k ditu. Datu hori oso deigarria da, gehienak 2., 3. eta 4. mailan baitaude. Ikastetxeetako errolda kontrolatzeko ardura dutenek gai hori berriz aztertu beharko lukete.

Batxilergoan ateratako ondorioak

Batxilergoan hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten 342 ikasle daude erroldatuta. Horietatik % **79,2** gizonak dira eta % **20,8** emakumeak.

Ikasle gehienek, % **74,5ek**, hain zuzen ere, hezkuntza-premia **psikikoak** dituzte, eta multzo horretako portzentaje handi batek portaeraren nahasmendu aztoratzaileak (611, 611A, 611B eta 613). Halaber, 35 ikaslek antsietate-nahasmenduak eta aldartearen, tiken eta nortasunaren beste nahasmendu batzuk dituzte (630 kodea), 7 ikaslek Asperger dute (123 kodea) eta bik garapenaren nahasmendu zehaztugabeak (125 kodea).

Bestelako nahasmenduen epigrafean hezkuntza-premiak dituztenen % **12,6** daude. Alde horretatik, ikaskuntzaren nahasmenduak dira ugariak (240 kodea): 23 ikaslek irakurketaren nahasmendua dute (240 kodea), lauk idazketaren nahasmendua (250 kodea) eta beste lauk kalkuluaren nahasmendua (260 kodea). Hizkuntzaren nahasmenduak, berriz, 9 ikaslek dituzte.

Zailtasun **fisikoekin** zerikusia duten hezkuntza-premiak ikasleen % **4,9k** ditu, eta **zentzumenarekin zerikusia dutenak** % **6,4k** (**entzumenekoak** % 5,5 eta **ikusmenekoak** % 0,9).

Azkenik, adimen-atzeratasun arina duten bost pertsona daude etapa horretan, eta deigarria da.

5.

LHko IKASTETXEETAKO JARDUERA-PRINTZPIOAK

Aurreko ataletan azaldutako datuak aztertu ondoren, Lanbide Heziketako ikastetxeetan hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten pertsonen eskaintzen zaien hezkuntza-laguntza arautzeko oinarritzko printzipio batzuk zehaztu ditugu. Hona hemen:

LEHENA. Desgaitasuna eta hezkuntza-laguntzako premia berezia: bi kontzeptu, hezkuntza-jarduera bat.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak hartzen dituzte, eta ikasle horietako batzuk desgaitasun-ziurtagiria dute. Ideia hau oso zabalduta dago: desgaitasun bat duten pertsona guztiak hezkuntza-premiak dituzte eta hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten pertsona guztiak desgaituak dira. Maiz, pertsona batek bi deskriptoreak ditu, baina parametro horiek betetzen ez dituzten ikasleak ere badaude: hezkuntza-premiak dituzte baina ez dute desgaitasun-ziurtagirik, edo desgaitasun-ziurtagiria dute baina, dauden hezkuntza-ingurunean, ez dute hezkuntza-premia berezirik. Betiere, gure erantzukizuna pertsona bakoitzak, curriculum-eskakizunaren eta ingurune akademiko eta sozialaren arabera, zer premia dituen jakitea eta premia horiek betetzeko edo arintzeko behar duen laguntza ematea izango da.

BIGARRENA. Prestakuntzaz eta enplegu duinaz gozatzeko eskubide unibertsala.

Nazioarteko legeak aztertu ditugunean ikusi bezala, guztiok dugu kondizio beretan hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea. Ikastetxeek behar adina neurri hartu behar dituzte hezkuntza-premiak edota desgaitasunak dituzten pertsonen haiek aukeratutako programa, ziklo edo mailan sartzea errazteko; hori, betiere, sartzeko eskatzen diren baldintza orokorrak betetzen badituzte. Prestakuntza eskatzen duten pertsonen informazioa ematea orientabide akademiko, bokazional eta profesionalen langileen lehentasunezko lana izan behar du, eskatzaileek datu, erreferentzia eta irizpideak izan ditzaten, haien interesen eta aukeren arabera aukera egokia emateko.

HIRUGARRENA. Interesak eta betekizunak batzea.

Desgaitasun eta hezkuntza-premia batzuek, mailagatik zein ezaugarriengatik (mugimenekoa, psikikoa, zentzumenekoa...), ikasleek curriculum jakin bat eraginkorki lantzea eta arrakastaz gauzatu ahal izatea baldintza dezakete. Halaber, lanbide-arlo eta lanbide jakin batzuei loturiko heziketa-ziklo jakin batzuetan ahalmen, abilezia eta trebezia bereziak behar dira, horiek gabe ezin direlako profesional horiei dagozkion zeregin eta lanak bete. Egokiena pertsonaren gaitasunak nahi duen lanbideko betekizunekin bat etortzea da. Ordea, hori ez da beti gertatzen: batzuetan, egindako aukera ez da egokia eta, ondorioz, ikasleek arazoak eta ikastetxeak eta irakasleek zailtasunak izaten dituzte.

LAUGARRENA. Akademia- eta lan-informazio eta -orientabidea.

Gorabeherak, maiz, eskatzaileak informaziorik ez duelako edo gaizki orientatu dutelako eta, ondorioz, zer ikasketa egin behar dituen eta titulazioa lortu ondoren zer lan egin beharko duen ongi ez dakielako sortzen dira. Horregatik, hezkuntza- eta lanbide-orientabideko profesionalen egoera eta

kasu zehatz bakoitza aztertu behar dute eta pertsonari hezkuntza-eskaintzako aukera guztien berri eman behar diote. Halaber, adierazi behar diote zer ikasketa datozen bat ikaslearen gaitasun eta aukerekin eta zeinetan izango dituen zailtasun gehiago titulua edo lanbide-egiaztagiria lortzeko.

BOSGARRENA. Curriculumera sartzeko egokitzapenak.

LHko ikastetxeek ikasleek ahalik eta kualifikazio handienak lor ditzaten behar dituzten curriculum-egokitzapenak egin behar dituzte. Dena den, Lanbide Heziketan curriculum-egokitzea ez da soilik helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak aldatzea, helburua ikasleak “profesionalizatzea”, hau da, lanbide-prestakuntza ziurtatua ematea baita. Profesionalizatzeko, betiere, ezaupide teoriko eta praktikoak, abilezia espezifikokoak eta trebetasun teknikoak eskuratu behar dira, horiek gabe ezin delako lanbidean jardun.

Lanbide Heziketan egin daitezkeen egokitzapen bakarrak curriculumera sartzeko egokitzapenak (CSE) dira, hau da: bitartekoak aldatzea edo bitarteko bereziak jartzea, hezkuntza-premiak dituzten ikasleak curriculum orokorrean sartu ahal izan daitezen; bitarteko horiek izan daitezke baliabide materialak, giza baliabideak edo komunikazio-baliabideak. Ikasle bakoitzarentzat bere hezkuntza-premien araberako baliabideak (giza baliabideak, materialak eta didaktikoak) eta neurriak aukeratu behar dira. Gai hori aurrerago landuko dugu, atal berezi batean.

OHARRAK:

EDUCAk Nafarroako derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako ikasleen hezkuntza-premiez ematen dituen datuak antolatzeke eta aztertzeke garaien irregulartasun hauek atzeman ditugu:

- 1º.** EDUCA erroldari “Hezkuntza-premia berezien errolda” esaten zaion arren, HLPBak irizpide desberdinekin multzokatuta daude: mugimenekeo premia eta premia psikikoetan taxonomia medikoa da, eta zentzumenekeo premietan, berriz, hezkuntza-irizpideak aplikatzen dira. Gure aholkua EDUCA errolda aztertzea eta kasu guztietan hezkuntza-irizpideak erabiliz egokitzea da.
- 2º.** DBH arruntean, heziketa-zikloetan eta Batxilergoan adimen-desgaitasuna duten ikasleak egotea bitxia iruditzen zaigu. Erroldako datu horiek aztertzea ezinbestekoa da.
- 3º.** Beste diagnostiko batzuk (mututasun selektiboa, haurtzaroko lotura-nahasmendu erreaktiboa eta abar) errolda berrikusterakoan aldatzea ahaztutakoak dirudite, ez da goelako benetako hezkuntza-premiarik.
- 4º.** Litekeena da adin eta etapa horietan hizkuntzaren nahasmenduak (fonologikoak...) eta ikaskuntzarenak (kalkulua, irakurketa, idazketa...) arindu izatea, bestela ikasleek ez luketelako dauden mailan egotea lortuko. Horiek guztiak zehatz-mehatz berraztertzea komeni da, gaur egun hezkuntza-premia bereziak dituztenak bakarrik ager daitezen.

6.

LHko IKASTETXEETAN HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEENTZAKO HEZKUNTZA-ARRETA

Lanbide Heziketako ikastetxeetan izena emateko eta matrikulatzeko prozesuak irailean amaitzen dira, ikasturte berria hastearekin batera. Eskolak hasten direnean, talde bakoitzean gehienez hogeit hamar ikasle matrikulatu berri eta errepikatzaile-kopuru zehaztugabe bat (ia beti bost baino gutxiago) egoten dira.

Ikasleek, maiz, ez dute jakiten aukeratu dituzten ziklo eta Lanbide Heziketako ikastetxeak nolakoak diren. Horregatik, ingurune akademiko berriari eta curriculum-eskakizunei buruzko berriazko informazioa beharko dute. Ezinbestekoa izango dute, halaber, erakunde, profesional eta ikaskideek harrera ona egitea eta segurtasuna eskaintzea, hasiera-hasieratik.

6.1. HARRERA- ETA INKLUSIO-PROZESUAK

HARRERA-JARDUNALDIAK.

Lehenbiziko iritziek harremanak nolakoak izango diren baldintza dezakete. Ikasleek ikastetxearekin, profesionalarekin eta ikaskideekin duten lehen harremana harrera-jardunaldietan formalizatzen da. Hori dela eta, oso garrantzitsua da jardunaldi horiek antolatzerakoan kontuan hartzea ikasgeletan desgaitasunak edo hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak egon daitezkeela.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan, harrera-saioak lanbide-arloen arabera egiten dira: Zuzendaritzako eta Orientabideko taldearekin bilera orokor bat egiten da eta, horrez gain, talde/gela bakoitza dagokion tutorearekin biltzen da. Familientzako harrera-jardunaldia ere egiten da, antzeko moduan.

HLPBak dituzten ikasleei eta haien familiei dagokienez, harrera-jardunaldiak bi modutan diseina daitezke: deialdi berezi bat eginez edo, bestela, bilera orokorretan aparte bilduz. Bi aukerak egokiak dira, baldin eta ikasle horiek hezkuntza-komunitatearen aurrean ikusgai jartzen (bereizten) ez baditugu. Harrera-jardunaldien formatua ikastetxe bakoitzak aukeratzen du; betiere, konfidentzialtasuna ahal bezainbeste zaindu eta harrera- eta inklusio-esperientzia erraztu behar da. Nolanahi ere, hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleekin, bilera orokorraz gain banako elkarrizketa egin behar da (ikaslearekin eta, hala badagokio, familiarekin).

Harrera-prozesuei buruzko **D eranskinean** hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleentzako eta haien familientzako harrera-jardunaldietako bileretarako eta banako elkarrizketetarako gidoien proposamenak bildu ditugu.

Bilera orokor zein banako elkarrizketetan landu beharreko gai bat erakundeak aniztasunaren arretarekin eta konfidentzialtasuna zaintzarekin duen konpromisoa da.

Hasieratik argi utzi behar da ikaslea dela bere espediente pertsonalaren jabea eta hari eskatuko zaiola bere bizitza akademiko eta profesionalarekin zerikusia duten erabaki guztiak hartzea. Orientabide Sailak ez du erabakirik hartzen, informazioa eta irizpideak eskaintzen ditu, erabakiak ikasleek har ditzaten. Ahalduz gero, hori ikasleekin eta haien familiarekin egiten diren lehen elkarrizketetan hasten da. Elkarrizketa horietan, Orientabide Sailak ideia hau azaldu behar die ikasleei: gure proposamena **konfidentzialtasun-konpromisoari buruzko F eranskinean** jasotako agiria lantzea eta osatzea da.

Harrera-prozesua amaitu ondoren, hezkuntza-laguntzako premia berezidun ikasleak dauden

talde/geletako tutoreei tutoretza- eta hezkuntza-lanerako garrantzitsuak diren datuak eta informazioa eman behar zaie; horretarako, ikasleek edota familiak (ikasleak adingabeak badira) baimena sinatu dute. [Harrera-prozesuei buruzko D eranskineko](#) bigarren atalean, “[Tutoreei hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei buruzko informazioa emateko datuak](#)”, jaso ditugu guretzat garrantzitsuenak direnak.

INKLUSIORAKO JARDUERAK

Harrera-jardunaldiei esker, ikasleak erraz eta bizkor ohitzen dira eskola-erakundera; hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleentzat, ordea, hori ez da nahikoa izaten. Ikasle horiek ikastetxean eraginkorki integratzeko, ingurune sozial eta akademikoan aldaketak egin behar dira eta aldaketa horiek, batzuetan, pertsonen jarrera errotik aldatu beharra ere ekarriko dute. Inklusio kontzeptua da kolektibo horren harremanak eta gizarte-partaidetza arautzeko eta hobetzeko elementurik indartsuenetako bat. Inklusio kontzeptuak honako hauek barne hartzen ditu:

- Besteek bidezko tratua ematea (hizkera zaintzea eta jarrera diskriminatzaileak ez izatea).
- Desgaitasunak dituzten pertsonak osasuntsuak ez direlako edo gauzak egiteko gaitasun gutxiago dutelako ustea (estigmak, estereotipoak...) errotik kentzea.
- Produktuak, komunikazioak eta ingurune fisikoa ahalik eta jende gehienak erabiltzeko moduan jartzea (diseinu unibertsala).
- Gauzak, prozedurak eta sistemak aldatzea, desgaitasunak dituzten pertsonak ahal bezainbat erabil ditzaten (zentzuzko egokitzapenak).

“Helburuak lortzeko denbora eta ahalegina behar dira”

(sen ona)

Batzuentzat desgaitasuna (eta, hortaz, hezkuntza-laguntzako premia bereziak) gaitz, gaixotasun edo akats moduko bat da, desgaitasuna duen pertsona eguneroko zereginetan hain baliozko edo erabilgarria ez izatea eragiten duena. Horregatik, Lanbide Heziketako ikastetxeetan ere desgaitasunari buruzko informazioa emateko, zer den ulertzeko eta sensibilizatzeko ahalegina egin behar da. Horretarako, prestakuntza- eta sensibilizazio-jarduerak antola ditzakegu; jarduera horien formatua, diseinua eta iraupena ikastetxe bakoitzaren sormenaren eta aukeren arabera izango da. Formatu eraginkorrenak ikasleei desgaitasuna duten pertsonen (bertakoen edo kanpokoan) adibide prototipikoak lantzeko aukera ematen diete, analisiak eginez, iritziak alderatuz eta eztabaidatuz.

Ikastetxean antolatzen diren sensibilizazio-jarduerak zentzu handiagoa izango dute ikasgelan desgaitasuna duten ikasleak hartzen baditugu eredutzat. Batzuetan, ordea, ikasle horiek ez dutela nabarmendu nahi esaten dute eta, beste batzuetan, inklusio-maila hain handia eta ikasgelan hain rol ahaltsua dituzte, ez dagoela haien desgaitasuna aintzat hartzeko beharrik ere. Orientabide Sailean gai horiek guztiak aztertu behar dira, ikasleekin batera erabakitzeko jarduera horiek onerako edo kalterako izango diren.

Ikastetxeko talde/gelaren batean jarduera horiek gauzatzea egokituz joz gero, errazena eta eraginkorrena izan ohi direnak [E eranskinean](#) jaso ditugu: “[Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleentzako inklusio-jarduerak](#)”.

Gai horiek eztabaidatuko dituzten profesionalentzat lagungarri eta eredugarri izan daitezten, beheko tauletan sensibilizazio- eta inklusio-jardueren azken laburpen hipotetiko batean agertu beharko luketen kontzeptu, gai eta estrategiak bildu ditugu:

JARRERA INKLUSIBOAK.HIZKUNTZAREN ERABILERA

- Pertsona horiek "ahal dute"; desgaitasunak dituzte, baina gauzak egiteko, lanerako eta bizikide izateko gai dira.
- Denak ez dira berdinak, bereziak dira eta bakoitzak bere premia eta bereizgarriak ditu.
- Desgaitasuna ez da termino absolutua, ez du desgaitasuna duen pertsona osoa kutsatzen: funtzio jakin batzuei eragiten die eta gainerakoak kontserbatu egiten dituzte edo ongi garatuta dituzte.
- Desgaitasuna ez da banako problema, kolektiboa baizik.Desberdintasunak onartzea eta aukerak berdintzeko laguntzak jartzea eskatzen du.
- Zure elkarrizketetan, pertsona horiez ari bazara, aipa ezazu beren izena, ez beren egoera.
- Hurbil zaitez.Haiekin hizketan ari bazara, begiratu aurpegira.
- Emaiezu hitz egiteko denbora gehiago, hala behar badute.
- Azaldu zer interes dituzun (proiektuak, gustuak, zaletasunak...) eta galde iezaiezu zer interes dituzten.
- Ezin baduzu haien laguna izan, izan zaitez beti ikaskide.

LAGUNTZA INKLUSIBOAK.DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONAK

- Lagundu baino lehen, galdetu laguntzarik behar al duen.
- Hitz egiozu zuzenean gurpil-aulkian dagoen pertsonari, ez haren lagunari.
- Hitz egiteko, jarri parean eta altuera berean.
- Gurpil-aulkia, eskorga, ordenagailua eta abar nola erabiltzen diren ez badakizu, galde iezaiozu nola lagun diezaiokezun.
- Makuluak edo protesiak erabiltzen baditu, egokitu zure ibilera harenera.

LAGUNTZA INKLUSIBOAK.IKUSTEKO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK

- Harremanetan jarri orduko, esan nor zaren.
- Zalantza bat duela ikusten baduzu eta oztoporen bat badago, eskain iezaiozu laguntza.
- Jarri hura baino pixka bat aurrerago eta, ibiltzeko, eskain iezaiozu besaburua euskarri gisa.
- Zer edo zer eskaintzen edo adierazten badiozu, deskriba iezaiozu zer den.
- Ez ahaztu adierazitako hori zehatz-mehatz non dagoen azaltzea.
- Gida-hitzak erabili behar dituzu, adibidez:ezkerrean, eskuinean, aurrean, atzean, goian, behean eta abar.
- Behar izanez gero, heldu eskua eta lagun iezaiozu zer objektu den ukimenaren bitartez antzematen.
- Ingurua hitzez deskribatzea komeni da.
- Ez ezazu bakarrik utzi aurretik esan gabe.
- Egunero erabiltzen dituen objektuak beti leku berean utzi behar dira.

LAGUNTZA INKLUSIBOAK. ENTZUTEKO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK

- Poliki eta argi hitz egiozu.
- Bere aurrean eta, ahal izanez gero, nahiko argi dagoen lekuan jar zaitez.
- Gorputz-hizkuntza eta keinuak erabil itzazu (handizkatu gabe).

LAGUNTZA INKLUSIBOAK. ENTZUTEKO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK (JARRAIPENA)

- Hitz bakunak eta ezpainetan irakur daitezkeenak erabil itzazu.
- Saiatu bizkarrez dagoenean ez hitz egiten.
- Egiazta ezazu esan duzuna ulertu duela.
- Ulertu ez badiozu, ez egin ulertu diozunaren itxurarik.
- Natural joka ezazu eta adorea eman iezaiozu.
- Elkar nekez ulertzen baduzue, idatzi esan nahi duzun hori.

LAGUNTZA INKLUSIBOAK. ADIMEN-DESGAITASUNA EDO DESGAITASUN PSIKIKOA DUTEN PERTSONAK

- Izan ezazu jarrera natural eta umila.
- Ez izan beldur.
- Ez iezaiozu hitz egin haur bat izango balitz bezala, ez baita haurra.
- Ez iezaiozu iseka egin, errespetatu ezazu.
- Erantzun egiten dizkizun galderari eta ziurtatu ulertu dizula.
- Hartu pazientzia, motel erreazionatu ohi dute eta esaten duzuna ulertzeko behar bada denbora gehiago behar dute.
- Hurbil zaitez lagunkiro. Jarri zure begiak harenen parean.
- Behar badu, lagun iezaiozu, baina saiatu egin dezakeen guztia bere kasa konpon dezan.
- Erraztu eta susta ezazu beste pertsona batzuekin harremanak izan ditzan.

Ikasleak prestatzeko lana ez da sentsibilizazio-jarduerekin amaitzen. Eguneroko jardueran jarrera inklusiboak izan behar ditugu, hala irakasleek ikasleekin duten harremanetan nola ikasleen artekoetan. Gai hauekin adi egon behar dugu eta konponbidea bilatu behar diegu:

- **Jolas-orduko eta irteerako bakartzea.**
- **Eskoletako barre eta komentario diskriminatzaileak.**
- **Gizarte-sareak modu oldarkor edo baztertzailan erabiltzea.**
- **Lanerako bikote eta taldeak pertsona batzuk nabarmen baztertuz sortzea.**
- **Ez laguntzea.**

Neurri egokienak eredarri izatea eta prebentzioa dira. Ikastetxeko profesionalak hasieratik inklusioa funtsezko kontzeptua dela adierazteko eta eredarri izateko gai badira, hau da, desberdintasuna errespetatzen eta baloratzen badute, ikasleek errazago bereganatuko dituzte printzipio horiek. Betiere, edonork errespetua galtzen badu edo diskriminatzen edo baztertzeko jarrera nabarmenak baditu, ikastetxeko Bizikidetzara Araudian jasotako hezkuntza-neurriak hartu behar dira.

6.2. HEZKUNTZA-PREMIAK ATZEMATEA, ZEHAZTEA ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

Hezkuntza-premiak testuinguruaren arabera dira beti, hau da, ingurune kondizio eta eskakizunen arabera agertzen dira era batera edo bestera eta maila desberdinetan. Lanbide Heziketako ikastetxeetara, ikasleak aurreko etapetan (batzuetan haurtzaroon) egindako balorazio diagnostikoekin heltzen dira. Diagnostiko horiek, beharbada, gaur egun ez dute haietatik eratorritako hezkuntza-premiekin zerikusirik. Izan ere, gerta daiteke ikasleak heldu, eskarmentua hartu eta ikasi izanaren ondorioz, hezkuntza-premia horiek aldatzea edo desagertzea. Ikasleen hezkuntza-premiak ezagutu, zehaztu eta testuinguruan kokatu ahal izateko, sei fasetan banatutako prozesu bat diseinatu dugu.

HEZKUNTZA-PREMIAK ATZEMATEKO ETA ZEHAZTEKO PROZESUA	
PAUSOAK	JARDUERA/LANA
Lehena	Ikasleen zerrenda.EDUCA errolda
Bigarrena	Espediente pertsonala aztertzea
Hirugarrena	Irakasleek atzemandako HPak
Laugarrena	HPen autopertzepzioa
Bosgarrena	HPak ikasleekin aztertzea
Seigarrena	HPak testuinguruan kokatzea

LEHEN PAUSOA

HLPBak dituzten ikasleen zerrenda lortzea. Irailean, EDUCA plataformak Lanbide Heziketako ikastetxeen eskura jartzen ditu arlo bakoitzean matrikulatutako hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen datuak. Ikasleen zerrenda hori da gure lana hasteko oinarria eta gure lanaren jomuga. Dena den, ez dugu ahaztu behar gure ikastetxeetan erroldatu gabe egon arren hezkuntza-premiak dituzten ikasleak egon daitezkeela eta horiekin ere esku hartu beharko dugula. Arreta non jarri eta ahalegina norekin egin ikastetxeak eta han lan egiten duten profesionalak erabakiko dute, egoeraren arabera.

BIGARREN PAUSOA

“Zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta egokiagoa izango da zure laguntza”.

A) Ikasleen espediente pertsonaleko datuak lortzea. Lehendabizi, EDUCAtik datu hauek har ditzakegu:

- Historia akademikoa: ikastetxeak, egindako programak, kalifikazioak eta tituluak.
- Atzemandako hezkuntza-premiak, diagnostikoak, diagnostikoen datak, egokitzapenak eta doitzeak.
- Datu soziofamiliarak: familia-konstelazioa, koordinazioak eta harremanak.
- Jasotako beste ohar garrantzitsu batzuk. Orientabide-txosten eta -proposamenak

Informazio hori guztia jasotzeko [CI eranskina](#) jarri dugu eskura: **“Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen datu pertsonalak”**. Eranskin hori ikasleen informazio-gunea izango da eta han gordeko ditugu lanean lortzen ditugun datu guztiak. (Taldeko azterketak egin nahi izanez gero,

eranskin horretako datu batzuk Google formulario gisa antola daitezke, aztertzeko eta antzekotasun eta premia kolektiboak zehazteko.)

B) Jatorrizko ikastetxeetako datuak lortzea

Ohikoa da ikasturtearen hasieran, hainbat arrazoirengatik, irakaskuntza-jarduera eta jarduera psikopedagogikoa diseinatzeko eta martxan jartzeko behar ditugun datu batzuk EDUCAn eskura ez izatea. Horrelakoetan ezinbestekoa da Bigarren Hezkuntzako erreferentziako ikastetxeekin harremanetan jartzea, dauzkaten txosten, balorazio eta hezkuntza-neurriak eskatzeko. Alde horretatik, **B eranskinean** ikastetxe horiei informazioa eskatzeko eredu gutun bat jaso dugu: “**Institutu eta ikastetxeentzako gutuna**”. Ematen dizkiguten datuak C1 eranskinetako erregistroan gordeko ditugu: “Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen datu pertsonalak”.

HIRUGARREN PAUSOA

Irakasleek hezkuntza-premiak atzematea. Hasierako ebaluazioaren aurretik (irailean eta urrian) irakasleek ikasleen funtzionamendu akademiko, pertsonal eta soziala aztertzen eta erregistratzen dute. Prozesu hori errazteko eta diskriminazio-irizpide bateratuak izateko, gure proposamena da erroldatutako ikasleak dauden talde/geletako tutoreei (edo, lana ikastetxe osora zabaldu nahi izanez gero, tutore guztiei) atzematen duten hori jasotzea errazten duen tresna bat ematea: **G eranskina**, “**Tutoreek premiak atzematea**”. Tresna hori taldekoa da eta, halaber, banako datuak biltzeko balio du. Talde/gela batean lan egiten duten irakasle guztiek erabili behar dute, nahiz eta osatzeko eta Orientabide Sailari emateko ardura tutoreak duen.

Gure orientabide-lana izango da talde/gela bakoitzetik aztergai ditugun ikasleen datu pertsonalak ateratzea eta haien espediente pertsonalean (C1 eranskina) jasotzea.

Galdeketa egingo duten profesionalen ikasleen diagnostikoaren berri ez ematea komeni da, haien iritzietan eraginik ez izate aldera. Gero, datu guztiak jaso ondoren, irakasle-taldeari ikasleen hezkuntza-premien berri emango diogu.

Tresna hori gela osoarekin erabiltzeko kontuan hartzeko moduko abantaila bat du: positibo eta negatibo faltsuak atzematen lagunduko digu. Hau da, ikusiko dugu ikasle batzuek, erroldatuta ez egon arren eta desgaitasunik ez duten arren, hezkuntza-premiak dituztela; eta beste batzuek, nahiz eta EDUCAn HLPB gisa erroldatuta egon, gaur egun ez dutela benetako inolako hezkuntza-premiarik.

LAUGARREN PAUSOA

“Norberaren bizimodua antolatzen antolatzeko aukerak izanez ikasten da.”

Ikasleen premien autopertzepzioa Oinarrizko Lanbide Heziketako eta erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako ikasleek adin nahikoa dute introspektzio bideratua egiteko, curriculum-betekizunekin benetan zer zailtasun dituzten adierazteko eta beren desgaitasun edo hezkuntza-premiak nola bizitzen eta interpretatzen dituzten azaltzeko. Horretarako, EDUCAn erroldatutako ikasleek (edo, komenigarritzat jo eta denbora eta aukera izanez gero, ikasle guztiek) galdeketa bat egitea proposatu dugu; **H eranskinean** jaso dugu galdeketa horren eredu bat: “**Galdeketa: HLPBen autopertzepzioa, interesak eta itxaropenak**”. Galdeketa horiek oso sinpleak dira eta datuak bizkor eta erraz ematen dituzte. Google formularioa baliabide oso erabilgarria da, informazio estatistiko eta grafikoa ematen duelako, banakoa eta kolektiboa, eta informazio hori, gero, erantzunak eta banako edo taldeko esku-hartzeak diseinatzeko erabil daitekeelako.

Galdeketa garrantzitsua izan daitekeen informazioa bildu dugu: interes akademiko eta profesionalak, gerora begirako iguripenak, diagnostikoaren arabera hartzen dituen botikak... H eranskinean proposatu dugun galdeketa atal hauek ditu:

- Norberaren datuak.
- Desgaitasun-ziurtagiria (edukiz gero) eta -maila.
- Norberak atzemandako hezkuntza-premiak.
- Ikasteko plana eta teknikak.
- Interesak eta iguripenak

BOSGARREN PAUSOA

Hezkuntza-premien analisisia partekatzea. Banako galdeketaren, irakasleen iritzien eta espediente pertsonalaren azterketaren bitartez lortutako datu guztiak C1 eranskinetako erregistroan jaso behar dira: “Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen datu pertsonalak”. Ikasleekin batera tresna hori aztertuz, gaur egun benetan zer hezkuntza-premia dituzten jakingo dugu.

Datu horien jabeak eta kudeatzaileak ikasleak direnez, banako elkarrizketak egingo ditugu, gure ondorioen berri emateko, beren ondorioak atera ditzaten errazteko eta zer erabaki posible dauden azaltzeko:

Elkarrizketa pertsonala. Landu beharreko gaiak:

- Irakasleek emandako datuak azaltzea.
- Irakasleek emandako datuen balorazio pertsonala egitea.
- Autopertzepzio-galdeketa zer datu lortu diren azaltzea.
- Autopertzepzio-galdeketa datuak baloratzea.
- Gaur egungo hezkuntza-premiak zehaztea.
- Eskura ditugun datuak oinarritzat hartuta egindako lan-planaren berri ematea.
- Ikasleak galderak eta eskariak egitea.

SEIGARREN PAUSOA

Hezkuntza-premiak zehaztea eta testuinguruan kokatzea. Orain, aurreko faseetan zehaztutako ikasleen kondizio eta premiak eskolatuta dauden heziketa-zikloko gaitasun profesionalekin eta curriculum-eskakizunekin alderatu behar ditugu.

I eranskinetan, “Nafarroan eskaintzen diren lanbide-arlo eta heziketa-zikloak”, oinarritzko datu hauek ditugu:

DAGOKION LANBIDE-ARLOAN ESKATZEN DIREN GAITASUN PERTSONALAK.

a) Oinarritzko gaitasunak prestatzeko eta lan egiteko aukera ematen dutenak dira, lana lortzea ahalbidetzen duten funtsezko trebezia eta oinarritzko ezaupideak. Hona hemen gaitasun horien adibide batzuk: ikusmen- eta entzumen-eraginkortasuna, garapen kognitiboa, ingurunera eta arauetara egokitzea, mugikortasuna, koordinazioa eta oreka, ama-hizkuntza menderatzea, atzerriko hizkuntza bat menderatzea, matematikako gaitasuna, IKTak erabiltzea...

b) Gaitasun teknikoak prestakuntza jakin bat jaso ondoren eskuratutako gaitasunak dira. Lanpostu jakin bateko gaitasun bereziak dira eta, beraz, lanbide bakoitzak bereak ditu. Azterlan honetan gaitasun horiek ez ditugu kontuan hartuko, LHko lehen mailetan matrikulatutako ikasleak ditugulako aztergai.

c) Zeharkako gaitasunak gaitasunak langile batek bere lana eraginkorki egin ahal izateko behar dituen abilezia eta eta trebetasun guztiak dira. Zeharkako gaitasunek edozein lanbidetan aritzeko balio dute eta hainbat testuingurutan lortzen dira (lantokian eta lantokitik kanpo). Hona hemen zeharkako gaitasun batzuk: talde-lana, erantzukizuna, autonomia, ekimena, pertsona arteko harremanak, ikasteko gogoia eta abar. *LHko hasierako uneez ari garenez, horiek ere ez ditugu kontuan hartuko.*

Aukeraturiko heziketa-zikloa definitzen duen gaitasun orokorra (GO).

Lanbidean ekoizpen- eta enplegu-betekizunen arabera jarduteko behar diren ezaupide eta gaitasunak.

Heziketa-zikloaren berezko lanbide-zereginak (LZ).

Oinarrizko abilezia eta gaitasun tekniko eta zeharkakoak erabiltzea eskatzen duten lanbidearen berezko jarduerak; jarduera horien emaitza ezarritako kalitate-baldintzak betetzen dituen produktu bat da.

Nafarroan eskaintzen den heziketa-ziklo bakoitzeko azterlan bat egin behar izanez gero, Hezkuntza Departamentuak helbide honetan gure eskura jartzen dituen curriculum ofizialetara jo beharko dugu:

<https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/profesorado/curriculos-y-normativa/ciclos-formativos>.

Curriculum ofizialak eredutzat hartuko ditugu, ikasleen gaitasun pertsonalak eta heziketa-ziklo bakoitzak eskatzen dituen gaitasun profesionalak alderatzeko. Alderaketa hori egiteko taula hauetan jasotako gaiak hartuko ditugu aintzat:

GAITASUN-ATALAK

Gaitasun-atala aintzatespen eta akreditazio partziala jaso dezakeen gaitasun profesionalen gutxieneko multzoa da. Gaitasun-atal bakoitzari prestakuntza- edota lanbide-modulu bat dagokio, non gaitasun-atal hori lortzeko zer prestakuntza behar den deskribatzen den.

JARDUERA-IRIZPIDEAK

Langileen jardueraren berri ematen duten ebaluazio-enuntziatuak. Espero diren emaitzen ezaugarriak adierazten dituzte.

JARDUERAREN EBIDENTZIAK


Lanbide-jardueraren emaitza egiaztatzen den lan-egoera. Emaitza egiaztagarri eta neurgarriak dira.

- Ebidentzia zuzenak: egindako lana egiaztatzea.
- Produktuaren ebidentziak: egindako produktua neurtzea.
- Jakintzaren eta ulermenaren ebidentziak: emaitzak lortzeko erabiltzen diren printzipio, metodo eta teoriak ezagutzea.

Gaitasun-atalak, ebaluazio-irizpideak eta jardueraren ebidentziak ikasleek heziketa-ziklo bat amaitu ondoren aztertu behar dira. Orain eredutzat erabiliko ditugu, ikasleen oinarrizko gaitasun pertsonalak aztertzeko eta alderatzeko.

ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUAREN ESKEMA

HEZKUNTZA-PREMIAK ZEHAZTEA ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA



Prozesu horren ondorioak ikasleen erregistro pertsonalean jasoko dira: C1 eranskina, “Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen datu pertsonalak”. Horrez gain, ikasleekin banako elkarrizketak egingo dira, ondorio horien berri emateko eta baloratzeko.

Elkarrizketa pertsonala. Landu beharreko gaiak:

- “Ikasleen datu pertsonalak...” agiria irakurtzea eta komentatzea.
- Heziketa-zikloak zer ezaugarri eta betekizun dituen azaltzea.
- Zikloaren baldintza eta betekizunak ikasleen gaitasun pertsonalekin alderatzea.
- Zailtasunak adieraztea (halakorik egonez gero).
- Zailtasun horiek konpentsatzeko edo konpontzeko ekintzak zehaztea.
- Etorrizuneko aukerak (titulatzea, igotzea...).

6.3. CURRICULUMERA SARTZEKO EGOKITZAPENAK

“Integratzea curriculumara HLPBak dituzten ikasleei egokitzea baino ez da, inklusioa guztientzako curriculum bateratu bat egitea da” (Pijl, S. 1.999)

Lanbide Heziketako ikasketak amaierakoak direnez (propedeutikoak ere badiren arren), ikasleek heziketa-ziklo bakoitzeko curriculuma osorik bete behar dute. Izan ere, titulatu ondoren, lanbideari dagozkion lanak eraginkortasunez, segurtasunez eta kalitatez egin behar dituzte, ekoizpenaren eta enpleguaren betekizunei jarraikiz. Horregatik, Lanbide Heziketako curriculumaren egokitzapenak ez diete eduki eta helburuei eragin behar. Etapa horretan, curriculumera sartzeko egokitzapenetan baliabide materialak, giza baliabideak eta komunikazio-baliabideak aldatu edo hornitu baino ezin da egin, hezkuntza-premia bereziak edota desgaitasunak dituzten ikasleek curriculum orokorra bete ahal izan dezaten.

Hona hemen curriculumera sartzeko egokitzapen batzuk: arkitektura-oztopoak kentzea, argia eta soinua hobetzea, altzari egokituak jartzea, laguntzeko profesionalak izatea, laguntza tekniko eta teknologikoak jartzea (laguntza optiko eta ez-optikoak, tresnak, tifloteknologia...), komunikazio-sistema osagarriak eta komunikatzeko ordeko sistemak (Braillea eta zeinu-hizkuntza) izatea, antolamendua aldatzea eta doitze didaktikoak egitea:

SARTZEKO EGOKITZAPENAK		
Ingurune fisikoa aldatzea	Baliabide teknikoak	Giza baliabideak
Metodologia egokitzea	Ebaluazioa egokitzea	Antolamendua aldatzea

INGURUNE FISIKOA ALDATZEA.

BALIABIDE TEKNIKO ETA MATERIALAK

Ingurune fisikoa aldatu eta egokitzaren helburua erabilera publiko eta pribatuko espazio guztiak pertsona guztientzat irisgarriak izatea da. Hori ezinbestekoa da, bereziki, mugitzeko edo zentzumeneko desgaitasun edo zailtasunak dituztenentzat. Hona hemen pertsona horiek zer behar duten:

- Arkitektura-oztopoak kentzea (eskailerak, atak, komunak...).
- Maiz erabiltzen diren lekuetan argi- eta soinu-kondizioak hobetzea.
- Ikasgela, komun, korridore eta abarretako altzari eta gauzak egokitzea.

Batzuetan, desgaitasunak dituzten pertsonen eta haien senideen elkarteekin harremanetan jarri beharko dugu, kasu bakoitzean ingurune fisikoa nola hobetu eta zer bitarteko tekniko jarri jakiteko.

Baliabide tekniko eta materialak laguntza espezifiko behar-beharrezkoak dira, desgaitasunak dituzten pertsonak curriculumera sartzeko ahalbidetzen dutelako.

Desgaitasun bakoitzak pertsonaren premien arabera egokitutako baliabideak ditu. Hona hemen baliabide garrantzitsuenen zerrenda:

MUGITZEKO DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEI LAGUNTZEKO BALIABIDE MATERIALAK

MUGITZEA ETA LEKUZ ALDATZEA ERRAZTEKO BALIABIDEAK

- Baranda eta eskudelak korridore, eskailera eta geletan. Eskuleku edo heldulekuak.
- Arbel, ispilu, esekigailu, armairu, apal eta abarren altuera.
- Ikastetxean gurpil-aulkiak, makulu edo bastoiak, eskorgak eta gailu ortopedikoak edukitzea eta erabiltzea erraztea. Arrapala eramangarriak eta abar edukitzea.
- Altzariak egoki kokatzea. Ikasmahaira erraz heldu ahal izatea, ikasgelako guneak zabalak eta irisgarriak izatea, lanerako materialak eskuratzeko moduan egotea.
- Ikasleren batek protesiak erabiltzen baditu, beharbada jartzen edo kentzen nola lagundu ikasi beharko dugu.

JARRERA KONTROLATZEKO TRESNAK. ALTZARIAK

- Mahaiek hozkak edukitzea, altuera eta inklinazioa premien arabera erregulatzeko eta enberrari hobeto eusten laguntzeko. Taulak handia (60/90 cm) eta inklinazioa erregulatzeko eta ertzean oihal ez labaingarri bat jartzeko modukoa izan behar du.
- Eserleku egokituak, eserleku pelbiko edo termoplastikoak, bizkarra eta oinak ongi kokatzeko modukoak eta, behar izanez gero, aldaka-gidariak eta eusteko zingilak dituztenak.
- Plano inklinatuak edo bi hankatan jartzeko modukoak, denbora guztian eserita egon ez daitezzen.

MANIPULATZEA ERRAZTEKO BALIABIDEAK

- Komunetan aginte bakarreko txorrotak jartzea.
- Ateetako eskutoki biribilen ordezkariak jartzea.
- Ikastetxeko denentzako guneetan seinaleztatzeko laguntza teknikoak jartzea: ordulari-seinalea, buruko gailu edo likornioak, Etran taula, keinukaria eta abar.

KOMUNIKAZIOA ERRAZTEKO BALIABIDEAK

- Ordenagailua eta inprimagailua teklatu egokitu edo normalekin, teklatu-emulagailuak, sagu-emulagailuak. Teklatu-karkasa edo -estalki bat erabiltzea, nahi ez diren teklak eta karaktere bera behin eta berriz ez sakatzeko.
- Ordenagailura sartzeko kommutagailu edo sakagailuak erabiltzea.
- Komunikatzeko software espezifikoak: Broadmarker, Speaking dinamically, "Hola amigo", Plaphoons, Sigla, Etsedi, Escribir con símbolos 2000, Communicate in print eta abar.
- Komunikagailu eramangarriak, ahots-maileguarekin edo paper-irteerarekin.

IKUSTEKO DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEI LAGUNTZEKO BALIABIDE TEKNIKO ETA MATERIALAK

ONCEREN "GUÍA SOBRE TIFLOTECNOLOGÍA Y TECNOLOGÍA DE APOYO PARA USO EDUCATIVO" GIDALIBURUAN OINARRITUAK.

INFORMAZIOA ESKURATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK

- **Ikusterik ez dutenentzako ordenagailu eta gailu eramangarriak (braille lerroak):** beste gailu batera konektatuz gero datuak Braille kodean ematen dituzten gailuak dira. Gailurik egokienak telefono adimendunak dira eta Bluetooth bidez konektatzen dira.
- **Ikusterik ez dutenentzako ordenagailu eta gailu eramangarriak (pantaila-irakurgailuak):** gailuaren pantailako informazioa jasotzen dute eta erabiltzaile itsuaren eskura jartzen dute kanal irisgarri eta ikusmenaren ordezkoren bitartez (hizketaren sintesia edo braille lerroa, edo biak batera).
- **Ikusterik ez dutenentzako ordenagailu eta gailu eramangarriak (handigailuak):** ikusmen-ekasiaz larriak dituzten pertsonen pantailan dagoena irakurtzen laguntzen dieten programak dira (letren neurria, forma eta koloreak alda daitezke).

TESTUAK IRAKURTZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK

- **Testua ahots bihurtzeko gailuak:** testua ahots sintetiko bihurtzen duten sistemak dira.
- **APP lupak:** telefono adimendun eta tabletetarako aplikazioak dira, irudia handitzen dutenak.
- **Eskuko lupa elektronikoak:** LCD pantailadun gailuak dira, 1,5etik 20ra arteko handipenekoak; kontraste positibo edo negatiboa jartzeko eta irudia gelditzeko aukera dute. Modelo batzuek urrutiko kamera dute.
- **Telebista-lupak:** irudiak handitu eta monitore batean jartzen dituzte.
- **Karaktere-ezagutze optikoko sistemak:** tintaz inprimaturiko agirien bertsio digitalak ematen dituzte eta, era horretan, itsuek hizketaren sintesi edo braille lerrodun sistema informatikoen bitartez irakur ditzakete.
- **Irakurgailuak:** askotariko formatu digitaleko liburuak hizketaren sintesiaren edo braille lerroaren bitartez irakurtzeko balio duten gailuak.
- **Tiposkopia:** irakurtzeko zirrikitu bat duen kartoi mehe beltz bat da, kontrastea handitu eta itsutzea arintzen duena.

INFORMAZIOA ERABILTZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK

- **Ohar-hartzaile mintzodunak:** braille teklatura duten gailu elektronikoak dira, informazioa gorde eta, gero, hizketa edota braille bidez ematen dutenak.
- **Testua braille bihurtzeko programak:** testuak (normalean ANSI edo ASCII formatukoak) braille kodeko taula bihurtzen dituzten software-aplikazioak. Braille-inprimagailu eta -teklatuak: braille kodean idazteko eta inprimatzeko periferikoak.
- **Karaktere handiko teklatuak:** ohiko QWERTY teklatuak, gutxi ikusten duten pertsonentzat karaktereak handitzen dituztenak.
- **Teklatu birtualak eta APP:** kurtsoreak erabiliz teklatu fisikoaren funtzioak emulaten dituzten programak. Batzuek hitzak aurreikusten dituzten sistemak dituzte.

HEZKUNTZA-INGURUNEKO BALIABIDEAK

- **QR kode eta irakurgailuak:** eskaneatuz gero edozein objektu, web-orri, egoera edo jardueraren berri ematen duten ikonoak.
- **Ikasgela inklusiboak sortzea:** gutxi ikusten duten ikasleen ordenagailu eramangarria irakaslearenarekin paraleloan konfiguratzeko. Ikaslea irakaslearen eta arbelaren edo, egonez gero, arbel digitalaren aurrean eseriko da. Irakaslearen ordenagailua bere premien arabera konfiguratu da (teklatura, ukipen-pantaila, braille lerroa, handiagoa...).
- **Entico/Entico junior:** IKT tresnak erabiltzen hasteko metodoak dira. Ezinbestekoa da softwarea jaistea eta behar den hardwarea eta dokumentazio espezifikoak (gidaliburuak, irudia, erregistro-orriak...) edukitzea.
- **Leo (ONCEren etiketa-irakurgailua):** arkatx bat da, etiketen irakurgailu eta grabagailu optikoa, aurrez grabaturiko etiketen informazioa berehala irakurtzeko balio duena. Ordenagailu batekin sinkronizatzen da.
- **Ukipen-pantaila edo pantaila interaktiboa:** ukipen-monitore bat da, pantaila ukituz programen funtzioak aktibatzen balio duena.
- **Arbel digital interaktiboa:** sistema teknologiko baten eta dagokion softwarearen bitartez, arbela eta ordenagailua lotzen dira.
- **Tableta digitalizatzailea:** metalezko tableta magnetiko bat da, plastikozko estalkia eta erliebezko funtzio-teklak dituena; tekla horiek automatikoki hainbat lan egiteko programa daitezke.

Gailu horiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ONCEren “Guía sobre Tiflotecnología y Tecnología de Apoyo para uso educativo” eskuliburua kontsulta daitezke:

<file:///C:/Users/usuario/Downloads/Guia%20accesible.pdf>

ENTZUTEKO DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEI LAGUNTZEKO BALIABIDE TEKNIKO ETA MATERIALAK

ENTZUTEKO PROTESIAK

- **FM sistemak:** mikrofono baten bitartez igorlearen (irakaslea edo beste mintzatzaile bat) ahotsa hartu eta hartzaileari (ikasle gorra) zuzenean bidaltzen zaio; era horretan, bien arteko distantziak sortzen dituen arazoak, erreberberazioa, oihartzuna eta hondozarata desagertu egiten dira.

Baliabide horretaz gehiagoko jakin nahi izanez gero, sakatu hemen:

<http://www.aspasleehabla.comunicacion.com/sistemas-de-frecuencia-modulada-en-el-aula-guia-para-educadores-phonak/>

Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroak (NHBBZ) ikastetxei FM sistemak lagatzen dizkie eta ongi erabiltzeko jarraibideak ematen ditu.

- **Begizta magnetikoa:** soinu-seinaleak uhin magnetiko bihurtzen dituen kable bat da; uhin horiek entzuteko protesira bidaltzen dira zuzenean, zeinak indukzio-haril bat duen. Denentzako guneetan eskura egon beharko luke (ikasgelak, bilera-aretoak, idazkaritza, liburutegia, gimnasioa...).
- **Audiofonoak:** errazago komunikatze aldera soinu-seinaleak anplifikatzen eta aldatzen dituzten gailu elektronikoak dira. Belarri-hegalaren atzekoak, belarri barrukoak eta erdiko belarriko inplante aktiboak izan daitezke.

KOMUNIKATZEKO BALIABIDEAK ETA KOMUNIKAZIO-SISTEMA HANDIGARRI EDO ORDEZKOAK

- **Ezpainak irakurtzea:** ikusten diren igorlearen artikulazio-organoen mugimendu eta posizioen bitartez mezua ulertzea.
- **Ikusteko laguntza:** arbel, proiektzio, apunte eta abarretako testuak nabarmentzea eta azpítitulua jartzea, eta baita argidun abisuak ere, gai garrantzitsuen berri emateko (txirrina, jolas-ordua, larrialdiak, eskolen amaiera...).
- **Idatzizko hizkuntza:** mezua idatziz transmititzea. Ez du natural komunikatzeko aukera ematen.
- **Komunikatzen laguntzen duten sistema informatikoak:** hizkuntza mintzatua idatzizko bihurtzen duen hardware eta software espezifikokoak dituzten ordenagailuak, eskoletan ikaslea eta irakaslea lotzeko.
- **Zeinu-hizkuntza:** ordezko komunikazio-sistema bat da. Ezinbestekoa da igorleak eta hartzaileak sistema hori erabiltzen jakitea. Kasu berezietan zeinu-interprete profesionalen laguntza eska daiteke.
- **Bimodala:** komunikatzen laguntzeko sistema bat da, hizkuntza mintzatuaren (gaztelera zeinatua) egitura bera duena.
- **Hizketa osatua:** komunikatzen laguntzeko sistema bat da, zeinaren helburua hizketaren fonemak ikusaraztea den, zeinu silabikoekin ezpainen irakurketaren anbiguotasuna desagerrarazteko.
- **Daktilologia:** komunikatzen laguntzeko sistema bat da, eskuekin hitzak letreiatzea, hain zuzen ere. Zeinu-hizkuntzan erabiltzen da, zeinurik ez duten hitz berriak adierazteko.

Ahozko komunikazioan laguntzeko baliabideak prestakuntza-ibilbide osoan (Lanbide Heziketan ere bai) eduki behar dituzte eskura pertsona gorrek, modu koherente eta iraunkorrean. Kontuan hartu beharra daukagu goi-mailako hezkuntzara heltzeak eta ahozko hizkuntza izateak ez duela esan nahi ikasleek ez entzuteak komunikatzeko eta informazioa eskuratzeko sortzen dituen arazo guztiak gaindituak dituztenik.

GIZA BALIABIDEAK

Lanbide Heziketan, curriculum nabarmen egokitzeko aukerarik ez dagoenez, ez dago, aurreko etapetan bezala, laguntzako irakaslerik. Ikasleak ez dira ikasgelatik ateratzen laguntza edo berrindartze espezifikorik jasotzera, ikasle guztiek eduki eta jarduera berberak lantzen dituzte, ikasgela arruntetan eta lantegi edo laborategietan. Irakasle arruntek erantzun behar diete ikasle horien premia eta eskariei eta, horretarako, jarrera inklusiboa izateaz gain, premia horien araberako teknika didaktiko egokiak erabiltzeko prestatu behar dute.

Orokorrean, aurreko paragrafoan aipaturikoa da normalena; dena den, ohiz kanpoko kasuetan, Administrazioari profesionalak jartzea eskatzeko aukera dago, premia oso bereziak dituzten ikasleei curriculumera sartzera errazten espezializatutako profesionalak, hain zuzen ere. Adibidez: zeinu-interpreteak, entzuteko desgaitasun larriak dituzten eta inplante eta protesirik ez duten ikasleentzat; zaintzaileak, mugitzeko desgaitasunak dituztenentzat; eta ONCEko adituak, egun batzuetan ikastetxera joaten direnak ikasleak trebatzera eta curriculumera sartzeko egokitzapenetan laguntzera (braille idatzitako liburuak eta abar).

METODOLOGIA ALDATZEA. IRAKASTEKO ETA IKASTEKO TEKNIKAK

Irakasteko tresna profesional espezifikoa eta berezkoena didaktika da. Didaktika irakasteko teknika egokiak eta pertsona edo talde baten ikaskuntza egoki zuzentzeko modua ezartzen duen doktrina pedagogikoa da. Beraz, irakasteko prozedurak ikastea da.

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuek ondoz ondoko fase jakin eta argi batzuk dituzte. Irakasleek, ordea, fase horiek maiz ez dituzte ezagutzen eta ahaztu edo alde batera uzten dituzte. Hona hemen fase horien segida:

1ª fasea: Moldatzea - Behatzea

"Adituek" (irakasleak) honako hauek gauzatzea da: jokabideak, ekintzak, teknikak, abileziak, prozedurak, ariketak, ebazpen-metodoak, trebeziak, segidak, materialak, argudioak, ekuazioak, esperimenduak, ingeniariartzako konponbideak, jarduera artistikoak eta abar. Hori, "eskarmeturik gabekoek" (ikasleak) ikus ditzaten eta, gero, jarduteko modu horiek ikasi eta imita ditzaten.

Era horretako ikaskuntzan arreta, gogoan izatea (memoria) eta motibazioa funtsezkoak dira:ikasleak edukiak aurkezteko moduarekin "erakartzea" eta eskaintzen dugun ereduaren arreta jartzea lortzen badugu, oroitzeko eta memorizatzeko teknikak erabiltzen laguntzen badiegu eta eskaintzen diegun edukia haien erakargarria eta erabilgarria bada, emaitza askoz hobea izango da.

Ikaskuntza bikarioa geroko faseetako ikaskuntza konplexuagoaren oinarria da eta, oso elementala den arren, oso eraginkorra da portaerak eta jarrerak bereganatzeko, bereziki.

2ª fasea: Praktika gidatua

Praktika gidatuan ikasleei jarraibide eta prozedurak ematen zaizkie, lanak egoki egin ditzaten. Helburua da lanak eta problemak egiten laguntzea eta horretarako argibide zehatz eta argiak ematea.

Praktika gidatuan errepikapenak egitea ezinbestekoa da, prozedura eta prozeduraren faseak finkatzeko. Errepikapen-kopurua ikasle bakoitzaren baldintzen eta egin beharreko lanak zenbateko eraginkortasunarekin gauzatu dituztenaren arabera izango da.

Praktika gidatua irakasleak gainbegira dezake edo lan-bikote edo gainbegiratze-talde baten esku utzi dezake. Maiz, fase horri denbora gutxi eskaintzen zaio ikasgeletan.

3ª fasea: Praktika autonomoa

Ikasleek aurreko faseko praktika gidatuetan arrakasta-maila nahikoa lortu dutenean, jarduera berberak beren kasa eta gidatu gabe egin beharko dituzte. Praktika autonomoari ikasleek landutako edukia nahikoa menderatu arte eutsi behar zaio.

4ª fasea: Orokortzea

Ikasleek eduki edo prozedura bat arrakastaz gauzatzen dutenean, ikasitakoa beste egoera, testuinguru eta gai batzuetara orokortu ahal izango dute, gatazka edo arazo desberdin eta askotarikoak ebazteko.

Fase hori amaitzen denean, ikaskuntza ikasleen baliabide kognitibo, praktiko eta sozialetan (eduki-motaren arabera) behar bezala finkatua egoten da.

Ikasitakoa orokortzeko jarduerak aurkitzea ez da beti erraza. Horregatik, irakasle-taldeak ahalegin handia egin behar du, ikasleek jarduera horietan aurkituko baitute bere lan eta ikaskuntzaren zentzua eta esanahia.

Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten pertsona batzuek, moteltze kognitiboagatik, erantzunak (ahozkoak edo mugimenekoak) motelago ematen dituztelako edo pertzepzio- edo arreta-faktoreengatik, beharbada denbora gehiago beharko dute lehen faseak betetzeko (moldatzea eta praktika gidatua) eta hurrengoetara pasatzeko. Memorizatzea, analisiak egitea, loturak bilatzea, problemak ebaztea eta abar eskatzen duten curriculum-edukiak programatu behar dira kontuan hartuta zailtasunak dituzten ikasleek ikaskuntza-fase guztietatik pasa behar dutela bat ere utzi edo azaletik landu gabe.

Curriculumeko edukiak lantzeko askotariko teknika didaktikoak daude eta, beraz, ikasleen kondizio eta ezaugarrien arabera egokienak eta helburuak lortzeko eraginkorrenak direnak aukeratu behar dira. Hona hemen gehien erabiltzen direnak:

■ **Aurkikuntzan oinarritutako teknikak**

Gaitasun tekniko eta metodologikoak eskuratzeko ikaskuntza sustatzen dute, batez ere, eta parte hartzeko gaitasuna ere landu dezakete, antolaketa-ereduaren arabera. Proiektuetan lan egitea (PL) eta problemetan oinarritutako ikaskuntza (POI) erabiltzen dira gehien.

■ **Kasu-azterketan oinarritutako teknikak**

Kasu-azterketan oinarritutako irakaskuntzan, ikasleek eguneroko bizitzako esperientzia eta egoerak aztertzen eta eztabaidatzen dituzte. Funtsan gaitasun teknikoak sustatzen ditu. Problemak aztertzeko eta ebazteko prozesuak erabiltzen dira gehien. Kasu-azterketa gertakizunei erantzuten ikasteko erabiltzea komeni da.

■ **Parte hartuzko teknikak**

Parte hartzeko gaitasunak eta gaitasun pertsonalak lantzeko egokienak dira; gaitasun teknikoak hobetzen laguntzeko ere erabil daitezke. Elkarlaneko ikaskuntzako estrategiak, rol-jokoak eta aurkezpenak erabiltzen dira gehien.

■ **Beste teknika batzuk: paper-zorroa**

Paper-zorroa ikasleak egindako dokumentuak dituen artxiboa da. Dokumentu horiek prozesuaren etapetan ikasturte osoan ikasi duenaren ebidentziak dira. Artxibo hori ikasleak berak administratzen du eta irakaslearekin batera ebaluatzen du. Paper-zorroko elementuak normalean kronologikoki antolatzen dira. Ikaskuntza-baliabide gisa, teknika horren bitartez ikasleek beren burua ebaluatzen dute, beren ikaskuntza-prozesuaz konturatzen dira, engaiatu egiten dira, pentsamolde kritikoa eta erabakiak hartzeko gaitasuna lantzen dituzte eta problemak lantzen eta konpontzen ikasten dute.

Aipaturiko teknika batzuk martxan jartzerakoan, **hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak dauden talde/geletan**, horretaz arduratzen diren irakasleek honako hauek oso kontuan hartu behar dituzte:

- **Lanerako bikote edo taldeak** helburuen eta ikasleen premia eta gaitasunen arabera zehaztea (inor baztertu ez dezaten).
- Taldekide bakoitzaren **zereginak** zehaztea eta, hala badagokie, txandak ezartzea.
- Fase bakoitzaren **epeak** eta amaitzeko epea zehaztea (egikaritze-erritmo desberdinak baimendu daitezke, ikasle bakoitzaren ezaugarrien arabera).
- **Banakoen eta taldearen ebaluazioan jarrera inklusiboa eta eskainitako laguntza** kontuan hartzea (kalifikazioan “plus” hori proportzionala izango da eta aurrez jakinaraziko da; alde horretatik, balorazioa zuzentasunean oinarritu behar da, ez “karitatezko ontasunean”).

CURRICULUMERA SARTZEKO EGOKITZAPENAK JATORRI PSIKIKOKO HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK (600 KODEAK: ARRETA-DEFIZITAREN ETA HIPERAKTIBITATEAREN NAHASMENDUA, OPOSIZIOZKO DESAFIO-JOKABIDEA, NAHASMENDU DISOZIALA, NORTASUNAREN NAHASMENDUA, ANTSIETATE-NAHASMENDUA...) EDOTA IKASKUNTZAREN EDO HIZKUNTZAREN NAHASMENDUAK (200 KODEAK) DITUZTEN IKASLEENTZAT.

Portaeraren nahasmendu aztoratzaileak, antsietate-nahasmenduak eta aldartearen, tiken eta nortasunaren beste nahasmendu batzuk direla eta hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortu duten ikasleek nahasmendu horiengatik beharbada zailtasun ugari gairatu dituzte eta litekeena da hasieran baino premia gutxiago izatea, heldu egin direlako eta trebeziak, abileziak eta gaitasunak eskuratu dituztelako. Egungo premiei erantzuteko, Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako irakasleek irakasteko eta ebaluatzeko moduak alda ditzakete (egokitzapen didaktikoak eta antolamenduaren eta ebaluazioaren egokitzapenak). Hurrengo tauletan, egoera horietan dauden ikasleak dituzten irakasleentzako aholku didaktikoak emango ditugu.

IRAKASLEENTZAKO AHOLKU DIDAKTIKOAK



SAIOAK ETA ESKOLAK NOLA HASI

- Saioak aurrez antolatzea.
- Irribarre egitea eta ikasleak beren lekuetan eserita eta isil samar egon daitezen itxarrotea.
- Nahitaez **zer arau bete behar direnargi** uztea (ordena, txanda, joan-etorriak, isiltasuna...). Zertan lagun diezaiekezun eta laguntza nola eskatu behar duten argi uztea.
- "Arazoak" dituzten ikasleak besteen aurrean ez nabarmentzea. Inori bere izenez errieta ez egitea, aitzitik: zer jokabide izatea nahi duzun eta zugaran eta besteengan zer eragin dituen modu positiboan agertzea. "Denok esertzen bagara, lan egiten hasi ahal izango dugu".
- Estrategia prosodiko eta dramatikoak erabiltzea hasieran arreta jar dezaten: ahopean hitz egitea, indarrez intonatzea, keinuak egitea... eta, ahal izanez gero, gaia ebatzi beharreko misterio baten moduan aurkeztea.
- Hasieran, arbelean landu beharreko gaiaren izenburua eta saioaren eskema orokorra idaztea. Irakur edo kopia dezaten eskatzea.
- Denbora gehiago ematea jarduera motibagarriak proposatzen taldearen diziplina kontrolatzen baino; lehena lortuz gero, ez duzu bigarrenarekin ahaleginik egin behar.
- Eduki berria aurreko edukiekin lotzea. Gaiaz zer dakiten ikustea. "Zure ikasleari" arbelean aurreko ezaupide horiek idatz ditzan eskatzea.
- Estrategia horiekin guztiekin eta zure irakaskuntza-dinamikarekin ikasleak saioa hasteko prest egon daitezen lortu baduzu, eman iezaizkiezu eskerrak eta adierazi zer iguripen dituzun eta zeinen pozik zauden. Lortu ez baduzu, ez galdu umorea eta, lasai-lasai, hartu jokabidea aldatzeko beste neuri batzuk. Egoera menderatzea lortzen ez baduzu, zure programan diziplina lehenestea eta diziplina hori lortzeko ahaleginak izango duzu egokiena, gero curriculumeko eduki arruntak lantzeko. Orientabide Sailari laguntza eskatzea.

AZALPENAK EDO LANERAKO ARGIBIDEAK EMATERAKOAN

- Azalpena oztopa dezaketen distraktore guztiak inguruetik kentzea (ikusmenekoak, soinuak, jarduerak...). Ikasleak banako mahaitan jartzea, denak arbelari begira. Ikasle adigabeenak lehen ilaretan jartzea, ikaskide arretatsu, garrantzitsu eta interesdunen ondoan.
- Giltza diren une didaktikoen hasiera eta amaiera ikus- edota soinu-markagailuekin adieraztea (adibidez: kartoi mehe gorria, dena utzi eta irakasleari entzuteko unea; kartoi mehe berdea, banako edo taldeko lana...).

- Ikasle adigabeenei begietara begiratzea. Azalpenak ematen dituzun bitartean, ahal izanez gero ikasgelan ibiltzea. Hizkera aldatzea. Ez irakurri denbora luzez, oro aspergarria da!
- Galderak maiz egitea, egiaztatzeko ikasleek zuk azaldutako ideia eta edukiak ulertzen dituztela. Zuk egindako azalpenak ozenki laburbil ditzaten eskatzea. Dazkaten zalantzak agertzen uztea, baina etsi gabe eta isekarik, inkongruentziarik eta zentzugabekeriarik onartu gabe.
- Arreta galtzen badute, keinu konplize eta pribatuak erabiltzea (aurretik ikasleekin adostuak).
- Azalpenaren oinarriko edukiak ondo jakitea eta argi eta zehatz-mehatz adieraztea. Lana egiteko prozedurari buruzko informazioa ahal bezainbeste sinplifikatzea.
- Arbela erabiltzea azalpenaren oinarriko terminoak eta proposatzen duzun lanaren faseak argi eta garbi ikusteko moduan jartzeko. Termino eta fase horiek sistematizatzeko eta antolatzeke kolorezko klerak erabiltzea. Lan hori ikasleari egitea eskatzea, zure laguntzarekin.
- **Unitate didaktikoaren mapa kontzeptuala edo eskemaeskaintzea** (ikusizkoa, arbelean, fotokopietan...).
- Argibideekin **bateralana egiteko eredu argiak ematea**. Zure pentsamenduak hitzez adieraztea:
 - “Prestatzen ari naizen eta hemen jarri dudan material hau behar dut.” (aurreikuspen-fasea).
 - “Lehendabizi zera egin behar dut...” (lanaren lehen fasea).
 - “Gero, ongi egin dudan begiratu eta hurrengo pausoa emango dut...” (lanaren bigarren/hirugarren... faseak).
 - “Amaitu eta gero, lana berrikusi eta akatsak zuzenduko ditut.” (autoebaluazio-fasea).
 - “Bukatzeke, dena ongi badago, irakasleari erakutsiko diot.” (azken fasea).

LAN EGITERAKOAN EDO BAKARKA ETA TALDEKA IKASTERAKOAN

- **Lanak egiteko ohitura batezartzea, irakasle guztientzako prozedura estandarizatuekin**: problemak ebazteko formatu bera erabiltzea; edukiak orrian berdin antolatzea; ideia nagusi, izenburu eta eduki garrantzitsuak berdin azpimarratu eta nabarmentzea; jarduerak berrikusteko, zuzentzeko eta ebaluatzeke pauso berak ematea eta abar.
- Ikasleei **saiorako lan-plan batematea**, lana eta atsedenaldiak daukaten denboran banatuta. “Ibilbide-orri” hori honela erabiliko dute: amaitutako faseak ezabatu eta pausoz pauso aurrera egingo dute, proposatutako guztia amaitu arte.
- Ikasleen problemak ongi pentsatzea eta **jarduera orokorra jarduera laburragoetan zatitzea**. Fase edo jarduera bakoitzerako markagailuak jartzea eta ikasleek banan-banan betetzea, gauzatzeko, berrikusteko eta zuzentzeko pausoak jarraituz.
- Lanak denbora nahikoan adi egiten dituzten ikasleak denen aurrean goraipatuz **bereziki adoretzea**; adigabeengana hurbiltzea eta sorbalda arinki ukitzea, lanari berriz ekin diezaioaten, eta irribarre batekin eskertzea.
- Ikasleak nekatuta daudela edo mugitzea behar dutela nabaritzuz gero, **atsedenaldi funtzionalakegitea**: enkarguren bat egitera bidaltzea; ikaskideei materiala banatzeko agintzea; apalen bat txukuntzea, arbela garbitzea edo ezabagailua astintzea eskatzea; ikasleak mugiaraztea, baina zentzu praktikoarekin eta guztientzako balio duen zerbait egiteko. Jarduera etetea, atsedean hartzeko edo gorputza mugitzeko ariketa txikiren bat egitea eta, gero, lanean jarraitzea.
- HLPBak dituzten ikasleak **jarduera-estrategia egokiak eta arreta-maila ona duen ikaslebaten** ondoan jartzea, lan batzuk elkarrekin egitea eta ikasle trebea ikaskideari lagun diezaion trebatzea. Ezarritakoa betetzen dutenean, adore ematea.

- Ikasleari **adierazpen- edo sinbolizazio-abileziakeskatzen** dituzten lanak egitea eskatu aurretik, **manipulazio-jardueranahikoa** egin dituela eta sinbolo, kode eta adierazpen-klabe guztiak (zenbakizko esangura, algoritmoa, taulak, lexikoa...) ulertzen dituela ziurtatzea.
- Ikaslearekin **praktika gidatu** asko egitea, eman dion egikaritze-ereduari jarraikiz. Beste ikasle (adituago) batzuk erabiltzea praktika horietan gidari izan daitezke. Ikaslea **praktika autonomoarenfasera** (laguntzarik gabe) ikasteko prozedura ongi bereganatu ondoren bakarrik pasatzea. Ikaskuntza beste egoera eta eduki batzuetara hedatzeko beste era bateko laguntza beharko du eta berariaz eman beharko diozu: ikasitako prozeduraren aplikazioen zerrendak...
- Praktika gidatua eta praktika autonomoan, **ikasleak nolako akatsak egiten dituenikustea**: faseak ahaztea, arreta galtzea, ordenarik eza, edukian hutsak uztea, kalkulu-akatsak, erlazionatzeko eta alderatzeko arazoak, ez hausnartzea, ulertzeko zailtasunak eta abar. Hori aditzera ematea eta hobetzen laguntzea.
- Ikasleei **elkarlaneko jarduerak** proposatzea eta, horretarako, lan-taldeak sortzea; talde horietan ikasle bakoitzak bere zeregina eduki behar du eta denek ikasi behar dute zerbait. Jarduera horiek bakarka eta taldeka egiteko lehia-jarduerekin txandaka ditzakezu. **Gai eta lanen aurkezpenak** antolatzea, hitzaldi erakoak, taldekoak edo banakoak. Ikasleari **mnemotekniako teknikakerakustea**, datuak eta edukiak (ikusizko metaforak, akronimoak...) memorizatzen laguntzeko, eta teknika horiek erabil ditzan sustatzea.
- Taldeko edo bakarkako lanak egiten dituztenean, **harreman sozial positiboak sustatzea**: ikasleari taldearen aurrean prestigioa ematea, egiteko eta ikaskideei laguntzeko moduko lanak egokituz, eta bere arrakasten protagonista egitea; taldearen aurrean abileziak erantzuteko prestatzea; taldeak sortzeko irizpideak aldatzea eta dibertsifikatzea; gizarte-balioak eta pertsona arteko harremanetarako abileziak erakustea eta trebatzea; inor mespretxatzen eta gutxiesten ez uztea.

EBALUAZIOA ALDATZEA:

Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak ebaluatzeko sistema eta prozedurak printzipio hauen arabera diseinatu behar dira:

- **Gainerako ikasleentzako ebaluazio-irizpide eta ikaskuntzaren emaitza** berberak aplikatzea, curriculum ofizialean zehaztutakoak baitira.
- Ahal den guztietan, **ohiko prozedura eta tresnak** erabiltzea.
- **Askotariko azterketa-motak** aukeratzea eta ikasleen komunikazio-abilezien arabera egokienak direnak lehenestea (ahozkoak, idatzizkoak, galdera laburrak, praktikoak, test modukoak...).
- Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak ebaluatzeko probetan, eskoletan normalean **erabiltzen diren baliabide material, didaktiko eta pertsonalak erabiltzea**.
- **Denborak moldagarria eta** ikasle bakoitzaren ezaugarrien arabera izan behar du. Azterketak zatitu eta bizpahiru alditan egin daitezke, dena batera egin beharrean.

IRAKASLEENTZAKO AHOLKU DIDAKTIKOAK



AZTERKETAK ETA EBALUAZIOAK

- **Azterketak diseinatzean** HLPBak dituzten ikasleen kondizioak eta gai horri buruzko araudi ofiziala (65/2012 FA) kontuan hartzea.
- Ebaluatzean, batik bat **ebaluazio formatiboko** prozedurak erabiltzea; probak eta azterketak irakaskuntzako eta ikaskuntzako beste tresna batzuk baino ez dira (maiz ez dira nahikoa aprobetxatzen). Gainbegiratzen eta nork bere burua zuzentzen erakustea, atzeman ez dituzten akatsen berri ematea eta ez dakitena ongi azaltzea. Azterketa berriz egitea. Hobeto egiteaz gain, gehiago ikasiko dute!
- **Ikasleei azterketak eta lanak prestatzen erakustea** eta, horretarako, ikasteko denboraren antolamendua eta planifikazioa berariaz lantzea. Plan hori agendan jaso duela eta epeak betetzen dituela ziurtatzea (tutoretza).
- Azterketa eta proba luzeak ez prestatzea. Azterketa eta **probamotzagoak egitea, maizago**. Noiz egingo dituzun jakinaraztea, ikasleek prestatzeko eta ikasketa antolatzeko denbora izan dezaten.
- Azterketak **bakarka eta bakarrik** hobeto egiten dituzten ikasleei horrela egiteko aukera eskaintzea. Edukia gainbegiratzeko "erretira" daitezen uztea.
- **Galderak argi eta garbi planteatzea**; behar izanez gero, galderen funtsezko zatiak beste kolore batez idaztea (edo azpimarratzea).
- **Galderak ozen irakurtzen** saiatzea, denek berdin ulertzen dituztela eta bizkor edo hausnartu gabe irakurtzeagatik akatsik egiten ez dutela ziurtatzeko. Zalantzak argitzea.
- Hasieran, proba egiteko **zenbat denbora dutenazaltzea** eta galdera bakoitza noiz bukatu behar duten esaten joatea. Ikaslearen hurbilean egotea. Haien garrantzitsua den helduren bat gertu izanez gero, gehiago ematen dute.
- HLPBak dituzten ikasle batzuek kontzeptu orokor bat zatikatzeko zailtasunak izango dituzte, eta beste batzuek informazioa multzokatzeko. Hortaz, ikasgelan funtzio kognitibo horiek erakustez gain, **ez prestatu azterketak beti gai moduan** edo galdera luzeekin, erantzun laburreko edo aukera anitzeko galderak ere egin ditzakezu.
- **Ahozko probek** ikasleek dakitenari buruzko informazio asko ematen dute. Onena da ikasgelan era horretako probak ohiko bihurtzea eta sortzen duten estresa kentzea. Egin itzazu jendaurrean eta bakarka.
- **Azterketaluze** edo gaikako batzuk prestatzea, **talde txikitan** egin ditzaten. Estrategia hori gehiago eta hobeto ikas dezaten eta motiba daitezen erabiltzea. Hala ahalegina nola emaitzak baloratzea eta indartzea.
- Azterketak **akatsen neurria eta izaera aztertzen** ahaleginduz zuzentzea, zer akats egin dituzten idatziz jasotzea eta ikasleei akats horien eta zure ondorioen berri ematea. Hobetzeko aukerak eskaintzea.
- **Ikaslearekin bakarka biltzea, zure balorazioaren** berri emateko eta egoki iritzitako ohar guztiak egiteko. Zer kalifikazio duen hori egin ondoren jakinaraztea. Kalifikazioa negatiboa bada, **hobetzeko plan bat proposatzea, laguntzazehatzak eskaintzea eta itxaropen ona adieraztea** (tutoretza).
- Ikasle askok azterketa gaingaitzen ez badute, martxan jarri beharreko arreta espezifikoko edo ohiz kanpoko neurriak hartzea, irakasle-taldearekin batera: laguntza-gelara joatea, curriculum egokitzea, eskola-berrindartzea, talde moldagarriak... Ikaslearekin hitz egitea, zer egoeran dagoen jabeazteko, emaitza txarrak zergatik dituen azal dezan eskatzeko eta irakasle-taldeak zer erabaki hartu duen azaltzeko. Biok ahalegintzea adostea.

ANTOLAMENDUA ALDATZEA

Maiz, HLPBak dituzten ikasleei curriculumera sartzen laguntzea errazteko, ezinbestekoa da **ikasgelako antolaketa soziala** aldatzea. Curriculuma ikasleen premien ezaugarrien, lortu nahi diren helburuen eta jarduera bakoitzaren bereizgarritasunaren arabera egokitzen da. Horretarako, irakasle-taldeak gai hauek landu beharko ditu:

- Ikasleak mahaietan bakarka edo taldeka jartzea, arreta ez galtzeko leku egokienean.
- Ohiko ibilbideak arautzea (horma-irudi, paperontzi, apal eta abarretara heltzeko modurik egokienak bilatzea).
- Guztien eta norberaren materiala elkarrekin erabiltzeko arauak jartzea.
- Erantzukizunak txandakatzea.
- Ikaskideek elkarri laguntzeko prozedurak zehaztea.

Hona hemen pertsona arteko harremanetarako formatu didaktiko ohikoena:

■ **Aurrez aurrekoa** (eskola magistrala). Irakasleak hitz egiten du eta ikasleek entzun eta oharrak hartzen dituzte. Irakasteko gehien erabiltzen den metodoa da. Ezaupideak berehala transmititzen dira, baina ikasten dutenek oso gutxi parte hartzen dute. Irakasle onek prosodiako, adierazpeneko eta erreferentziatzko baliabideak egoki erabiltzen dituzte eta, era horretan, ikasleak adi egotea lortzen dute.

HLPBak dituzten ikasleek formatu didaktiko hau behar dute:

- Azalpena oso luzea ez izatea.
- Irakaslearen hurbilean eta ikusizko aurkezpenen (arbela, proiektzioa...) aurrean egotea.
- Alboan ikaskide aktibo eta langileak izatea.
- Azalpenean parte har dezan lortzea: galderak egitea, esandakoa labur dezan eskatzea, oinarrizko ideia zein den adieraztea...

■ **Talde-ikaskuntza**. Elkarrekin aritzea sustatzen du eta, ondorioz, partaidetzarekin zerikusia duten gaitasunak lantzeko egokia da; izan ere, lankidetzak, elkartasuna eta elkar ulertzea bultzatzen ditu.

HLPBak dituzten ikasleek formatu didaktiko hau behar dute:

- Taldeak irakasleak egitea (inor ez baztertzeko).
- Taldekideak aktibok izatea eta laguntzeko prest egotea.
- Zer helburu lortu behar dituzten, lanak zer fase eta aldi dituen eta lanerako zer material behar dituzten argi izatea.
- Taldekide bakoitzak zer zeregin eta, behar izanez gero, zer txanda dituen argi izatea.
- Lana zer irizpideren arabera ebaluatuko den eta zer lankidetzak-plus izango duen jakitea.

■ **Ikaskide batekin elkarlanean aritzea**. Aurreko metodoaren aldaera bat da: haren abantaila gehienak ditu, arinagoa izan daiteke eta ikasleek gehiago parte har dezakete, ez dutelako taldearen presiorik.

HLPBak dituzten ikasleentzat formatu didaktiko hau da egokiena:

- Taldeak irakasleak egitea (inor ez baztertzeko).
- Taldekideak aktibok izatea eta laguntzeko prest egotea.
- Zer helburu lortu behar dituzten, lanak zer fase eta aldi dituen eta lanerako zer material behar dituzten argi izatea.
- Taldekide bakoitzak zer zeregin eta, behar izanez gero, zer txanda dituen argi izatea.
- Lana zer irizpideren arabera ebaluatuko den eta zer lankidetzak-plus izango duen jakitea.

■ **Bakarkako lana.** Ikatea sustatzeko modu hau aurrekoak baino zailagoa da gauzatzen, ezinbestekoa delako ikasleei banan-banako arreta ematea eta materialak kontu handiz prestatzea. Ordea, ikasleen askotariko gaitasun eta jarreretara ondoen egokitzen dena da.

HLPBak dituzten ikasleentzat formatu didaktiko hau da egokiena:

- Lana antolatzen laguntzea (materialak, faseak, aldiak...).
- Irakasleak edo ikaskide gainbegiraleak banako arreta maizago eskaintzea (praktika gidatua).
- Balorazioak maizago egitea (jarduera bitan ebaluatzea, behin beharrean). Ahalegina eta ardura berrindartzea.
- Lanak gainbegiratzea, akatsak aztertzen laguntzea eta akats horiek zuzentzea.

J1, J2 eta J3 eranskinetan curriculumera sartzeko egokitzapenen ereduak jaso ditugu, adibide gisa. Eredu horiek zentzumen-desgaitasuna (J1 eranskina), hiperaktibitatearen edo ikaskuntzaren nahasmendua (J2 eranskina) eta mugitzeko desgaitasuna (J3 eranskina) dituzten ikasleentzako dira.

6.4. LANBIDEA EGIAZTATZEA: TITULAZIOA. PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIAK

Jakina, titulua ez dute heziketa-zikloa hasten duten ikasle guztiek lortzen: datu historikoen arabera, ikasleen % 75-80k lortzen du titulua. Desgaitasunak dituzten ikasleei antzekoa gertatzen zaie, nahiz eta datu zehatzik ez dugun.

Lanbide Heziketa amaitu duten ikasleen aukerak lortu dituzten emaitzen arabera dira, neurri handi batean. Titulua lortzen badute, titulazio horri dagozkion lanpostuetan sartzeko edo goi-mailako ikasketak egiteko aukera izango dute. Titulua ez lortuz gero, ordea, lan egiteko aukera gutxiago izango dute eta prestakuntzarik behar ez duten maila txikiagoko lanpostuetan arituko dira.

Batzuen eta besteen aholkularitza eta orientabidea (banako kasuetan) desberdina izaten da. Lehenbizikoek enplegua bilatzeko edota goi-mailako ikasketak egiteko jarraibide, estrategia eta baliabideak beharko dituzte. Bigarrenek beren burua ezagutzeko, profil pertsonala (akademikoa eta lanekoa) egiteko, bizi-proiektu bat zehazteko eta proiektu hori gauzatzeko neurriak hartzeko laguntza beharko dute. Hona hemen adibide batzuk:



1 KASUA: SERGIO.

Sergiok Asperger du eta "Telekomunikazio- eta informatika-sistemak" goi-mailako heziketa-zikloa amaitu du. Prestakuntza-modulu guztiak gainditzeko hiru ikasturte behar izan ditu eta lantokiko prestakuntza (praktikak) lehen deialdian amaitu du (historial inklusiboko enpresa batean aritu zen). Hezkuntza-laguntza behar du, soilik, zurruntasun kognitibo pixka bat duelako eta gizarte-harremanetan nahiko traketsa delako.

TITULAZIOA ETA SUSTAPENA:

Dena gainditu duenez, telekomunikazio-instalazioetako teknikari-titulua lortu du.

Lan-merkatuan sartu nahi du.

Bere ezaugarri pertsonalak direla eta, gizarte-arlotik gutxi duten lanbideetan bilatu beharko du lana.

• **Ikusizko pentsalarientzako lan egokiak:** informatikaria, publizista grafikoa, makinaren konponketa eta elektronika, mantentzeko langilea...

• **Ikusizkoak ez diren eta abilezia espezifikoak dituzten pentsalarientzako lan egokiak:** kontularia, biblioteknologoa, ingeniarietako enpresak, laborategia...



2. KASUA: MIKEL

Mikelek garuneko paralisia eta disartria ditu eta Haur Hezkuntzako goi-mailako heziketa-zikloa amaitu du. Eduki teorikoko prestakuntza-moduluetan kalifikazio onak ditu. Haurrak tratatzearekin zerikusia duten gaitasun-ataletan zailtasun handiak ditu (UC1028-3: ikastetxean eta haur-taldeetan esku hartzeko prozesuak programatzea, antolatzea, **gauzatzea** eta ebaluatzea. UC1029-3: autonomia- eta osasun-ohiturak hartzeko eta **trebatzeko** eta **arriku-egoeretan esku hartzeko** programak lantzea. UC1030-3: **jolas-egoerak** sustatzea eta **ezartzea**, haurren jardueraren eta garapenaren ardatz gisa); eta baita prestakuntza-unitate honetan ere: **lehen laguntzako oinarrizko teknikak** aplikatzea. Praktikaldian ere zailtasun horiek izan zituen, eta ez zuen gainditu.

TITULAZIOA ETA SUSTAPENA:

Ez du lortu Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikari-titulua. Proposamena da gaitasunak partzialki egiaztatzea edo, bestela, ahal izanez gero, profesionaltasun-ziurtagiri hau lortzea: "Desgaitasuna duten pertsonentzako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta sustapena". Kodea: SSCE0111. Lanbide-arloa: Gizarte- eta kultura-zerbitzuak eta komunitaterakoak. Lanbide-esparrua: Prestakuntza eta hezkuntza. Lanbide-prestakuntzako maila: 3. Erreferentziazko lanbide-prestakuntza: SSC450_3: Desgaitasuna duten pertsonentzako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta sustapena (1096/2011 ED, uztailaren 22koa). Horretarako, modulu batzuk osatu beharko ditu. HEZKUNTZA ETA ENPLEGU ADMINISTRAZIOAREKIN HARREMANETAN JARRI BEHARRA DAGO, ZIURTAGIRIA ETA PRESTAKUNTZA-PROPOSAMENA EGITEKO.



3. KASUA: SUSANA

Ikasle gorra da (kokleako implantea du) eta Stargardt gaixotasuna du (makulako gazte-distrofia). Gaixotasun hori dela eta, hobeto ikusteko baliabide espezifikoak behar ditu (bideolupak, eskuko lupak, ordenagailurako programa bereziak...). Erdi-mailako heziketa-ziklo honetako bigarren mailan dago: "Administrazio-kudeaketa". Kalifikazio onak ditu modulu guztietan, eduki teoriko zein praktikoetan.

TITULAZIOA ETA SUSTAPENA:

Titulua arazorik gabe lortuko du, dena gainditu duelako eta enpresako praktikak ere ongi egiten ari delako. Aurrerantzean gaur egun erabiltzen dituen baliabide materialak beharko ditu (handipen-lenteak, programa informatiko bereziak eta, beharbada, FM begitaduna). Enpresan ingurune argitsua eta zaratarik gabea beharko du. Hauek dira bere gaitasunen arabera lanpostu egokienak: administrari laguntzailea, bulegoko laguntzailea, kobrantza eta ordainketetako administrari laguntzailea, administrari komertziala, langile-kudeaketako administrari laguntzailea, herri-administrazioetako administrari laguntzailea, harreragilea, bezeroentzako arretako langilea, diruzaintzako langilea eta ordainbideetako langilea.



4. KASUA: MARCOS

Marcosek nahasmendu bipolarra du eta erdi-mailako heziketa-ziklo honetako bigarren maila egiten ari da: "Telekomunikazio-instalazioak". Azken ikasturtean bere sintomatologia maniakoak okerrera egin du eta, ondorioz, tresna eta baliabide elektriko, elektroniko eta informatikoak erabiltzerakoan arrisku-egoerak sortu ditu. Heziketa-zikloan lau ikasturte egin ditu (oraindik bost modulu ditu gainditzeko). Ebaluazio-saioan, irakasle-taldeak iritzi dio orain dagoen moduan ezin duela ohiko eskoletara joan. Bere egoera psikikoa aldatzen ez bada, ez du titulua lortuko. Osasun mentala okerrera egin ari denez eta narriadura kognitiboa duenez, ikaslea lanbide-heziketako programa berezi batean sartzea komeni da, baina ezin du, DBHko titulua duelako.

TITULAZIOA ETA SUSTAPENA:

Familiarekin eta Ikuskaritza Teknikoarekin harremanetan jarri ondoren, BLHko zentro espezifiko batean sartzea erabaki dute, egoiliar gisa; horretarako, aurrez, DBHko tituluariko uko egingo dio.

Bistan denez, ikasleen diagnostikoen eta aukeratu duten prestakuntza-motaren arabera, kasuak askotarikoak dira. Batzuek, Sergioren moduan (izenak izengoitiak dira), heziketa-zikloko modulu guztiak gainditu eta titulua lortuko dute; bestea batzuek, berriz, Mikelen eta Marcosen moduan, modulu batzuk ez dituzte gaindituko eta, beraz, ez dute titulua lortuko. Horrelakoetan, Hezkuntza Administrazioak eta Enplegu Zerbitzuek erabaki beharko dute zer prestakuntza-proposamen egin edo zer profesionaltasun-ziurtagiri dagokien. Batzuetan, Susanari gertatzen zaion bezala, ikasleek prestakuntza-aldian erabili dituzten baliabide espezifikoak beharko dituzte enpresan ere.

Alde horretatik, komeni da azpimarratzea emaitza akademikoak ez direla beti diagnostikoaren araberakoak. Aitzitik, gure esperientziaren arabera, ikasleek ez dute arrakasta izaten edo porrot egiten beren nahasmenduen arabera soilik: batzuetan nabarmenak ez diren baldintza pertsonal eta testuinguruaren araberakoek ere eragina dute.

LHko ikasketak amaitu ondoren, ziurtagiri akademiko edo laneko ziurtagiri hauek lor daitezke:

Zk.	EGINDAKO IKASKETEN EMAITZA	LORTZEKO BALDINTZAK
1 ^a	Teknikari titulua Goi-mailako teknikari titulua	Ikasleak gaitasun profesionala du ⁽¹⁾ , egin duen zikloko prestakuntza-modulu guztiak eta LP gainditu ditu.
2 ^a	Profesionaltasun-ziurtagiria ⁽³⁾	Lanbide-prestakuntza ⁽⁴⁾ bati dagozkion gaitasun-atalak ⁽²⁾ gainditu ditu. Beste gaitasun-atal edo prestakuntza-modulu batzuk ez ditu gainditu.
3 ^a	Gaitasunen ziurtagiri partziala	Ziurtagiri bati dagozkion moduluen parte bat bakarrik gaindituz gero, ziurtagiri partzial metagarria eska daiteke.
4 ^a	Ikasketak uztea. Ziklora edo programa aldatzea.	Lanbide-moduluak ez ditu legezko epeetan gainditu, ezta egokitzapen-neurriekin ere; edota egiaztatu da curriculumak ez datorrela bat ikaslearen ezaugarriekin.

⁽¹⁾ Lanbide-gaitasuna: Lanbidean ekoizpen- eta enplegu-betekizunen arabera jarduteko behar diren ezaupide eta gaitasunak. Lanbide-jardueretan ezaupide, abilezia eta jarrerak batera gauzatzeko gaitasuna izatea eskatzen du, laneko ingurune eta egoerei erantzuteko.

⁽²⁾ Gaitasun-atala (GA): Aintzatespen eta akreditazio partziala jaso dezakeen lanbide-gaitasunen gutxieneko multzoa da.

⁽³⁾ Profesionaltasun-ziurtagiria: Inor enplegurako garrantzitsua den lan-jardueraren bat gauzatzeko gai dela ziurtatzen duen agiria. Titulu ofizial bat da, lan-arloan lanbide-gaitasunak ziurtatzen dituena, Lanbide Heziketako tituluen hezkuntza-esparruan egiten duten moduan.

⁽⁴⁾ Lanbide-prestakuntza: Enplegurako garrantzitsuak diren lanbide-gaitasunen multzoa; gaitasun horiek modulu bidezko prestakuntzaren edo beste prestakuntza-mota baten bitartez jaso daitezke, baita lan-esperientziaren bidez ere. Lanbide-gaitasunak gaitasun-ataletan multzokatzen dira.

Lanbide-prestakuntzak Lanbide Prestakuntzen Katalogo Nazionalan daude jasota eta Lanbide Heziketako tituluekin eta profesionaltasun-ziurtagiriekin ziurtatzen dira.

Profesionaltasun-ziruitagiriak egiteaz eta erregistratzeaz lan-administrazioak arduratzen dira, urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuan azaldu bezala. Profesionaltasun-ziurtagiri bat eskatzeko hona jo daiteke:

www.navarra.es/NR/rdonlyres/984D1198-9267-4E2A-B00F-558308F90D3F/240626/Solicitud-CertifProfesionalidad.pdf 

Teknikari eta goi-mailako teknikari tituluak titulu akademiko eta profesionalak emateko estatuko oinarriko araudiari jarraikiz erregistratzen eta egiten dira; araudi hori abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretuan dago jasoa.

6.5. LANA BILATZEA. LAGUNTZAK ETA EGOKITZAPENAK

Atal honetan aztertuko dugu, batetik, desgaitasunak dituzten pertsonen lan-egoera zein den; eta bestetik, lanbide-heziketako ikastetxeetan ikasle horiek enplegua errazago lortzeko zer neurri, estrategia eta programa jarri behar dituzten. Lehenik, gai honetan garrantzitsuenak diren estatuko eta nazioarteko araudiak zertan diren azalduko dugu (estatu kideek nahitaez bete behar dute); bigarrenik, Espainian eta Nafarroan kolektiboa zer egoeran dagoen eta enpleguan nola banatzen den emango dugu aditzera, hainbat aldagairen arabera (adina, sexua, hezkuntza-maila, diagnostikoa); eta, hirugarrenik, enplegua lortzea errazten duten neurri, estrategia eta programak jasoko ditugu.

DESGAITASUNARI ETA ENPLEGUARI BURUZKO ARAUDIA

Azken hamarkadetan, nazioarteko erakundeen lege gehienetan, historikoki diskriminatu, baztertu eta jazarri dituztelako premia gehien duten kolektiboak defendatzeko eta babesteko ahalegina egin dute. Kolektibo horietako bat desgaitasunak dituzten pertsonena da. Orain, desgaitasunak dituzten pertsonen berriaz arduratzen diren arau garrantzitsuenetatik hiru jasoko ditugu, zeinak pertsona horiei prestatzea eta enplegu duina lortzea errazteko estrategia eta proposamenak ezartzen dituzten.



Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE)

LANEren 1983ko 159. hitzarmenak berregokitzapen profesionaleko eta enplegu politiken oinarri izan beharko luketen funtsezko printzipio batzuk ezartzen ditu, besteak beste honako hauen ingurukoak: aukera- eta tratu-berdintasuna, neurri positiboak (ez litzateke beste langileak diskriminatzen dituztela iritzi beharko), desgaitasunak dituzten pertsonak lanarekin zerikusia duten programa eta zerbitzu arruntetan integratzea, langile kalifikatuak prestatzea eta enplegatzailen eta langileen erakundeei eta desgaitasunak dituzten pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeei kontsulta egiteko premia.

Hitzarmenarekin batera egindako 168. aholkuak enpleguan aukera-berdintasuna sustatzeko zer neurri hartu beharko liratekeen zehazten du, adibidez: lantokiak zentzuz egokitzea eta zereginak, tresnak, makinak eta lanaren antolamendua egituratzea. Aholkuak, halaber, Hitzarmenean aipaturiko aholku-prozesuak ziurtatzeko zer neurri hartu beharko liratekeen ematen du aditzera.



Nazio Batuen Erakundea (NBE)

“*Desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa*”. 2006ko abenduak 13 (61/106) Ebazpena).

“*Estatu alderdiek aitortzen dute pertsona desgaituek duten eskubidea lan egiteko, gainerakoen baldintza berberetan; horrek berarekin dakar eskubidea, bizimodua ateratzeko aukera izan dadin, askatasunez aukeratu edo onartutako lanaren bidez, pertsona desgaituentzako irekiak, integratzaileak eta eskuragarriak diren lan-merkatu eta -inguruetan*”.

Arau horrek, lanbide-heziketari, lanari eta enpleguari buruzko xedapenen bitartez, lanerako adinean dauden eta desgaitasunak dituzten gizon-emakumeen aukerak lantzea ekarri behar du.

Aginduetako bat da, adibidez, desgaitasunak dituzten pertsonen “ahalik eta mailarik handienean, independentzia, gaitasun fisikoa, mentala, soziala nahiz bokazio-gaitasuna” lor ditzaten neurri eraginkorrak hartzea; horretarako, estatuek “gaikuntza eta birgaikuntzarako zerbitzu eta programa orokorrak antolatu, indartu edo gehituko dituzte, batik bat, osasunaren, enpleguaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen esparruetan” (26.1 artikulua).

Orobat, 24. artikulua dio hezkuntzak garrantzi handia duela, desgaitasuna duten pertsonen “gizarte aske batean eragingarritasunez parte hartzeak aukera” izan dezaten. Alde horretatik, estatuei eskatzen die ziurtatzea, batetik, hezkuntza-sistema maila guztietan inklusiboa izatea; eta bestetik, desgaitasunak dituzten pertsonen goi-mailako hezkuntza, lanbide-heziketa, helduen hezkuntza, eta bizi osorako ikaskuntza eskura izatea, diskriminatu gabe eta besteen aukera berberekin. Horrez gain, desgaitasunak dituzten pertsonentzako zentzuzko egokitzapenak egitea ere eskatzen die.

Desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 27. artikulua pertsona horien lanari eta enpleguari buruzkoa da: “Estatu alderdiek babestu eta sustatuko dute lan egiteko eskubidearen egikaritzea, neurri egokiak hartuz, legeria ematea barne.” Hona hemen estatu kideek nahitaez bete behar dituzten agindu nagusiak:

- a) Desgaitasun-arrazoien ondoriozko **bereizkeria debekatzea**, edozein enplegu-motaren inguruko arazo guztiei dagokienez, horien artean direla hautatze-, kontratazio- eta enplegu-baldintzak, enplegu-jarraitutasuna, lanbide-aurrerakuntza eta lan-baldintza seguru eta onuragarriak.
- b) Pertsona desgaituen **eskubideak babestea**, gainerakoen baldintza berberetan izan ditzaten lan-baldintza bidezko eta mesedegarriak, eta bereziki aukera- eta ordainsari-berdintasuna, balio bera duen lana egiteagatik, lan-baldintza seguruak eta onuragarriak, jazarpenaren aurkako babesa barne, eta jasandako kalteengatiko konponketak.
- c) Ziurtatzea pertsona desgaituek lan- eta sindikatu-eskubideak egikari ahal izatea, gainerakoen **baldintza berberetan**.
- d) Ahalbidetzea pertsona desgaituek **eragingarritasunez eskura izatea orientazio teknikoko eta bokazio-orientazioko programa orokorrak, kolokazio-zerbitzuak eta lanbide-prestakuntza nahiz etengabeko prestakuntza**.
- e) Bultzatzea pertsona desgaituen **enplegu-aukerak eta lanbide-aurrerakuntza** lan-merkatuan, eta pertsona horiei **laguntzea, enplegua bilatzeko, lortzeko edo enpleguari eusteko**, eta berriro lanean hasteko.
- f) **Aukerak sustatzea, enpresei** dagokienez, eta **beregaineko enplegua** sortzeari, kooperatibak eratzeari eta negozio berriei ekiteari dagokienez.
- g) **Pertsona desgaituak sektore publikoan enplegatzea**.
- h) **Sektore pribatuan pertsona desgaituen enplegua** sustatzea, egoki diren politika eta neurrien bidez, bere baitara bil ditzaketanak afirmazio-ekintzako programak, pizgarriak eta bestelako neurriak.
- i) **Lan egiteko lekuan pertsona desgaituentzako zentzuzko egokitzapenak** egiten direla zaintzea.
- j) **Pertsona desgaituek** lan-merkatu irekian **lan-esperientzia har dezatela sustatzea**.
- k) Pertsona desgaituei zuzendutako **programak sustatzea, bokazio- eta lanbide-birgaikuntzarako, enpleguari eusteko eta lanean berriro hasteko**.

Europako Kontseilua

Europako Kontseiluaren Ekintza Plana, 2006-2015 «Desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak eta erabateko gizarte-partaidetza sustatzeko: Europan desgaitasunak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, 2006-2015».

Jarduera-ildoak hauek dira: informazioa eta komunikazioa, hezkuntza, ingurune eraikia, garraioa, errehabilitazioa eta kontzientziaketa. **Enpleguari eta orientabide eta prestakuntza profesionalari buruzko 5. jarduera-ildoak** dio, batetik, desgaitasunak dituzten pertsonen enplegu- eta jarduera-tasak, desgaitasunak ez dituzten pertsonenekin alderatuta, oso txikiak direla; eta bestetik, jarduera-tasa handitzera bideratutako politikak dibertsifikatu egin behar direla (desgaitasunak dituzten pertsonen enplegu batean jarduteko duten gaitasuna kontuan hartuta) eta osoak izan behar dutela, pertsona horiek bizitza aktiboan parte hartzea eragozten duten oztopo guztiak lantzeko.

Bi helburu zehazten ditu:

- 1º. Desgaitasunak dituzten pertsonen enplegua sustatzea lan-merkatuan, diskriminazioaren kontrako neurriak eta ekintza positiboak uztartuz, desgaitasunak dituzten pertsonen aukera-berdintasuna ziurtatze aldera.
- 2º. Diskriminazioari kontra egitea eta desgaitasunak dituzten pertsonen partaidetza sustatzea ebaluazio, orientabide eta prestakuntza profesionaleko arloetan eta enpleguarekin zerikusia duten zerbitzuetan. Hona hemen estatu kideek gai horretan landu beharko lituzketen ekintza espezifikoak:
 - (a) Enplegu-politika orokorretan desgaitasunak dituzten pertsonen enpleguaren inguruko gaiak kontuan hartzea.
 - (b) Desgaitasunak dituzten pertsonen banako ebaluaziorako aukera izan dezaten saiaterak; ebaluazio horren xedeak hauek dira:
 - Lanbide-eskaintzan zer aukera dituen zehaztea.
 - Desgaitasunak baino gaitasunak ebaluatzea eta lanpostuko betekizun espezifikoetara hurbiltzea.
 - Lanbide-prestakuntza beren programaren oinarri izatea.
 - Enplegu egokia aurkitzen edo berriz aurkitzen laguntzea.
 - (c) Desgaitasunak dituzten pertsonen lanbide-prestakuntza eta -orientabideko zerbitzuak eskura izatea, baita ahalik eta kalifikazio handieneko enplegua lortzeko aukera ere, behar izanez gero zentzuzko doitzak eginez.
 - (d) Enpleguko fase guztietan (hautaketa eta kontratazioa barne) eta jarduera profesionalaren bilakaerari buruzko neurrietan diskriminazioaren kontra babestea.
 - (e) Enpresaburuak desgaitasunak dituzten pertsonak kontrata ditzaten animatzea.

Estatuko legeria

Espainiako legeriak hainbat arautan jaso ditu desgaitasunak dituzten pertsonen inguruko estatu-politika, haien oinarritzko eskubideak eta, zehazki, lanerako adinean dauden gainerako biztanleen lehia-baldintza berberekin enplegua lortzeko eskubidea. Gai hori lege hauek lantzen dute, zehazki:

13/1982 Legea, apirilaren 7koa, desgaitasunak dituzten pertsonak gizarteratzeari buruzkoa. Espainian desgaitasunak dituzten pertsonen eta haien senideen arreta eta babesa arautzeko egindako lehen legea da, Konstituzioaren 9, 10, 14 eta 49. artikuluetan oinarritua.

51/2003 Legea, abenduaren 2koa, pertsona ezinduen aukera berdintasuna, bazterketarik eza eta mugierraztasun unibertsala lortzekoa.

27/2007 Legea, urriaren 23koa. Horren bidez Espainiako zeinu-hizkuntzak aintzatetsi ziren eta gorren, entzumen-desgaitasunak dituzten pertsonen eta gor-itsuen ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak arautu ziren. Alde horretatik, gorren, entzumen-desgaitasunak dituzten

pertsonen eta gor-itsuek Espainiako zeinu-hizkuntzak ikasi, ezagutu eta erabiltzeko eta ahozko komunikazioan laguntzeko bitartekoez gozatzeko eskubidea dutela aitortu zuten.

1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.

Hau da LED horren xedea: “Aukera-berdintasunerako eta tratu berdinerako eskubidea bermatzea; desgaitasunen bat duten pertsonen beren eskubideak egiaz eta eraginkortasunez baliatzea, gainerako herritarren baldintza berdinetan, betiere autonomia pertsonala, irisgarritasun unibertsala, enplegurako sarbidea, komunitatean barneratzea eta bizimodu beregaina bermatuz, eta orobat bermatuz ezabatu egiten direla diskriminazio mota guztiak, guztia ere Espainiako Konstituzioaren 9.2, 10., 14. eta 49. artikuluekin, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin eta Espainiak sinatutako tratatu eta akordioekin bat etorritz”.

Zehazki, **Lanbide-jarduerarako laguntzari** buruzko 17. artikulua honako hau dio:

1. Desgaitasunarekiko pertsonen, lan-adinean daudela, eskubidea izango dute bokazio- eta lanbide-errehabilitazio programen, enplegua mantentzeko programen eta lan merkatu itzultzeko programen onuradun izateko.
2. Lanbide-jarduerarako prozesuetan, honako prestazio hauek sartuko dira, besteak beste:
 - a) Gaikuntza- edo errehabilitazio-prozesu mediku-funtzionalak.
 - b) **Lanbide-orientazioa.**
 - c) **Lanbide-prestakuntza, -berregokitze edo -birkualifikazioa.**
3. Lanbide-jarduerarako eta gaikuntza edo errehabilitazio mediku-funtzionalerako laguntza-prozesuetan (14. artikuluan arautzen dira), gaitasunak garatzea ez ezik, laguntzako produktu eta teknologiak eta lan bat gainerakoen baldintza berdinekin gauzatzeko behar diren gailuak ere sartuko dira.
4. **Lanbide-orientazioa dagokien zerbitzuek emango dute**, betiere kontuan hartuz desgaitasunarekiko pertsonak zer beharizan dituen egiaz; beharizan horiek, baina, desgaitasun-maila kalifikatzeko eta aintzat hartzeko talde multiprofesionalen taldeen txostenen arabera zehaztuko dira. Era berean, **aintzat hartuko da zer prestakuntza izan duen, zer prestakuntza hartzekoa den, eta kasuan-kasuko enplegu-aukerak ere bai; halaber, zer motibazio eta gaitasun dituen eta lanbide-aukeren artean zeintzuk hobesten dituen. Bestalde, enplegua bilatzeko, lortzeko, hari eusteko eta galduz gero berreskuratzeko laguntzak ere sartzen dira lanbide-orientazioan.**
5. Lanbide-prestakuntza, -berregokitze edo -birkualifikazioak –aldez aurreko prestakuntza oinarriko orotariko bat ere sar daiteke hor– ekar lezake lan-merkatuan lan-esperientzia hartzea ere; nolana ere, bakoitzaren ibilbidearen eta lehenago hartutako lanbide-orientazioaren arabera eskainiko da, desgaitasunarekiko pertsonak hartutako erabakiaren arabera, eta 15. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz
6. Prestakuntza-jarduerak, hartarakoxe prestakuntza-zentroetan ez ezik, enpresetan ere eskaini ahal izango dira; horretarako, beharrezkoa izango da prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratu bat egitea, zeinaren oinarriko edukia Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 11. artikuluan xedatutakoari egokitu baita (1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 24koa, eta hura garatzeko arauak).
7. Artikulu honetan aipatzen diren lanbide-jarduerarako laguntza-prozesuek osagarri izan ditzakete, hala balegokio, beste neurri osagarri batzuk, onuradunari lagunduko diotenak garapen pertsonalean ahalik eta mailarik handiena iristen eta bizimodu sozialean erabat parte hartzen eta sartzen.

Ikastetxeetarako jarduera-printzipioak, araudi horretatik eratorriak

Araudi horren arabera, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek (ikasleak Lanbide Heziketako ikastetxeetara bidaltzen dituztenek) eta Lanbide Heziketako ikastetxeek (desgaitasunak dituzten ikasleak hartzen dituztenek) oinarritzko lau printzipio hauek hartu beharko lituzkete kontuan beren jardunean:

LEHENA. Aukera-berdintasuna: Pertsona guztiek eskubide berberak dituzte ikasketa eta prestakuntza-programetan sartzeko eta enplegu duina bilatzeko, izateko eta mantentzeko.

BIGARRENA. Diskriminaziorik eza: Desgaitasunak dituzten pertsonak ezin dira diskriminatu lanbide-prestakuntza, -hautaketa eta -orientabideko prozesuetan, eta ahalik eta kualifikazio handiena lortu ahal izateko behar adina doitze eta egokitzapen egingo zaizkie.

HIRUGARRENA. Ikasketa- eta lan-orientabide- eta informazioa: Ikasketa- eta lan-orientabideaz arduratzen diren sail eta profesionalak berariaz arduratu behar dute desgaitasunak dituzten pertsonen haien egoera eta aukeren arabera prestakuntza-programa egokienak aukera ditzaten behar duten informazioa emateaz.

LAUGARRENA. Curriculum-egokitzapenak eta laguntza espezifikoak: Ikastetxeek behar adina egokitzapen egin eta baliabide tekniko eta materialak jarri behar dituzte, ikasle horiei curriculumean sartzen eta ahalik eta kualifikaziorik handiena lortzen laguntzeko.

BOSGARRENA. Espainian **nahitaezkoa** da nazioarteko araudia lantzea eta martxan jartzea, erakunde horietako estatu kide delako, eta Nafarroan ere bai, autonomia-erki-degoen esku utzitako erantzukizunak direla eta.

ENPLEGUA ETA DESGAITASUNA ESPAINIAN. DATU GARRANTZITSUAK

Gizartearen eta giza zientzien esparruetan egokiak eta eraginkorrak izan diren aldatzeko eta hobetzeko esku-hartze eta proposamen guztien oinarria hasierako egoeraren eta xede-biztanleen kondizio, ezaugarri eta premien ebaluazio egokia izan da. Ikuspegi horrekin, hurrengo ataletan desgaitasuna duten pertsonen eta pertsona horiek Espainian eta Nafarroan lan-merkatuan sartzeko dituzten aukerei buruzko datu garrantzitsuenak bildu eta aztertuko ditugu. Analisi horretatik ateratako datuekin, orientabideko gure esku-hartzea hobeto jarriko dugu dagokion testuinguruan, eta argiago zehaztuko dugu zer elementu eta egoerek merezi duten ahalegin eta erabakitasun gehien.

Desgaitasunak dituzten pertsonen banaketa Espainian

3. TAULA. DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK ESPAINIAN. ALDAGAIEN ARABERAKO BANAKETA (2015).

ODISMET. ONCE FUNDAZIOA. DESGAITASUNAREN ETA LAN-MERKATUAREN ESPAINIAKO BEHATOKIA.

Estatuko 16 eta 64 urte arteko biztanleak		30,174,500	
Desgaitasunak dituzten 16 eta 64 urte arteko biztanleak		30,174,500	
Desgaitasunak dituzten pertsonen portzentajea biztanleria osoan		5.90%	
Sexua	Desgaitasunak dituzten gizonak	1,023,800	57.70%
	Desgaitasunak dituzten emakumeak	751,000	42.30%
Adina	16-24 urte	84,500	4.80%
	25-44 urte	455,900	25.70%
	45-64 urte	1,234,400	69.60%
Desgaitasun-mota	Zentzumekoa	173,100	9.80%
	Psikikoa	278,900	15.70%
	Adimenekoa	180,200	10.20%
	Fisikoa eta beste batzuk	1,142,600	64.40%
Diagnostiko-esparru nagusia	Hezur- eta artikulazio-sistema	335,200	18.90%
	Sistema neuromuskularra	157,100	8.90%
	Adimena	180,200	10.20%
	Nahasmendu psikikoa	278,900	15.70%
	Ikusmen-sistema	90,800	5.10%
	Entzumen-sistema	82,300	4.60%
	Sistema kardiobaskularra, immunologikoa eta arnasketakoa	108,100	6.10%
	Digestio-sistema eta sistema metabolikoa eta endokrinoa	55,900	3.10%
	Beste batzuk	100,900	5.70%
	Ez da ageri	385,400	21.70%

Desgaitasun-maila	% 33-44	583,100	32.90%
	% 45-64	252,100	14.20%
	% 65-74	369,200	20.80%
	% 75 eta gehiago	184,900	10.40%
	Ez da ageri	385,400	21.70%

2015ean, biztanleen % 5,9k zuen desgaitasunen bat. Desgaitasunak dituzten gizonen portzentajea emakumeena baino % 15 handiagoa da.

Erroldatutako gehienak (ia % 70) 44 urtetik gorakoak ziren. Hori urteen joana dela eta gertatzen da: adinduek gazteek baino desgaitasun gehiago dituzte ustekabeko arrazoiengatik (ezbehar fisiko eta baskularrak, dementziak...).

Desgaitasun gehienak “Fisikoak eta beste batzuk” dira: % 65 inguru. Multzo horretan mugigarritasunarekin eta oinarritzko funtzio fisikoekin zerikusia duten era guztietako desgaitasunak sartzen dira (kardiobaskularrak, digestiokoak, arnasketakoak, endokrinoak...).

Alde horretatik, % 27,8k mugitzeko desgaitasunak ditu, % 15,7k desgaitasun psikikoak, % 10,2k adimen-desgaitasunak eta % 9,7 zentzumenekoak.

Desgaitasun-mailari dagokionez, gehienek % 33 eta % 44 arteko desgaitasun-ziurtagiria dute.

Desgaitasunak dituzten eta ez dituzten pertsonen enplegu-tasa Espainian:

4. TAULA. ESPAINIAKO ENPLEGU- ETA LANGABEZIA-TASAK.
DESGAITASUNAK DITUZTEN ETA EZ DITUZTEN BIZTANLEAK (2015).
ODISMET. ONCE FUNDAZIOA. DESGAITASUNAREN ETA LAN-MERKATUAREN ESPAINIAKO BEHATOKIA.

Estatuko 16 eta 64 urte arteko biztanleak	30,174,500
Desgaitasunak dituzten 16 eta 64 urte arteko biztanleak estatuan	1,774,800
Desgaitasunak dituzten pertsona landunak estatuan	414,800
Desgaitasunak dituzten pertsonen enplegu-tasa	23.40%
Desgaitasunak dituzten pertsonen langabezia-tasa	31.00%
Desgaitasunik ez duten pertsonen enplegu-tasa	60.90%
Desgaitasunik ez duten pertsonen langabezia-tasa	21.90%

Datu horiek agerian uzten dute 2015ean, estatuan, desgaitasunak zituzten pertsonen enplegu-tasa desgaitasunik ez zuen pertsonena baino portzentajezko 37,5 puntu txikiagoa zela.

Halaber, desgaitasunen bat zuten pertsonen langabezia-portzentajea desgaitasunik ez zutenena baino 9,1 puntu handiagoa zen. Desgaitasunak dituzten pertsonen langabezia-tasa arrazoi hauengatik izan ohi da handiagoa:

- Prestakuntza- eta gaitasun-maila txikiak dituzte.
- Kalifikaziorik gabeko lanen eskariak behera egin du.
- Enpresa handien eta zerbitzu publikoen lan-indarra gutxitu egin da.
- Ezbeharren eta aseguruaren kostuekin kezkatuta daude.
- Desgaitasuna duen pertsona gisa erregistratzeko errezeloa dute.
- Ez dute lan-aukerei buruzko informaziorik.
- Enplegu-emaileek ez dakite pertsona horiek zer premia eta gaitasun dituzten.

- Prestazioen “tranpa”; gizarte-prestazioak galtzeko beldurra.
- Laguntza tekniko edota pertsonal desagokiak dituzte.

Desgaitasunak dituzten pertsona landunak estatuan

Bosgarren taulan estatuko datuk sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera bildu ditugu.

5. TAULA. DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONA LANDUNAK, ALDAGAIEN ARABERA. ESPAINIA (2015).
ITURRIA: ODISMET. ONCE FUNDAZIOA. DESGAITASUNAREN ETA LAN-MERKATUAREN ESPAINIAKO BEHATOKIA.

SEXUA	PERTSONA-KOP.	LANDUNEN %
Gizonak	1,023,800	23.80%
Emakumeak	751,000	22.80%
GUZTIRA	1,774,800	
ADIN-TARTEA	PERTSONA-KOP.	LANDUNEN %
16-24 urte	84,500	9.20%
25-44 urte	455,900	31.80%
45-64 urte	1,234,400	21.20%
GUZTIRA	1,774,800	
IKASKETA-MAILA	PERTSONA-KOP.	LANDUNEN %
Ikasketarik gabeak	102,400	3.30%
Lehen Hezkuntza	424,800	11.80%
Bigarren Hezkuntza	980,000	25.00%
Goi-mailako ikasketak	267,600	43.60%
GUZTIRA	1,774,800	

2015ean, **desgaitasunen bat zuten 1.774.800 pertsona zeuden lanerako adinean** (16-64 urte), hau da, lanerako adinean zeuden biztanleen % 5,9. Biztanle-multzo horretan gizon gehiago daude eta, adinari dagokionez, 45 eta 64 urte artekoek dute pisu gehien. Halaber, desgaitasunik gabeko biztanle aktiboekin alderatuta, goi-mailako ikasketadun pertsona gutxiago daude.

Estatuan, desgaitasunak dituzten pertsona landunen % 68,6k Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua du, gutxienez. Horri dagokionez, azpimarratu beharra daukagu desgaitasunak dituzten pertsonen % 6 bakarrik joaten dela unibertsitatara; datu hori txarra da eta bi biztanle-multzo horien lan-egoeran alde handiak sor ditzake.

Izan ere, zenbat eta prestakuntza-maila handiagoa izan, orduan eta aukera gehiago dago enplegua lortzeko; desgaitasunak dituzten pertsonen dagokienez, lan-merkatuan goi-mailako titulazioak dituztenen portzentajea handiagoa da.

Desgaitasunak dituzten pertsonen kontratazioa Espainian

Estatuan, 2015ean, 243.067 lan-kontratu egin zituzten desgaitasunak dituzten pertsonekin. Hona hemen pertsona horien banaketa, hainbat aldagairen arabera:

6. TAULA. ESPAINIAN 2015EAN DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEI EGINDAKO LAN-KONTRATUAK. ITURRIA: ODISMET. ONCE FUNDAZIOA. DESGAITASUNAREN ETA LAN-MERKATUAREN ESPAINIAKO BEHATOKIA.

ESTATUAN DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEKIN EGINDAKO KONTRATU-KOPURUA	
Gizonak	148,174
Emakumeak	94,893
GUZTIRA	243,067
ESTATUAN DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEKIN EGINDAKO KONTRATU-KOPURUA	
Desgaitasun fisikoa	115,980
Adimen-desgaitasuna	79,655
Desgaitasun psikikoa	23,488
Ikusteko desgaitasuna	22,764
Entzuteko desgaitasuna	1,180
GUZTIRA	243,067

Hona hemen 2015eko kontratazio-datuen inguruko ondorio nabarmenenak:

Emakume baino gizon gehiago kontratatu zituzten: portzentajezko 20 puntu gehiago, hain zuzen ere. Desgaitasun-motari dagokionez, kontratu gehienak, zehazki % 47,7, desgaitasun fisikoren bat dutenenak dira, eta gero adimen-desgaitasunak dituztenenak, % 32,7, hain zuzen ere.

Prestakuntza-mailak, berriz ere, eragina du. Izan ere, kontratatutakoen % 47k goi-mailako ikasketak ditu. Dena den, haien atzetik “DBH, titulaziorik gabe” multzokoak datoz (% 37,54); hori, kalifikazio txikiko enplegu asko sortu delako.

Espainiako merkatuaren joerekin bat, desgaitasunak dituzten pertsona gehienak zerbitzu-sektorean daude kontratatuta.

Kontratu-motari begiratuz gero, ezegonkortasuna nabaria da. Desgaitasunak dituzten pertsonen egindako kontratuen % 34,15 “ekoizpen-gorabeherengatik kontratu ebentualak” dira, eta % 33,19 “obra edo zerbitzuko kontratuak”.

2015ean, desgaitasunak zituzten pertsona landunen % 88,6 besteren kontura aritu zen (portzentaje hori desgaitasunik ez duten pertsonena baino 5,7 puntu handiagoa da), eta horietatik % 77k kontratu mugagabea zuen (portzentaje hori desgaitasunik ez duten pertsonena baino portzentajezko 2 puntu inguru handiagoa da.) Azkenik, desgaitasunak zituzten pertsona landunen % 83,4 lanaldi osoan aritu zen, desgaitasunik ez duten langileak baino pixka bat gutxiago.

ENPLEGUA ETA DESGAITASUNA NAFARROAN

Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak lan-munduan errazago sartze aldera ikasketa- eta lan-orientabideko zerbitzuek har ditzaketen neurriak zehaztu aurretik, Nafarroan kolektibo horren lan-egoera zein den aztertu eta testuinguruan jarriko dugu.

Desgaitasunak dituzten pertsonak Nafarroan. Ikasketa-maila. Enplegu- eta langabezia-tasak

7. TAULA. DESGAITASUNARI ETA ENPLEGUARI BURUZKO NAFARROAKO DATUAK (2015).

ITURRIA: ODISMET. ONCE FUNDAZIOA. DESGAITASUNAREN ETA LAN-MERKATUAREN ESPAINIAKO BEHATOKIA.

Desgaitasunak dituzten pertsonak Nafarroan (2015)	20,400
NAFARROAN DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK, IKASKETA-MAILAREN ARABERA	
Lehen Hezkuntza edo txikiagoa	22.60%
Bigarren Hezkuntzako 1. etapa	38.30%
Bigarren Hezkuntzako 2. etapa	18.20%
Goi-mailako ikasketak	20.90%
Enplegu-tasa.Desgaitasunak dituzten pertsonak. Nafarroa	25.70%
Langabezia-tasa.Desgaitasunak dituzten pertsonak. Nafarroa	22.00%

Nafarroan desgaitasunak dituen pertsona-kopuru osoan (2015ean 20.400) ezintasunen bat dela eta pentsioren bat duten Gizarte Segurantzako pentsiodunak sartzen dira.

Desgaitasunak dituzten pertsonen Nafarroako enplegu-tasa, 2015ean, estatuko batezbestekoa baino portzentajezko 2,3 puntu handiagoa da. Aldiz, Nafarroan desgaitasunak dituzten pertsonen langabezia-tasa estatukoa baino askoz txikiagoa (portzentajezko 9 puntu) eta biztanleria orokorraren oso antzekoa da.

Nafarroan desgaitasunak dituzten pertsonen prestakuntza-maila, orokorrean, estatuko biztanleena baino handiagoa da; goi-mailako titulazioak dituztenen portzentajea, adibidez, oso nabarmena da, estatukoa baino portzentajezko ia 7 puntu handiagoa baita.

Desgaitasunak dituzten pertsonen kontratazioa eta enplegu-eskaria Nafarroan

Pertsona landunak 16 urtetik gorako besteren edo norberaren konturako langileak dira. Okupazioak lan-araudia medio araututako lan-kontratu baten bitartez formalizatzen dira, eta enpresak eta langileak lan-kontratu hori bete behar dute irauten duen bitartean.

Informazio hori zortzigarren taulan bildu dugu, desgaitasunak dituzten pertsonak kategoriatan banatuta.

8. TAULA. NAFARROAN DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEN KONTRATUAK, ALDAGAIEN ARABERA. ITURRIA: ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOEN INFORMAZIO-SISTEMA. 2015. URTEA.

KONTRATAZIOAK ADINAREN ARABERA	
25 urtetik beherakoak	184
25 eta 45 urte artekoak	1,641
45 urtetik gorakoak	1,184
KONTRATAZIOAK SEXUAREN ARABERA	
Gizonak	1,758
Emakumeak	1,251
KONTRATAZIOAK IKASKETA-MAILAREN ARABERA	
Ikasketarik gabe/ziurtagiririk gabe	27
Lehen ikasketak	84
DBH titulaziorik gabe	624
DBH titulazioarekin	1,012
Batxilergoa	187
Erdi-mailako lanbide-heziketa	446
Goi-mailako lanbide-heziketa	368
Unibertsitateko lehen zikloa	114
Unibertsitateko bigarren zikloa	70
Unibertsitatea GMEE (Bologna)	31
Beste titulazio batzuk	46
KONTRATAZIOAK DESGAITASUN-MOTAREN ARABERA	
Aitortu gabea	1,281
Fisikoa	1,061
Psikikoa	418
Zentzumenekoa	238
Hizkuntzakoa	11
KONTRATAZIOAK KONTRATAZIO-SEKTORE EKONOMIKOEN ARABERA	
Nekazaritza eta abeltzaintza	41
Industria	595
Eraikuntza	44
Zerbitzuak	2,329
KONTRATUAK GUZTIRA	
	3,009

Nafarroako 2015eko kontratu-kopurua (3009) kontatu zirenean zeuden kontratuena da, eta kontratu horietako asko aurreko urteetan egin ziren.

Datu horiek aztertuz gero, honako hau azpimarra dezakegu:

- Emakume baino gizon gehiago daude.
- Kontratutako pertsona askok erdi-mailako titulazioak dituzte (DBH, titulazioarekin zein gabe, eta LHko erdi-mailako ikasketak); dena den, goi-mailako tituludunak ere (LH eta unibertsitatea) ez dira gutxi.
- Kontratutako pertsona gehienek desgaitasun fisikoak dituzte (eta aitortu gabeak).
- Desgaitasuna duten pertsona gehienek zerbitzu-sektorean lan egiten dute.

Horrez gain, kontuan hartu beharreko beste datu garrantzitsu bat ere badago: Nafarroan desgaitasunak dituzten gero eta pertsona gehiago kontratatzen dira, hurrengo taulan ikusten den moduan.

9. TAULA. NAFARROAKO URTEKO KONTRATAZIOAK

ITURRIA: ESTATUKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA.

URTEA	KONTRATATUTAKO PERTSONA-KOPURUA
2012	510
2013	707
2014	848
2015	929
2016	1,026
2017	1066

Desgaitasunari eta enpleguari buruzko datuetatik ateratako ondorioak

1. Gaur egun edonork ditu zailtasunak lan-merkatuan bere prestakuntzaren arabera lanpostu bat lortzeko eta lanpostu horri eusteko. Desgaitasunak dituzten pertsonen ordea, zailtasun gehiago dituzte. Izan ere, haien enplegu-tasa desgaitasunik ez duten biztanleena baino askoz txikiagoa da (Nafarroako langabezia-tasari dagokionez, portzentajeak estatuko biztanleriarenaren oso antzekoak dira).
2. Desgaitasunak dituzten emakumeen egoera okerragoa da: estatuan, haien enplegu-tasa desgaitasunak dituzten gizonena baino portzentajezko 20 puntu txikiagoa da, eta Nafarroan 16,8 puntu txikiagoa.
3. Desgaitasuna duten pertsonen prestakuntza-maila erabakigarria da enplegua lortzeko eta mantentzeko orduan: zenbat eta prestakuntza handiagoa, kontratatzeko orduan eta aukera gehiago. Desgaitasuna duten pertsonentzat, langabeziari eta laneko diskriminazioari aurre egiteko aukerarik onena erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetan eta unibertsitatean sartzea da.
4. Kontratazioari dagokionez, garrantzitsuena zerbitzu-sektorea da: estatuan kontratuen % 80 sektore horretakoa da, eta Nafarroan % 77 baino gehiago. Prestakuntza-prozesuetan eta enpresetan esku hartu beharko da, sentsibilizatzeko eta lan-ingurune berrietako ateak irekitzeko: industria, teknologia, nekazaritza, eraikuntza...
5. Aurreko urteetako datuekin alderatuta, desgaitasuna duten pertsonen inklusioa hobetu egin da lan-merkatuan, baina, egia esan, oraindik asko dago egiteko. Bide horretan hartu beharreko neurrietako bat enpresa- eta hezkuntza-sare osoa eta, orokorrean, gizartea etengabe sentsibilizatzea izango da. Bide horretan aurre egiten jarraitu beharra dago.

Ikastetxeetarako jarduera-printzipioak, datu horietatik eratorriak

LEHENA. Departamentuak koordinatzea. Ikastetxeek eta enplegu-zentroek ahal bezainbeste ahalegindu behar dute desgaitasunak dituzten pertsonen lan-merkatuan sartzen laguntzeko jarduerak koordinatzeko. Hezkuntza eta Enplegu Departamentuak koordinatzeko sistemak antolatzeak lehentasun berezia du, desgaitasunak dituzten pertsonen lanbide-prestakuntza egiaztatzeke profesionaltasun-ziurtagirien eta, titulu osoak lortu ezin dituztenetan, gaitasunen ziurtagiri partzialen bitartez.

BIGARRENA. Aukerak parekatzea. Berez aukera-berdintasunik ez dagoenez eta datuek adierazten dutenez desgaitasunak dituzten pertsonen enplegu duina lortzeko, mantentzeko eta gora egiteko zailtasunak dituztela, ikastetxeek eta enplegu-zentroek behar adina jarduera antolatu eta gauzatu behar dituzte desparekotasun hori orekatzeko, bereziki desgaitasunak dituzten emakumeena, gaur egungo egoerari aurre egiteko diskriminazio positiboko neurriak beharko baitituzte.

HIRUGARRENA. Lanbide-karrera. Desgaitasunak dituzten pertsonen, goi-mailako ikasketak eginez gero, beren prestakuntza-mailarekin zerikusia duten lanpostuak lortzeko aukera gehiago dituzte. Lanbide Heziketako ikastetxeen helburuetako bat ikasle horiek ikasketetan gora egin dezaten lortzea izan behar du, prestakuntza- eta lanbide-maila handienetara hel daitezen.

LAUGARRENA. Nahitaezko lanak. Desgaitasunak dituzten pertsonentzako arretari dagokionez, ikastetxeetan aurreko ataletan aipaturiko prozesu eta programa batzuetan ahalegin berezia egitea komeni da:

- Informazio-eta aholkularitza-prozesuak, aukera akademiko egokiena aurkitzen laguntzeko.
- Ikastetxe hartzaileetako harrera- eta inklusio-prozesuak.
- Ikasleek curriculumeko eskakizunen inguruan benetan zer hezkuntza-premia dituzten zehaztea.
- Programazio akademikoa eta sartzeko egokitzapenak.
- Ordezko metodologia eta ebaluazio egokienak.
- Desgaitasunak dituzten pertsonen premia eta eskariak kontuan hartzen dituzten etengabeko prestakuntza-programak diseinatzea.

ENPLEGURAKO NEURRI ETA BALIABIDEAK

Desgaitasunak dituzten langileentzako enplegu-politiken funtsezko helburuetako bat lan-sistema arruntan sartzea da, eta, hori posible ez bada, ekoizpen-sisteman lan babestuaren formularen bitartez sartzea.

Helburu hori lortzeko, araudiak desgaitasunak dituzten langileen enplegua sustatzen duten hainbat neurri jasotzen ditu, adibidez: lan-bitartekaritzako sistema bat ezartzea, lagundutako enplegua, lan-guneak eta enplegu-politika aktiboetan jarduera positiboko neurriak arautzea (lanpostuak gordetzea, kontratatzeke diru-laguntzak ematea, Gizarte Segurantzako kuotetan hobariak eskaintzea, zerga-arintzeak eta abar). Orain horietako batzuk luzeago azalduko ditugu.

Enplegua lortzeko orientatzeko gidak

Erakundeek enplegua modua aktiboan bilatzeko gida ugari egin dituzte eta, hobeto esku hartzeko, horietara jo dezakegu. Gida gehienetan prozesua faseka antolatzen dute: hasieran eskatzailearen prestakuntza- edo lanbide-ibilbidea ezartzen da; gero, lan-ingurunea eta eskaintzak aztertzen dira; eta azkenik, enplegua bilatzeko plan bat zehazten da.

Gida oso eta erabiliena Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak TodoFP.es web-orrialdean eskaintzen duena da:

<http://www.todofp.es/orientacion-profesional.html> 

Gida horren bitartez, nork bere burua ezagutzeko galdeketa eta jarduerak egiteaz gain, enplegua bilatzeko abilezia espezifikoa landu ditzakegu eta prestakuntza-eskaintzari eta lan-merkatuari buruzko informazio garrantzitsua eskura dezakegu.

Bere aldetik, Donapea IIPko Lanerako Prestakuntza eta Orientabide Sailak enplegu-gida zoragarri bat egin du, zeina gure inguruneke lanerako prozedura, estrategia eta orientabide-baliabideak ezagutzeko erabil dezakegun; hona hemen esteka:

http://cipdonapea.educacion.navarra.es/donapea_web/images/pdf/GUIA%20DE%20EMPLEO_2016.pdf 

Enplegu-zerbitzuak

Enplegu-zerbitzuek lanbide-orientabide eta -prestakuntzarekin eta enpleguarekin zerikusia duten beste gai batzuei buruzko informazioa eskaintzen dute, hala desgaitasunak dituzten pertsonentzako nola ez dituztenentzako.

Ibilbide profesionalak egiten laguntzen dute. Ibilbide horietan hainbat mailatan esku hartzeko neurriak ezartzen dituzte, eta horiei esker jende askok aurkitu ohi du enplegua.

Prestatzeko eta enplegua lortzeko aukerei buruzko informazioa eta enplegua bilatzeko prestakuntza eskaintzen dituzte, besteak beste; eta prestakuntza horietan sartzen dira, adibidez, enplegu-eskariak eta curriculuma prestatzea, elkarriketarako teknikak ikastea, nork bere burua aurkezteko abilezia lantzea, eta enplegua bilatzea eta lortzea.

Lanbide batzuetan desgaitasunak dituzten pertsonentzako zer enplegu-portzentaje gordetzen duten ere ematen dute jakitera.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Lanbideen Behatokia baliabide egokia da lanbide bakoitzaren lan-merkatua gaur egun nola dagoen jakiteko. Hauek dira erakunde horren zereginak:

- Pertsonen eta enpresen premiak ardaztat dituzten enplegu-politikako proposamenak egitea eta sustatzea (banako ibilbide pertsonalizatu bidezko lanbide-orientazioa, enplegurako prestakuntza, enplegua sustatzeko programak eta abar).
- Langabezia-prestazioak kudeatzea eta kontrolatzea, langabeen babeserako eskubidea betetzeko.
- Lan-merkatuaren egoerari eta egoera hori hobetzeko neurriei buruzko ikerketa, azterlan eta analisiak egitea estatuan.

Hau da baliabide horren esteka:

www.sepe.es/contenidos/que_es_el_sepe/observatorio/observatorio.html 

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan (NEZ) desgaitasunak dituzten pertsonen informazioa eta aholkularitza jasotzeko zer enplegu-bulegotara jo dezaketen aurki dezakegu:

www.pamplona.es/verPagina.asp?idPag=155922EN 

NEZek foru-komunitateko lan-eskaintza publiko eta pribatuei buruzko informazioa ematen die herritarrei, baita aldi baterako laneko enpresa, enplegu-agentzia eta langileak hautatzeko enpresetako eskaintzei buruzkoa ere:

www.navarra.es/home_es/Temas/Empleo+y+Economia/Empleo/Empleo/Ofertas+de+empleo/ 

Estatuan, enplegua bilatzeko erreferentzia Enplegu Sistema Nazionalaren Ataria da. Han, autonomia-erkidego guztietako lanpostu-eskaintzetarako estekak aurkituko ditugu:

[www.sistemanacionalempleo.es/inicio/sne/OfertaDifusionWEB/
busquedaOfertas.do?modo=inicio](http://www.sistemanacionalempleo.es/inicio/sne/OfertaDifusionWEB/busquedaOfertas.do?modo=inicio) 

Unibertsitateek lan-orientabideko zerbitzua izan ohi dute, ikasleei lan-merkatuan sartzea errazteko; zerbitzu horretan enplegua errazago lortzeko tresna eta baliabideak eta gaitasunak lantzeko aholkularitza eskaintzen dituzte. NUPek, zehazki, Universidad-Sociedad fundazioaren eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren arteko elkarlanaren bitartez, aholkularitza pertsonalizatu eta jarraitua eskaintzen die enplegua bilatzen ari direnei eta lanean gora egin nahi dutenei. Banako tutoretzak antolatzen ditu, baliabide eta gaitasun pertsonal eta profesionalak lantzen laguntzeko, gero aukerak errazago atzeman eta hautatzeko, ekintzak antolatzeko erabakiak hartzeko eta emaitzak ebaluatzeko. Hemen aurkituko duzu informazio gehiago:

www.unavarra.es/fundacionuniversidadsociedad/empleo-y-practicas/orientacion 

Nazioartean EURES sarea dugu (lan-mugikortasunaren Europako ataria). Sare horren helburua da langileei, enpresei eta Europako Ekonomia Erkidegoko herrialde guztien arteko pertsonen zirkulazio askeaz aprobetxatu nahi duten herritarrei informazio, aholkularitza eta kontratazioko zerbitzuak eskaintzea. Desgaitasunak dituzten pertsonen sare hori normalean ez dute erabiltzen; nazioarteko mugigarritasunaz denek kondizio beretan gozatzeko formulak aurkitu beharko genituzke.

<https://ec.europa.eu/eures/public/es/homepage> 

Lanbide Heziketako ikastegi bateratuetako Kanpo Jardueren Sailek lan-poltsak izan ohi dituzte, lan bila dabilzan ikasleak eta lan-eskaintzak egin dituzten enpresekin harremanetan jartzeko. Donapea IIPk, adibidez, web-orrialde hau du:

http://cipdonapea.educacion.navarra.es/donapea_web/index.php/servicios/bolsa 

Eta Virgen del Camino IIPk beste hau:

<http://cipvirgendelcamino.educacion.navarra.es/web/empresas/e-bolsa-empleo/> 

Horrez gain, desgaitasunak dituzten 30 urtetik beherako pertsonentzat oso interesgarria izan daiteke Gazteentzako Berme Planetara jotzea. Gazte Bermea ekimen europar bat da, gazte lan-merkatuan sartzen laguntzea helburu duena. Espainian Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak 2013ko otsailean onarturiko Gazte Ekintzailetzako estrategiaren barruan dago. Gazte Bermeari buruzko gomendioak dio gazteek, ikasketak amaitu edo lanik gabe geratu ondoren, lan-, hezkuntza- edo prestakuntza-eskaintza bat jaso ahal izan behar dutela. Esteka honetan dago programa horiei buruzko informazio guztia eta izena emateko prozedura:

www.empleo.gob.es/es/garantiajuvenil/queesGJ.html 

Desgaitasunen bat duen inork **lan ordaindua** izatea ziurtatzeko **eta egokitzapen pertsonal eta sozialak egiteko zerbitzuak** jasotzeko ekoizpen-sistema babestuetan sartu behar badu, Nafarroan zer **enplegu-zentro berezi (EZE)** dauden jakitera ematea komeni da. EZEek aukera horiek ematen dizkiete desgaitasunak dituzten pertsonen eta, gainera, lan-erregimen arruntean sartzeko bitartekoak dira. Bitarteko horiek hobeto ezagutzeko, web-orrialde hau kontsulta dezakegu:

<https://inaem.aragon.es/centros-especiales-de-empleo>

Nafarroako enplegu-zentro berezien zerrenda hemen dago:

www.navarra.es/NR/rdonlyres/E9EF4150-CE5B-4430-9FBF-0DFA52091DA5/232550/Centros-EspecialesEmpleo.pdf

Baztertzeko arriskuan dauden eta lan-merkatuan sartzeko arazo handiak dituzten pertsonentzako beste baliabide batzuk gizarteratzeko eta lanean txertatzeko zentroak (GLZ) dira. Esteka honetan aurkituko ditugu Nafarroan daudenak:

www.centrosdeinsercion.org/centrosdeinsercion/Centros_de_Insercion_Navarra.html

Enplegurako prestakuntza

Desgaitasunak dituzten pertsonen lan egiteko eskubidea dute, baina ezinbestekoa da eskubide horiek erabil ditzaten baliabideak ematea. Lanbide Heziketako politiketan kalteberenei eman behar zaie lehentasuna, bereziki langabezia-indizeak handiak direnean, lan-merkatuan diskrimina ez ditzaten. Ikasleek, egin dituzten Lanbide Heziketa arautuko ikasketez gain, sindikatuek eta bestelako erakundeek maiz antolatzen dituzten prestakuntza-ikastaro arautu gabeak egin ditzakete; izan ere, askotariko lanbide eta mailatako ikastaroak antolatzen dituzte.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren langabe eta langileentzako prestakuntza-proposamenei buruzko informazioa web-orrialde honetan aurki dezakegu:

www.formaccion.info/

Laguntza ekonomikoak

- Diru-laguntzak eta hobariak: desgaitasunak dituzten pertsonak kontratatzen dituzten enpresa pribatu eta erakunde publikoek diru-laguntzak edota hobariak jaso ohi dituzte.
- Gizarte Segurantzako kotizazioen murrizketak: laneko araudian jasotakoaren arabera, desgaitasunak dituzten langileak edukiz gero Gizarte Segurantzako kotizazioak murriztu daitezke. Kontratugileei abantaila ekonomiko horien berri emanez gero, desgaitasunak dituzten pertsonen kontratatzeak aukera gehiago izan ditzakete.

Kuota-sistemak

- Ikastetxeetan desgaitasunak dituzten pertsonentzako plaza-portzentaje bat gordetzea maila bakoitzean.
- Enpresa publiko eta pribatuetan desgaitasunak dituzten pertsonentzako lanpostu-portzentaje bat gordetzea. Legeiaren arabera, 50 langiletik gorako enpresek (publikoek eta pribatuek) lanpostuen % 2 desgaitasunak dituzten pertsonentzako gorde behar dituzte.

Laguntza teknikoa eta giza laguntza

Desgaitasunak dituzten ikasleek lanbide-ziurtagiria lortzeko baliabide bereziak (IKTak, taula digitalak, FM, braillea...) behar izan badituzte, litekeena da lanpostuan ere baliabide horiek behar izatea. Horrelakoetan, enpresak prestakuntza jaso beharko du zer baliabide tekniko erabili behar dituen jakiteko eta harremanak eta ekoizpena errazten dituzten estrategia eta teknikak ezagutzeko.

Batzuetan, desgaitasunak dituzten langileek tutore eta gidariak beharko dituzte, haien laguntzaile pertsonal izan daitezten. Baliabide horiek behar bestean izango dituzte eskura, hau da, dagozkien lan profesionalak beren kasa egiteko adina gaitasun profesional dituzten arte.

Lan-ingurune inklusibo eta eraginkor bat sortzeko eta mantentzeko, oso garrantzitsua izan daiteke maila guztietako langile, ikuskatzaile eta zuzendariak desgaitasunari buruzko gaietan kontzientziaztea. Enpresek jardunbide profesional inklusiboak atzemateko eta sustatzeko neurriak hartu beharko lituzkete.

Gida, lanbide-heziketako eta bigarren hezkuntzako

ikastetxeetan

hezkuntza-laguntzako premia
bereziak (hlpb) dituzten
pertsonei lan- eta akademia-
orientabidea emateko

BIGARREN ZATIA

1.

GIDA, BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIA BEREZIAK (HLPB) DITUZTEN PERTSONEI LAN- ETA AKADEMIA-ORIENTABIDEA EMATEKO

Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleentzako orientabidea

Ikasleek Lanbide Heziketako ikasketak egiteko erabakia hartzeari dagokionez, hiru une erabakigarri daude: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila, Batxilergoko 2. maila eta erdi-mailako heziketa-zikloak. DBH amaitzen duten ikasleek hiru aukera dituzte: Batxilergoan ikasten jarraitzea, Lanbide Heziketako erdi-mailako ikasketak egitea edo lan-merkatuan sartzea. Eta Batxilergoan amaitzen duten ikasleek beste hiru: lanean hastea, unibertsitate-ikasketei ekitea edo Lanbide Heziketako goi-mailako ikasketak egitea. Teknikari-titulua lortzen dutenek lan-merkatuan sartzeko edo Lanbide Heziketako goi-mailako ikasketak egiteko aukera dute. Une horietan premiazkoa eta egokia da akademia- eta lan-orientabidea jasotzea. Ikasle bakoitzak bere gaitasun, esperientzia, itxaropen eta interesak ditu eta horiekin bat datorren aukera egin dezan komeni da. Ohikoa izaten da, ikasleen adina eta heldutasun-maila dela eta, erabaki horretan, zenbaitetan, ikasketetan lagunak izatea lehenestea, gustuko duten lanbideari buruzko ikuspegi fantasiatsuak izatea edo ikasketa erosoak aukeratzea. Une horietan, akademia- eta lan-orientabideko zerbitzuen zeregina ikasleei dauzkaten prestakuntza- edota lanbide-aukerei buruzko informazio errealista eta egiazkoa ematea eta aukera errazago egiteko irizpide objektibo eta iritzi-elementu koherenteak eskaintzea da.

Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleek dituzte prozesu horretan zalantza eta zailtasun gehien: maiz beren gaitasunen gaineko sentimendu negatiboak dituzte, esperientzia pertsonal eta akademiko frustragarriak bizi izan dituztelako; itxaropen mugatuak izan ditzakete, beren hezkuntza-premia oso barneratua dutelako eta ongi landu dituzten gaitasun eta abileziei garrantzi gutxi ematen dietelako; eta, askotan, gizartearen onespenerari eta inklusioari dagokionez, esperientzia desatseginak izan dituzte. Horregatik, orientabide akademiko eta profesionaleko programetan ikasle horiei lehentasuna eman behar zaie. Beheko taulan DBHko 4. mailan, Batxilergoko 2. mailan eta erdi-mailako heziketa-zikloetan egin beharreko orientazio-lanaren eskema jaso dugu.

AKADEMIA- ETA LAN-ORIENTABIDEKO PROZESU ETA LANAK	
FASEA	JARDUERA/LANA
Lehena	Ikasleen zerrenda.EDUCA errolda
Bigarrena	Espediente pertsonala aztertzea
Hirugarrena	Irakasleek atzemandako HPak
Laugarrena	HPen autopertzepzioa
Bosgarrena	Prestakuntza-eskaintza eta curriculumeko datuak
Seigarrena	Sintesi-txostena (laburpena)
Zazpigarrena	Orientatzeko aholkua
Zortzigarrena	Erabakiak hartzea
Amaiera	Ikastetxe hartzaileari informazioa ematea

Prozesu horretan kontuan hartu behar da ikasleek erabakiak hartzen eta beren bizitza antolatzen ikasi behar dutela. Orientabide akademiko eta profesionaleko arduradunen zereginak gidatzea eta aholkuak eta informazioa ematea izango dira: datuak aztertzeko eta alderatzeko irizpideak eskaini behar dizkiete eta prozesu horretan autonomia eta eraginkortasuna lantzen lagundu behar diete.

Gauzak horrela, akademia- eta lan-orientabideko plan bat egin dugu, bederatzi fasetan antolatua; fase horietan guztietan hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleak dira prozesuko protagonista nagusiak.

LEHEN FASEA

“HLPBak dituzten ikasleek (beste guztiek bezala) beren erabakiak hartu behar dituzte eta beren bizitza antolatu behar dute.”

HLPBak dituzten ikasleen zerrenda lortzea. Izena emateko garaia heldu aurretik, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe eta institutueta Orientabide Sailek desgaitasunak edota HLPBak dituzten ikasleen zerrenda atera behar dute EDUCA plataformatik. Izan ere, ikasle horiek dute lehentasuna. Dena den, ez dugu ahaztu behar premia berezi horiek izan eta senti ditzaketen baina erroldatuta ez dauden ikasleak ere egon daitezkeela eta horiek ere gure arreta beharko dutela. Ikastetxe bakoitzak erabaki behar du arreta non jarri eta zer ikaslerekin egin ahalegin gehien.

BIGARREN FASEA

“Zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta egokiagoa izango da zure laguntza”.

Ikasleen espediente pertsonaleko datuak lortzea. Lehendabizi, EDUCAtik datu hauek har ditzakegu:

- Historia akademikoa: ikastetxeak eta egindako programak, kalifikazioak eta tituluak.
- Atzemandako hezkuntza-premiak, diagnostikoak, diagnostikoen datak, egokitzapenak eta egindako doitzak.
- Datu soziofamiliarak: familia-konstelazioa, koordinazioak eta harremanak.
- Jasotako beste ohar garrantzitsu batzuk. Orientabide-txosten eta -proposamenak.

Datu horiek eta gero lortuko ditugunak jasotzeko **C2 eranskina jarri dugu eskura**: “**Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen datu pertsonalak**”. Agiri hori ikasleen espediente pertsonala izango da eta, beraz, zehaztasun handiarekin eta konfidentzialtasuna zainduz erabili beharko dugu.

HIRUGARREN FASEA

Tutore diren irakasleek atzemandako hezkuntza-premiak. Fase honetan tutoreek ikasleengan zer hezkuntza-premia berezi atzeman dituzten jakin beharko dugu.

Lan horretaz dugun ikuspegiari jarraikiz, urrian (hasierako ebaluazioa egin aurreko asteetan), irakasleei atzemandakoa jasotzea errazten duen tresna bat emango diegu: **G eranskina**, “**Tutoreek premiak atzematea**”. Tresna hori taldekoa da eta, beraz, talde/gela bakoitzeko ikasle guztiei buruzko datuak jasoko ditugu. Alde horretatik, talde/gela batean lan egiten duten irakasle guztiek erabili behar dute, nahiz eta osatzeko eta Orientabide Sailari emateko ardura tutoreak duen.

Galdeketa egingo duten profesionalei ikasleen diagnostikoaren berri ez ematea komeni da, haien irizpiz eraginik ez izate aldera. Gero, datu guztiak jaso ondoren, irakasle-taldeari

ikasleen hezkuntza-premien berri emango diogu.

Gure orientabide-lana izango da aztergai ditugun ikasleen datu pertsonalak hautatzea eta haien espediente pertsonalean jasotzea.

Tresna hori erabiltzeak beste abantaila bat ere badu: ikusiko dugu ikasle batzuek, erroldatuta ez egon arren eta desgaitasunik ez duten arren, hezkuntza-premiak dituztela eta haiekin esku hartu beharko dugula; eta beste batzuek, nahiz eta EDUCAn HLPBdun gisa erroldatuta egon, gaur egun ez dutela benetako inolako hezkuntza-premiarik eta ez ditugula lehenetsi behar.

LAUGARREN FASEA

“Norberaren bizimodua antolatzen antolatzeko aukerak izanez ikasten da.”

Ikasleek berek beren informazio pertsonala ematea. DBHko 4. mailako, Batxilergoko 2. mailako eta erdi-mailako Lanbide Heziketako ikasleek adin nahikoa dute introspektzio bide-ratua egiteko, curriculum-betekizunekin benetan zer zailtasun dituzten adierazteko eta beren desgaitasun edo hezkuntza-premiak nola bizitzen eta interpretatzen dituzten azaltzeko. Horretarako, ikasleek (EDUCAn erroldatuek edo, komenigarritzat jo eta denbora eta aukera izanez gero, ikasle guztiek) galdeketa bat egitea proposatu dugu; **H eranskinean** jaso dugu galdeketa horren eredu bat: **“Galdeketa: HLPBen autopertzepzioa, interesak eta iguripenak”**. Galdeketa horiek oso sinpleak dira eta datuak bizkor eta erraz ematen dituzte. Google formularioa oso baliabide erabilgarria da, informazio estatistiko eta grafikoa ematen duelako, banakoa eta kolektiboa, eta informazio hori, gero, erantzunak eta banako edo taldeko esku-hartzeak diseinatzeke erabil daitekeelako.

Galdeketa horretan, garrantzitsua izan daitekeen beste era bateko informazioa ere jaso dezakegu: interes akademiko eta profesionalak, gerora begirako iguripenak, diagnostikoaren arabera hartzen dituen botikak...

H eranskinean proposatu dugun galdeketak atal hauek ditu:

- Norberaren datuak.
- Desgaitasun-ziurtagiria (edukiz gero) eta -maila.
- Norberak atzemandako hezkuntza-premiak.
- Ikasteko plana eta teknikak.
- Aukeratutako prestakuntza (lehenetasun-ordena).
- Interesak eta iguripenak

Lehen elkarrizketa pertsonala. Landu beharreko gaiak:

Lehen fasetik laugarrenera bitarteko prozedura guztien bitartez jasotako informazioa ikasleei ezagutzera emateko garaia da. Elkarrizketa pertsonal batean egingo dugu hori eta funtsezko gai hauek landuko ditugu:

- Irakasleek emandako datuak azaltzea.
- Irakasleek emandako datuen balorazio pertsonala egitea.
- Autopertzepzio-galdeketa zer datu lortu diren azaltzea.
- Autopertzepzio-galdeketa datuak zehaztea.
- **Konfidentzialtasun-konpromisoa.** Ikasleek edota haien familiek dagozkien baimenak sinatzen dituzte, Orientabide Sailak beste profesional batzuei ikasleen diagnostikoaren berri eman diezaieten (ala ez). “Konfidentzialtasun-konpromisoak” (F eranskina).
- Eskura ditugun datuak oinarritzat hartuta egindako lan-planaren berri ematea: egokitzapenak, akademia- eta lan-orientabideko prozesua, familiarekin koordinatzea...
- Ikasleak galderak eta eskariak egitea.

Ikasleek hezkuntza-testuinguruari eta curriculum-eskakizunei dagokienez dituzten hezkuntza-premiei buruzko informazio nahikoa jaso ondoren, curriculum-egokitzapenak egin eta martxan jarri behar ditugu. Curriculumera sartzeko egokitzapenak nola diseinatu, egin eta aplikatu eta egokitzapen horiek gauzatzeko baliabide materialak eta giza baliabideak nola ezarri 6.3 kapituluan eta J1, J2 eta J3 eranskinetan (“Curriculumera sartzeko egokitzapenak. Baliabide materialak eta giza baliabideak”) landu dugu, Lanbide Heziketaren alorrean. Horietan jasotako baliabide, estrategia eta aholkuak berdin-berdin erabil ditzakegu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, eta haiei lotzen gatzaizkie.

BOSGARREN FASEA

“Zerbat eta informazio gehiago izan, orduan eta erabaki zentzuzkoagoak eta hobeak hartuko ditu.”

LHko ikasketei eta prestakuntza-eskaintzari eta, bereziki, ikasleek aukeratutako zikloetako baldintza eta eskakizunei buruzko informazioa ematea.

Lanbide Heziketako ikasketen ezaugarriak eta sarbidea

Bigarren Hezkuntzako orientatzaileek ondo baino hobeto ezagutu behar dituzte Lanbide Heziketaren bereizgarriak, informazio hori ikasleei behar bezala emateko. Hauek dira, labur-labur, Lanbide Heziketako ikasketen ezaugarri nagusiak:

- Teorikoak eta praktikoak dira eta lanbide-modulutan antolatuta daude (modulu horiek hezkuntza-sistemako beste maila batzuetako irakasgaien baliokideak dira). Zati teorikoa eta praktikoa moduluen arabera desberdin kuantifikatzen dira. Dena den, jardueren % 60 baino gehiago tailer eta laborategietan egiten da eta, beraz, ikasketa horiek pertsona batzuentzat oso erakargarriak izan daitezke.
- Lanbide-moduluak Lanbide Prestakuntzen Katalogo Nazionaleko gaitasun-atalei atxikita egon daitezke ala ez. Izan ere, lanbide-modulu batzuk, gaitasun-atalei atxikita ez badaude ere, ikaskuntza-emaizak lortzeko ezinbestekotzat jo daitezke.
- Titulu guztiek lan-mundurako trantsizioarekin zerikusia duten lanbide-moduluak dituzte: “Enpresa eta ekimen sortzailea”, “Laneko prestakuntza eta orientabidea” eta “Lantokiko prestakuntza”.
- Modulu bakoitzak bere eduki, ikaskuntza-emaizta eta ebaluazio-irizpideak ditu.

Heziketa-zikloetara sartzeko betekizunak (2017-2018 ikasturtea):

Erdi-mailako zikloak

DBHko titulua (edo antzekoa) edo maila handiagoko beste titulazio batzuk edukitzea.

Oinarrizko lanbide-titulua edukitzea.

Sartzeko proba gainditzea (eta 17 urte izatea).

Erdi-mailako zikloetara sartzeko prestakuntza-ikastaro espezifiko bat gainditzea (eta 17 urte izatea).

HLPP bateko derrigorrezko moduluak gainditzea.

Hemen duzue informazio gehiago:

https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/acceso#Acceso_FP_GM 

Goi-mailako zikloak

Batxilergoko titulua (edo baliokidea) edo maila handiagoko beste titulazio batzuk edukitzea.

Lanbide Heziketako teknikari-titulua edo goi-mailako teknikari-titulua edukitzea.

Sartzeko proba gainditzea.

Hemen duzue informazio gehiago:

https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/acceso#Acceso_FP_GS

Plazak gordetzea.

Erdi-mailako zikloak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua dutenak	70,00-75,00%
Oinarrizko Lanbide Heziketako titulua dutenak	15,00-20,00%
Sartzeko proba gainditu dutenak / DBHtik gorako tituluak dituztenak	10,00%

Goi-mailako zikloak

Batzilergoko titulua dutenak	% 60,00
Lanbide Heziketako teknikari-titulua dutenak (erdi-mailakoak)	% 30,00
Sartzeko proba gainditu dutenak / Maila handiagoko tituluak dituztenak	% 10,00

Edozein ziklotan sartzeko, hautagaiek sartzeko baldintza orokorrak bete behar dituzte (titulazioa...), baina komeni da jakitea, ordea, beti ez dela lortzen egindako aukeran sartzea, lehia egiten delako (kalifikazioa), ikasgela bakoitzeko hogeit hamar ikasle baino ez direlako hartzen eta kupoak baztertzailak direlako. Beraz, ikasleek izena emateko orrian aukera bat baino gehiago hautatzea komeni da.

Jakin beharra dago, gainera, talde/ikasgela bakoitzean plaza bana gordetzen zaiela, batetik, desgaitasun-ziurtagiria duten pertsonen; eta bestetik, hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituztenei, baldin eta EDUCAn errolatuta badaude. Plaza horiek ere notaren arabera ematen dira eta, beraz, espedientean kalifikazio onenak dituzten pertsonak sartzeko dira.

Ikasturte bakoitzean, Hezkuntza Departamentuak Lanbide Heziketako ikastetxeetako eskolatzeko araudia espezifikoa eta jarraibideak argitaratzen ditu eta, halaber, aurreko ikasturtean heziketa-zikloan sartzeko gutxieneko noten berri ematen du. 2017-2018 ikasturteko erdi-mailako zikloetako gutxieneko notak ikusteko esteka:

https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/934704/Notas+de+acceso_201718_GM/10313942-c95c-5244-e8f1-123239c7547c

Eta goi-mailako zikloetako gutxieneko notena:

https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/934704/Notas+de+acceso_201718_GS/8e620c6f-e86a-4c59-e75b-48d0edac8099

Nafarroan eskaintzen diren heziketa-zikloak

Nafarroan Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-ziklo ugari daude. Guztira hogeita bi lanbide-arlo daude, adar askotakoak.

Hezkuntza Departamentuaren web-orrialdean dago jasoa ziklo bakoitzari buruzko informazioa. Beren lanerako datu eta informazio zehatzak behar dituzten orientatzaileek esteka honetan bilatu beharko dituzte:

<https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/profesorado/curriculos-y-normativa/ciclos-formativos>

Gure lanerako datu garrantzitsuak arin eskuratze aldera, informazio hori I eranskinean bildu dugu: “**Nafarroan eskaintzen diren lanbide-arlo eta heziketa-zikloak**”. Eranskinean, zehazki, honako hauek jaso ditugu:

Heziketa-ziklo bakoitzean, hura definitzen duen **gaitasun orokorra (GO)** eta dagozkion oinarrizko **lanbide-zereginak (LZ)**.

Lanbide-arlo bakoitzean, eskatzen diren lanak eraginkortasunez eta fidagarritasunez egin ahal izateko ikasleek izan edo landu behar dituzten **gaitasun pertsonalak**. Gaitasun pertsonal guztietatik (oinarrizkoak, teknikoak eta zeharkakoak), I eranskinean oinarrizko gaitasunak bakarrik aukeratu ditugu; izan ere, gaitasun tekniko eta zeharkakoak ikasketa profesionaletako prestakuntzaren eta praktikaren bitartez eskuratzen dituzte ikasleek. **Oinarrizko gaitasunak** prestakuntza edo lanpostu jakin batera sartzeko balio dutenak dira. Hona hemen gaitasun horien adibide batzuk: ikusmen- eta entzumen-eraginkortasuna, garapen kognitiboa, mugikortasuna, koordinazioa eta oreka, ama-hizkuntza menderatzea, atzerriko hizkuntza bat menderatzea, matematikako gaitasuna, IKTak erabiltzea... Bistakoa denez, horietako askok orain arte aztertutako desgaitasunen eta hezkuntza-premien arloekin zerikusia dute. Beraz, gaitasun horiek ez izanez gero, ikasleek baliabide eta neurri espezifikoak beharko dituzte eta, Lanbide Heziketan, curriculumera sartzeko egokitzapenetan zehaztuko dira. Lanbide-arlo bakoitzean aukeratu eta aztertu ditugun oinarrizko gaitasunek desgaitasun-esparru guztiekin dute zerikusia (ikustekoa, entzutekoa, mugitzekoa, psikosoziala, instrumentala eta kognitiboa).

SEIGARREN FASEA

Datuen sintesia/laburpena. Fase honetan orain arte jasotako datuen laburpena egin behar da, aztertzeko, alderatzeko eta baloratzeko ikasleak egindako aukera bere ezaugarri bereziekin bat datorren ala ez.

Kalitatezko orientabide akademiko eta profesionalak ikasleen gaitasun, aukera eta ezaugarriak dauden edo aukeratu dituzten ikasketa eta mailen betekizun eta ezaugarriekin bat etortzea lortu behar du. Analisi- eta alderaketa-prozesu horien emaitza orientabide-aholkua da. Aholku horretan ikasleei erabakia errazago hartzeko argudio eta arrazoi objektiboak ematen zaizkie.

K eranskinean (“**Ikasleen akademia- eta lan-sustapenerako datuen laburpena**”) datuak laburtzeko tresna bat eskaini dugu, dagoen informazio guztia biltzeko eta gure azterlaneko ondorioak formalizatzeko erabil daitekeena.

Gure iritziz, datuak laburtzeko eta erabakiak hartzeko prozesu honetan garrantzitsua da oinarrizko gai hauek aintzat hartzea:

- a) Hezkuntza-premia eta desgaitasuna ez dira termino absolutuak: askotariko maila eta agermenak dituzte (arreta-arazo edo -nahasmendu arinek, adibidez, ikaskuntzan eragin gutxi izan ditzakete, eta larriak badira, berriz, ikaskuntza erabat baldintza dezakete).
- b) HLPBak dituzten pertsonak ez dituzte zailtasun orokorrak: disfuntzioez gain gaitasun eta abileziak ere badituzte. Gaitasun eta abilezia horiei esker, batzuek heziketa-ziklo jakin batzuek gaintitu eta tituluak lor ditzakete, eta beste batzuek eduki eta unitate-atal batzuek gaintitu eta lanbide-ziurtagiriak eskura ditzakete.
- c) Guztiok zer ikasi nahi dugun eta non lan egin nahi dugun aukeratzeko eskubidea daukagula aintzat hartuta, komeni da jakitea Lanbide Heziketako ikasketetan ezinbestekoa dela abilezia eta trebezia jakin batzuek edukitzea (gaitasun pertsonal, profesional eta sozialak) eta horiek gabe ezin dela titulurik lortu eta lanbide batean aritu.


d) Orientazio-prozesuaren fase honetan funtsezkoa da ikasleek zer ahulezia eta indargune eta zer desgaitasun-maila edo hezkuntza-premia dituzten jakitea.

e) Lanbide Heziketa desgaitasunak edota hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsona askorentzat ziurtagiriren bat lortzeko eta lanpostu duin eta kalifikatu batean aritzeko eskubidea gauzatzeko aukera onena da.

f) **Ikaslea adinez nagusia bada, heziketa-ziklo jakin batean eskolatzeko erabakia ikasleak berak hartu behar du; eta adingabea bada, berriz, bere guraso edo legezko tutoreak.** Orientabide Sailak emandako informazio, egindako proposamen eta eskaintako aukerak, beharrezkoak eta koherenteak badira ere, ez dira erabakigarriak. Bidegabea, etika gutxikoa eta eskubide unibertsalen kontrakoa litzateke desgaitasunak dituzten pertsonak haiek lehenetsitako ikasketetan izena emateko prozesuetatik kanpo uztea, ikasketa horiek egokiak ez direla pentsatzeko arrazoi nahikoa eduki arren.

ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUAREN ESKEMA

HEZKUNTZA-PREMIAK ZEHAZTEA ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA



ZAZPIGARREN FASEA

Orientatzeko aholkua. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko orientatzaileak, laburpen-agiria formalizatu eta gero, ondorioak atera behar ditu eta ikasleen aukera egokia edo desegokia den zehaztu behar du. Gero, ikasleei aldeko eta kontrako datu guztiak eman behar dizkie. Informazio eta aholku horiek elkarrizketa pertsonal batean eman behar zaizkie ikasleei, behar izanez gero familia ere bertan dela.

Bigarren elkarrizketa pertsonala

Ateratako ondorioen berri emateko, ikasleei (eta, hala badagokio, familiari) bilera batera deitzen zaie eta oinarrizko puntu hauek lantzen dira:

- **Ikasleak erabaki akademikoak hartzeko datuen laburpena (K eranskina)** irakurtzea eta komentatzea.
- **Ikasleak nahiago duen heziketa-zikloa zertan den azaltzea eta aztertzea**, bere gaitasun pertsonalak aintzat hartuta.
- **Eskolatzeko (orientatzeko) ordezeko proposamenak.**
- **Eskainitako aukerak aztertzea.**
- **Ikasleak erabakia hartzea (ahal bada).**

ZORTZIGARREN FASEA

Erabakiak hartzea. Aurreko elkarrizketan ikaslea orientazio-proposamenekin bat ez badator eta erabakirik adosten ez bada, familian gaiak hausnartzeko denbora utzi eta beste bilera bat proposatu behar da. Azkenean ziklo batean edo bestean izena emateko azken erabakia ikasleak hartu behar da, gure ikuspegiarekin bat etorri ala ez; dena den, emandako informazioa eta desadostasun hori idatziz jaso behar dira.

Azken elkarrizketa pertsonala

Erabakiak formalizatze aldera, ikaslea eta, hala badagokio, familia elkarrizketa batera deitu behar dira. Hona hemen elkarrizketan zer gai landuko diren:

- **Aurreko elkarrizketako datuak aztertzea.**
- **Ikasleak edota familiak non eskolatu erabakitzea.**
- **Erabakiaren aldeko eta kontrako iritzia aztertzea.**
- **Izena emateko eta matrikulatzeko prozesuei buruzko informazioa ematea.**
- **Sinatzea**

AZKEN FASEA

Ikastetxe hartzaileari erabakiaren berri ematea. Ikasleek, zer heziketa-ziklo egin nahi duten erabaki (bat baino gehiago aukera ditzakete, lehentasun-ordenan) eta aukeratutako ikastetxean izena eman eta matrikulatu ondoren, erreferentziazko ikastetxeko orientatzaileak (DBHkoak, Batxilergokoak edo erdi-mailako ziklokoak) txosten bat egingo du ikasleari eta haren erabakiari buruzko daturik garrantzitsuenekin. Txostenean ikasleak behar dituen eta K eranskinean eskema moduan jasota dauden laguntzen aurreikuspenari buruzko atalak garrantzi handia izango du.

Espediente pertsonalean jasotako informazioa eta prozesu horretan betetako agiriak (C2 eta K eranskinak) ikaslearen harrera-ikastetxera bidaliko dira iraileko lehen asteetan. EDUCA

plataformak eranskin horiek iraultzen utzi beharko luke, ikastetxeek informazio hori berehala eskuratzeko modua izan dezaten.

Orientazio-prozesuaren amaieran, ikasleak harrera-ikastetxearekin bisita bat hitzartzen du, ingurune fisiko eta soziala zein den ezagutzeko. Alde horretatik, institutuko orientatzailearekin batera joatea komeni da, profesionalekin harremana errazteko. Une hori datu gehiago emateko eta curriculumera sartzeko eta egokitzeko proposamenak egiteko aprobetxa daiteke.

Bigarren Hezkuntzako jardueraren adibide bat

Bigarren Hezkuntzako ikasleak Lanbide Heziketara bideratzeko orientazio akademikoaren prozesu osoaren adibide gisa, Batxilergoko bigarren mailan zegoen eta Lanbide Heziketako goi-mailako ziklo batean izena eman nahi zuen ikasle bat aukeratu dugu (adibide paradigmaticoa baita). Ikaslea Batxilergoan bazegoen ere, jaso ditugun esku-hartze guztiak DBHko eta LHko erdi-mailako zikloetako ikasleekin egin daitezke, berdin-berdin.

HASIERAKO DATUAK

HLPBEM ikaslea Batxilergoko bigarren maila egiten ari da itunpeko ikastetxe batean. Bi mailetan, ikasleak nota onak atera ditu; irakasgaireren batean edo bestean gutxiegi atera du, baina errekupeazioak gainditu ditu. HLPBEMk, matrikulatu denean, ez du zer desgaitasun duen jakitera eman (ez du nabarmendu nahi, ikaskideak bezala trata dezaten nahi du). Lehen ikasturtean, ordea, irakasleek mugimen- eta ikusmen-disfuntzio batzuk zituela atzeman zuten; dena den, disfuntzio horiek, berez, ez diote curriculumaren eskakizunak betetzea eragozten.

HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN DATU PERTSONALEN ERREGISTROAREN LABURPENA. C2 ERANSKINA

IDENTIFIKAZIOA Izen-abizenak	HLPBEM	
Harremanetarako senidearen izena (Telefonoa, posta elektronikoa)	AMA. Telefono-zenbakia:XXX.XX.XX.XX	
Eskola-taldea eta maila	Giza Zientzien Batxilergoa.Giza Zientzien modalitatea	2º
Diagnostikoaren kodeak eta data	Ezker hemiparesia	523
	Ezker begiarekin gutxi ikusten du.Eskuin begia funtzionala da.	410
	Ezker belarriarekin gutxi entzuten du.Eskuin belarria funtzionala da.	310
Desgaitasun-ziurtagiria. Arrazoia eta portzentajea	Ezker hemiparesia	44.00%
Zer curriculum-egokitzapen egin diren eta noiz	Bat ere ez	
Erabilitako baliabide material eta giza baliabideak	Bat ere ez	
Orain arte lorturiko titulazioak	DBHko titulua	
	Laster, Batxilergoko titulua	
Azken ebaluazioan gainditutako eta gainditu gabeko irakasgaiak	Gaindituak	Gainditu gabekak
	Denak	Bat ere ez
Azken ebaluazioko JOK eta BKJak	Bat ere ez	Bat ere ez
Irakasleek atzemandako hezkuntza-premiak	Pendiente	
Norberak atzemandako hezkuntza-premiak	Pendiente	

Urtarrilean, ikasleei ikasketetan edo lanbidean gora egiteko eskaintzen zaizkien aholkularitza-prozesuan, ikasleak Lanbide Heziketako ikastetxe batean matrikulatu nahi duela adierazi du, Haur Hezkuntzako goi-mailako zikloa egiteko. Orduan hasi dira bere gaitasunak eta premiak aztertzen. Lehenik, irakasle tutoreak hasierako ebaluazioa baino lehen (irailean eta urrian) egindako oharrak bildu dituzte. Hona hemen azterketa horren emaitzak:

HASIERAKO EBALUAZIOA. TUTORE DIREN IRAKASLEEK ATZEMANDAKO HEZKUNTZA-PREMIAK. G ERANSKINA.

ATZEMANDAKO PREMIAK ARLO PROBLEMATIKOAK		
Izen-abizenak	Tutorea	Taldea
HLPBEM	YYY	2BH
Atzemandako hezkuntza-premiak		X-x
Zentzumeneren funtzionamendua (entzumena eta ikusmena)		x
Mugimenaren funtzionamendua		X
Funtzionamendu kognitiboa		
Bertaratzea eta ordurako iristea		
Lanak egiteko jarritako arreta eta gogoa		
Ikasgelako partaidetza		
Bakarkako lan eta jardueretan egindako ahalegina		
Taldeko lanetako partaidetza eta ahalegina		x
Ikasteko zailtasunak		
Ikaskideekin duten harremana		x
Irakaslearekin duten harremana		
Jarrera eta arauak betetzea		
Pertsonalak: tristura, depresioa, antsietatea, tikak...		

OHARRAK:

Hemiparesiarekin zerikusia duten koordinazio dinamikorako eta ikusmena eta mugimena koordinatzeko zailtasunak?

Ikusmen-zailtasun batzuk ditu: badirudi ezker begiarekin ez duela ikusten eta hori eskuin begiarekin konpentsatzen duela.

Bakarrik egoteko joera du. Ikaskideekin harreman gutxi du. Esperientzia gutxi du parekoe-kiko harremanetan. Familiak beharbada gehiegi babesten du.

Bigarrenik, ikasleari galdeketa bat egin diogu, azal diezagun nola bizi eta sentitzen dituen bere hezkuntza-premiak eta bere funtzionamendu akademiko eta pertsonalarekin zerikusia duten beste gai batzuk. Bildutako datuen laburpena taula honetan jaso dugu:

HLPBAK, INTERESAK ETA ITXAROPENAK ZEHAZTEKO GALDEKETA. H ERANSKINA.

IZEN-ABIZENAK	TALDEA	ESKOLA-MAILA
HLPBEM	2	Erdi-maila. Administrazio-kudeaketa.

Gaur egun botika espezifikoak hartzen ari naiz (inguratu)	BAI	EZ
---	-----	----

1. Atzemandako zailtasun eta premiak	Markatu x batez			
	Bat ere ez	Gutxi	Nahikoa	Asko
A Ikusmen-arazoak ditut			X	
Betaurrekoak, arbeletik gertu jartzea eta argi nahikoa behar dut.				
Lupak, lente zuzentzaileak, makrotipoak eta abar behar ditut.				
B Entzumen-arazoak ditut			X	
Audifonoak behar ditut, eta inguruan zaratarik ez izatea.				
FM igorle/hartzailea behar dut.				
C Mugimen-arazoak ditut			X	
Gurpil-aulkia edo mugitzeko laguntza behar ditut.				
Objektuak eskuztatzeko eta idazteko laguntza behar dut.				
D Ikasgelan arreta jartzeko, arreta galtzen dut	X			
E Ikasteko gogoia biltzeko	X			
F Datuak memorizatzeko eta buruan gordetzeko	X			
G Arrazoitzeko eta hausnartzeko	X			
H Eskulanak egiteko			X	
I Bakarkako lanak egiteko	X			
J Taldeko lanak egiteko			X	
K Irakasleekin harremanak izateko	X			
L Ikaskideekin harremanak izateko		X		
M Pertsonalak:antsietatea, tristura...		X		
N Osasun fisikoa (bihotza, biriak...)	X			
Ñ Jendearekin komunikatzeko			X	
O Hizkuntzakoak (ulertzeko, adierazteko)	X			
P Irakurtzeko eta idazteko	X			
Q Kalkuluak egiteko eta matematikarako		X		
Desgaitasun-ziurtagiria dut	BAI	EZ		44.00%

2. Arazoak ditut ikasketa-planarekin eta ikasteko teknikekin		Markatu x batez			
		Bat ere ez	Gutxi	Nahikoa	Asko
Etixerako ikasketa-plan bat dut (inguratu)				BAI	EZ
R Eguneroko nire ikasketa-plana betetzeko		X			
S Ikasteko teknikekin			X		
T Etxean ikasteko (tokia, ordua...)		X			
Etxean ikasten ematen dudana denbora (minututan)					
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata
120	120	120	120	120	45
3. Interesak eta itxaropenak					
Bi urte barru zera gustatuko litzaidake...(inguratu)			Lanean aritzea	Ikasten aritzea	
Zer arlotan lan egitea edo ikastea gustatuko litzaidake (aukeratu hiru arlo eta zerrendatu lehentasun-ordenaren arabera)					
1. Haur Hezkuntzako goi-mailako zikloa.					
Arlo hori aukeratzeko nire arrazoiak Haurrak asko gustatzen zaizkit. Irakasle-ikasketak egin nahi ditut NUPen.					
Interesatzen zaidana ikastea lortzen badut, titulua erraz eskuratuko dudala uste dut.			BAI	EZ	
Aukeratu ditudan ikasketek zer betekizun eta zailtasun dituzten badakit			BAI	EZ	

Hezkuntza-premiak baloratzeko nahikoa eta asko zerrendetako oharrak bakarrik hartu ditugu kontuan. Horien arabera, ikasleak arlo hauetako premiak nabaritzen ditu: ikusmena, entzumena, eskulanak, talde-lana eta jendearekiko harremana. Beraz, horietan jarriko dugu interesa eta horietaz arduratuko gara.



LEHEN ELKARRIZKETA

Helburua: Hezkuntza-premien azterketari buruzko emaitzen berri ematea.

Bi datu-multzoen artean zer kointzidentzia dauden azaldu diogu.

Zer ikusmen- eta entzumen-zailtasun dituen aztertu dugu, eta zehaztu dugu ezker begian ikusmenaren % 80 baino gehiago galdu duela eta ezker belarrian entzumenaren % 80 baino gehiago. Galera hori, ordea, eskuin begiarekin eta eskuin belarriarekin osatzen du, haiekin ongi ikusten eta entzuten duelako.

Ikasketak nola dihoazkion aztertu dugu, eta ongi doakio: prestakuntza-moduluak gainditzen ditu eta ikasteko ahalegin handia egiten du (etxean egunero bi ordu ematen ditu ikasten).

Bere gizarte-harremanak aztertu ditugu, eta azaldu du harreman gutxi dituela, ez dela lagunekin ateratzen eta ez duela lagun-talderik, beti amarekin dagoela. Parekoekin ez du interesik konpartitzen eta bakarrik egoteko joera du.

Zer interes akademiko eta epe laburrerako zer itxaropen dituen galdetu diogu. Azaldu digu Haur Hezkuntzako goi-mailako heziketa-zikloa egin nahi duela eta ez duela beste aukerarik baloratu. Haurrak asko gustatzen zaizkio eta, beharbada, goi-mailako ziklo hori amaitzen duenean unibertsitatean matrikulatuko da Irakasle-ikasketak egiteko.

Hitz egindako gaien gainean laguntza eta informazioa eman diezaiokegula adierazi diogu: gizarte-zailtasunak, zentzumen- eta mugimen-arazoak, aukeratutako ikasketak...

Aurrerantzean, aukera akademiko egokiena aurkitzen laguntze aldera, zer prozedura hasiko ditugun jakinarazi diogu, eta baita Nafarroan zer heziketa-ziklo dauden eta zer baldintza bete behar diren azalduko diogula. Hurrengo elkarrizketak.

Jakinik ikasleari Haur Hezkuntzako goi-mailako heziketa-zikloa bakarrik interesatzen zaiola (aukera bakarra eta baztertzaila da), ziklo horri dagokion lanbide-arloaren G eranskina lortu dugu.

Datu horiek garrantzitsuak diren arren, curriculum ofizialean ziklo horretako modulu, eduki, ikaskuntza-betekizun eta ebaluazio-irizpideei buruzko informazio zehatza aurkitu dugu. Datu horiek garrantzitsuak eta zehatzak direnez, oso baliagarriak dira ikasleari erabakia hartzeko irizpide eta iritzi-elementuak emateko.

IKASLEAK AUKERATUTAKO LANBIDE-ARLOARI ETA HEZIKETA-ZIKLOARI BURUZKO INFORMAZIOA BILTzea. I ERANSKINAREN LABURPENA.

EM: erdi-mailako heziketa-zikloak. GM: goi-mailako heziketa-zikloak.

GO: gaitasun orokorra.

LZ: lanbidean aritzeko ezinbesteko lanbide-zereginak (gaitasunak).

OINARRIZKO GAITASUN PERTSONALAK: Lanbide Heziketako ikasketetan, lanbidea ikaste aldera, curriculum-eskakizunak eta eskakizun teknikoak betetzeko erabili beharreko abilezia eta trebeziak dira. Gaitasun horiek ez edukiz gero, baliabide eta neurri espezifikoak jarri beharko dira; Lanbide Heziketan, zehazki, curriculumera sartzeko egokitzapenak egiten dira.

LANBIDE-ARLOA:GIZARTE- ETA KULTURA-ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKOAK.

GM	Animazio soziokultural eta turistikoa	
GO	Animazio soziokultural eta turistikoko esku-hartzeak programatzea, antolatzea, ezartzea eta ebaluatzea; hartzaile diren pertsona eta taldeen partaidetza aktiboa sustatzea; eta norberaren ardurapean dauden profesional eta boluntarioen jarduerak koordinatzea.	
LZ	Esku-hartze soziokulturala premiei egokitzeko informazioa lortzea. Esku-hartze soziokulturaleko proiektuak egitea. Esku-hartze soziokulturaleko proiektuen ezarpena zuzentzea. Esku-hartze proiektuak sustatzeko eta hedatzeko gune, estrategia eta materialak diseinatzea. Animazio soziokultural eta turistikoko sail, programa eta jarduerak antolatzea. Begirale-taldeak sortzea, dinamizatzea eta gainbegiratzea.	Jolas-jarduerak, kultura-jarduerak eta aisialdiko jarduera fisikoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea. Talde eta elkarteei laguntza tekniko, dokumentala eta logistikoa ematea. Gazteentzako informazio-zerbitzuak antolatzea eta kudeatzea. Gizarte- eta hezkuntza-jarduerak diseinatu, aplikatu eta ebaluatzea. Gerta litezkeen eskaerei, iradokizunei eta erreklamazioei erantzutea. Lan-taldeak antolatzea eta koordinatzea.

GM		Haur Hezkuntza	
GO	Haur Hezkuntzako lehen zikloan haurrei arreta emateko hezkuntza-proiektu eta -programak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea esparru formalean, Haur Hezkuntzan espezializatuta dagoen edo gradu-titulu baliokideren bat duen irakasle batek egindako proposamen pedagogikoaren arabera, eta etapa osoan esparru ez-formalean; eta ingurune seguruak sortzea, beste profesional batzuekin eta familiekin elkarlanean.		
LZ	Haurrentzako hezkuntzako esku-hartzeak eta gizarte-arreta programatzea. Jarduera gauzatzeko baliabideak antolatzea. Programatutako jarduerak gauzatzea. Familiekin aritzeko estrategiak diseinatzea eta aplikatzea. Haurren premiei erantzutea. Haur txikiak segurtasunez eskuztatzea.	Ustekabeko gertakariei aurre egitean segurtasuna eta konfiantza erakustea. Esku-hartze prozesua eta emaitzak ebaluatzea. Autonomiaz eta aurrea hartuz jardutea. Haurrekin, haien familiekin eta lantaldearekin harreman onak izatea. Ingurune seguruak sortzea.	
GM		Gizarteratzea	
GO	Gizarteratzeko esku-hartzeak programatzea, antolatzea, ezartzea eta ebaluatzea eta, horretarako, estrategia eta teknika espezifikoak aplikatzea, aukeraberdintasuna sustatzea, hartzailleak uneoro errespetatzea eta hartzailleentzat zein profesionalentzat ingurune seguruak sortzea.		
LZ	Gizarteratze-proiektuak egitea. Gizarteratze-proiektuen ezarpena zuzentzea. Behar diren administrazio-jarduerak egitea. Gizarteratze-jarduerak programatzea. Etxeko indarkeria prebenitzeko jarduerak diseinatzea eta gauzatzea. Premia fisiko eta psikosozialei arreta emateko jarduerak diseinatzea. Etxea kudeatzen laguntzeko jarduerak antolatzea.	Laguntza psikosozialeko jarduerak antolatzea eta gauzatzea. HLPBak dituzten ikasleekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko jarduerak diseinatzea eta gauzatzea. Lanean txertatzeko eta lanerako prestatzeko programak antolatzea eta ezartzea. Komunikatzeko abileziak trebatzea. Pertsona eta taldeen arteko bitartekaritza-lanak egitea. Erabiltzaileekin eta haien familiekin harreman onak izatea.	

“GIZARTE- ETA KULTURA-ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKOAK” LANBIDE-ARLOAN EZINBESTE-KOAK DIREN GAITASUN PERTSONALAK

(Gaitasun horiek ez edukiz gero, sartzeko egokitzapenak egin beharko lirateke.)

Ikusmen funtzionala. Mugimen funtzionala. Entzumen funtzionala. Pertsona arteko komunikazio arin eta eraginkorra.	Arriskuak saihestea. Segurtasuna. Arauak betetzea (ordena, garbitasuna...) Oreka emozionala. Arreta. Memoria.
HAUR HEZKUNTZAKO 1. MAILAKO PRES-TAKUNTZA-MODULUAK ETA MODULU HORIEN ZAILTASUNAK	HAUR HEZKUNTZAKO 2. MAILAKO PRES-TAKUNTZA-MODULUAK ETA MODULU HORIEN ZAILTASUNAK
Haur-hezkuntzaren didaktika. Haurren autonomia pertsonala eta osasuna (zailtasunak izan ditzake). Haur-jolasa eta bere metodologia (zailtasunak izan ditzake). Garapen kognitiboa eta motorra (zailtasunak izan ditzake). Garapen sozioafektiboa. Enpresa eta ekimen sortzailea. Ingelesa.	Adierazpena eta komunikazioa. Gizarte-trebetasunak. Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea. Haurrei arreta eskaintzeko proiektua. Lehen laguntzak (zailtasunak izan ditzake). Laneko prestakuntza eta orientabidea. Lantokiko prestakuntza (LP) (zailtasunak izan ditzake).

Ikasleari eta hark lehenetsitako aukera akademikoei buruzko informazio guztia lortu ondoren, laborpen-agiri batean formalizatu beharra dago. Beheko taulan HLPBME ikasleari dagozkion laborpen-agiria eta ondorioak jaso ditugu.

IKASLEAK IKASKETETAN GORA EGITEKO DATUEN LABURPENA. K ERANSKINA.

IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK		Taldea	Etapa		
HLPBEM		2BH	DBH	Batxilergoa	GM
IKASTETXEA			Tutorea		Urtea
XXX			YYY		2017
AHALMEN, GAITASUN ETA ABILEZIAK (IKASLEAREN INDARGUNEAK)					
Ikusmen funtzionala.			Psikosozialak.		
Entzumen funtzionala.			Instrumentalak.		X
Mugimen funtzionala.			Kognitiboak (oinarrizkoak)		X
HLPBAK EDOTA DESGAITASUN-ESPARRUAK (IKASLEAREN AHULGUNEAK)					
Ikusmen-disfuntzioa.		x	Disfuntzio psikosozialak.		x
Entzumen-disfuntzioa.		x	Abilezia instrumentalen disfuntzioak.		
Mugimen-disfuntzioa.		X	Oinarrizko disfuntzio kognitiboak.		
DIAGNOSTIKOAK					EDUCA KOD.
Ezker hemiparesia.					523
Ezker begiarekin gutxi ikusten du.Eskuin begia funtzionala da.					410
Ezker belarriarekin gutxi entzuten du.Eskuin belarria funtzionala da.					310
NORBERAREN GAITASUNEN INGURUKO SENTIMENDUAK (POSITIBOAK – NEGATIBOAK)					
Ariketa matematiko eta zientifikoak.		+	-	Motrizitate larriko ariketak.	+ -
Hizkuntza-ariketak.		+	-	Eskuztatzeko ariketak eta ikusmen- eta mugimen-ariketak.	+ -
Komunikazio-ariketak.		+	-	Gizarte-ariketak.	+ -
ERANTZUKIZUNA ETA EMAITZAK					
Ikasketa-plan bat du eta bete egiten du.		X	Ebaluazio bakoitzean irakasgai bat edo bi ez ditu gainditzen.		
Ez du ikasketa-plana betetzen.Gutxi ikasten du.			Irakasgai guztiak gainditzen ditu.		
Ebaluazio bakoitzean bizpahiru irakasgai edo gehiago ez ditu gainditzen.					
IKASLEAREN EZAUGARRIAK KONTUAN HARTUTA EGOKIENAK DIREN LANBIDE-ARLOAK (ORIENTATZAILEAREN IRITZIA)					
Administrazioa eta kudeaketa		X	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak eta komunitaterakoak.		X
Merkataritza eta marketina		X			
IKASLEAK GUSTUKOEN DITUEN ZIKLOAK			1. Haur Hezkuntzako GMHZ		
HORI AUKERATZEKO ARRAZOIAK			1. Haurrak gustuko ditu. 2. Irakasle-ikasketak egin nahi ditu NUPen.		

LEHENBIZI AUKERATUTAKO HEZIKETA-ZIKLOKO BALDINTZAK ETA OINARRIZKO GAITASUNAK

Ikusmena:Ikusmen-zolitasun binokularra.

Entzumena:Entzumen funtzionala, hau da, bereizketa, asoziazioa eta kokapena.

Mugimena:Koordinazio dinamikoa eta ikusmenaren eta mugimenaren koordinazioa.Mugimen-erreakzio bizkorra.Haur txikiak seguru eskuztatzea.Indarra eta oreka.

Psikozozialak:Segurtasun-arauak errespetatzea. Arriskuak saihestea.Haurrei eta familiei konfiantza ematea.Pertsona arteko komunikazio arina.

Instrumentalak:Arin irakurri eta idaztea, informazio- eta komunikazio-sistemak erabiltzen jakitea.

Kognitiboak:Haurren seinaleei adi egotea.Erreakzio zuhurrak.Introspektzioa.

EGINDAKO AUKERA EGOKIA ETA KOHERENTEA ALA DESEGOKIA ETA INKOHERENTEA DEN.

Ikaslearen historia akademikoa, gaitasun kognitiboak eta ahalegin- eta konpromiso-maila aintzat hartuta, eduki teorikoekin ez du, beharbada, zailtasunik izango.

Desgaitasun fisikoak beharbada ez dio utziko lanbidearen oinarrizko zereginak betetzen, adibidez:haurrak eskuztatzea, ustekabekoei erantzutea, erreakzio bizkorrak izatea...Bezeroek (familiek eta haurrek) horiek guztiak eskatzen dituzte.Ikaslearen ikusmen- eta entzumen-arazoen egoera hori larriagotu dezakete.Ez dirudi abilezia horiek heziketa-zikloko praktikan edo trebakuntza espezifikoen bidez eskura ditzakeenik, jatorri neurofisiologikoa baitute.

Haur Hezkuntzako heziketa-zikloak ez du profesionaltasun-ziurtagiririk, titulua bakarrik lor daiteke.

Haur Hezkuntza aukeratzeko arrazoiak bat gero unibertsitatean irakasle-ikasketak egin nahi dituela da.Unibertsitatean goi-mailako beste edozein heziketa-ziklotik ere sar daiteke.

Beharbada, segurtasun-eskakizun gutxiago eta betekizun fisiko gutxiago dituzten beste heziketa-ziklo batzuetan pentsatu beharko luke.

ORIENTAZIO-PROPOSAMENA:IZENA EMATEKO BESTE AUKERA BATZUK

1. Gizarteratzea GMHZ.

2. Administrazioa eta finantzak GMHZ.

LAGUNTZEN AURREIKUSPENA

Curriculumera sartzeko egokitzapenak beharko ditu.	BAI	Komunikatzeko ordezko sistemak beharko ditu.	NO
Baliabide tekniko edota teknologikoak beharko ditu.	?	Ingurune fisikoa egokitzea beharko du.	NO
Inklusiorako eta parte hartzeko laguntzak beharko ditu.	BAI	Beste batzuk:	



BIGARREN ELKARRIZKETA (ikaslearekin eta amarekin)

Helburuak: Haur Hezkuntzako GMHZren ezaugarri eta baldintzen berri ematea, jakinaraztea orientatzailearen iritziz HLPBEM ikasleak egindako aukera eta aukeratutako zikloaren lanbide-eskakizunak ez datozela bat, eta erabakiak hartzen laguntzea.

Haur Hezkuntzako GMHZko lanbide-zereginen mugimen-, ikusmen- eta entzumen-abileziak erabiltzea eskatzen dutela, ikasleak ez dituela abilezia horiek eta, beharbada, ezingo dituela landu (zailtasunen jatorria neurofisiologikoa delako) azaldu diogu.

Orientatzaileak beste prestakuntza-aukera batzuk eskaini dizkio, haren iritziz ikaslearen gaitasunekin bat datozenak eta, gaindituz gero, unibertsitatean sartzeko aukera emango dietenak: “Gizarteratzea” eta “Administrazioa eta finantzak” (biak GMHZk dira).

Azken erabakia ikasleak (adindua da) eta haren familiak hartu beharko du.

Beheko taulan HLPBME ikaslearekin LHn eskolatzeko erabakiak formalizatutako atalak jaso ditugu.

K ERANSKINA.

IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK	TALDEA	ETAPA	
HLPBEM	2BH	DBH	Batxiler-goia Erdi Maila
Ikasleak aukeratutako heziketa-zikloak, lehentasun-ordenan.		1. Haur Hezkuntzako GMHZ	
Hori aukeratzeko arrazoiak			
1. Haurrak asko gustatzen zaizkio.	2. Gero, Unibertsitatean Magisteritza ikasi nahi du.		
Orientazioaren argudioak, ikasleak egindako aukeraren inguruan.			
<p>1. Desgaitasun fisikoa dela eta, koordinazio dinamikoa eta ikusmenaren eta mugimenaren koordinazioa ezegonkorra dira.</p> <p>2. Ezker begian ikusmen-arazoak eta ezker belarrian entzumen-arazoak ditu; ondorioz, ikusmen binokularra eta soinua kokatzeko gaitasuna gutxiagotuta daude.</p> <p>3. Hiru urtetik beherako haurrei arreta emateko mugimen-abilezia eta -trebezia oso landuak behar dira: bizkor erreakzionatzea, haurrak seguru eskuztatzea, eraginkorki esku hartzea...</p> <p>4. Haur Hezkuntzako ikastetxeetako bezeroek haurrak seguru eta konfiantzaz eskuztatzea eta tratatzea eskatzen dute.</p> <p>5. Unibertsitatean edozein GMHZtik sar daiteke. Irakasle-ikasketak egiteko ez da nahitaezkoa Haur Hezkuntza egitea.</p>			
Orientatzaileak proposatutako heziketa-zikloak (hala badagokio).			
1. Gizarteratzea (GMHZ).	2. Administrazioa eta Finantzak (GMHZ)		
Ikaslearen edo familiaren azken erabaki arrazoitua. Aukeratu duen heziketa-zikloa.			
<p>Haur Hezkuntzako GMHZ. Prestakuntza-eskaintzatik gehien gustatzen zaidana da, eta orientatzaileak adierazitako zailtasunak gainditu ahal izango ditudala uste dut, hau da, haurrei eta familiei segurtasuna emango dietela eta haurrak erraz eskuztatuko ditudala. Sortu zaizkidan eragozpen guztiak gainditu ditut beti, ahaleginduz.</p> <p>Zikloaren eskakizunak bete ezin ditudala ikusiz gero, hurrengo urtean orientatzaileak proposatutakoren batera aldatzen saia naiteke.</p>			
Izena emateko informazioa			
Ikastetxeak: Hezitzaileen LHI/Carlos III ikastetxea/Ikastetxe Politeknikoa			
Izena emateko epea: ikusi deialdia.	Matrikulatzeko epea: ikusi deialdia.		
Aurkeztu beharreko dokumentazioa			
<ul style="list-style-type: none"> Izena emateko orria, beteta. NAN. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasketen ziurtagiria (jatorrizko ikastetxeo Idazkaritza). Hezkuntza-laguntzako premia berezien ziurtagiria. 		
Aukeratutako ikastetxera bisita:	Data:		
Data: 2016/01/19	Sinadurak:		



HIRUGARREN ELKARRIZKETA

Helburua: Erabakiak hartzea eta izena emateko prozedurak zertan diren jakitea.

HLPBEM ikasleak azaldu du, berriz, Haur Hezkuntzako GMHZ ikasi nahi duela, gehien gustatzen zaion aukera delako.

Ulertzen du orientatzailearen ikuspegia, baina irizten dio zikloaren zailtasunak ahaleginduz eta gogor lan eginez gainditu ahal izango dituela, bidean aurkitu dituen zailtasun guztiak gainditu dituen bezala.

Ikasleak eta amak agiria sinatu dute eta egindako aukeraren ardura bere gain hartu dute, jakinik curriculumean ezarritako ikaskuntza-betekizunak betetzen ez baditu ez du ez duela titulua lortuko.

Izena emateko prozedurei (epeak, tokia eta dokumentazioa) eta aukeratutako lehen ikastetxera bisita egiteko aukeraren berri eman diogu.

Aukeratutako ikastetxeari, ikasturtea amaitu baino lehen eta ikasleak matrikula formalizatu ondoren, C2 eta K eranskinak emango dizkiogu, beteta. Era horretan, harrera-ikastetxeak egokitzapen eta doitzeak prestatzeko eta antolatzeko behar dituen datuak izango ditu.

2.

LANTZEKO DAUDEN GAIAK

Hezkuntza-laguntzako premien errolda aztertzea eta barne-koherentzia ematea.

EDUCA plataforman jasotako hezkuntza-premia berezien erroldan (kontzeptu psikopedagogikoa da) sindromeak eta nahasmenduak aipatzen dira (kontzeptu mediko-psikiatrikoak), eta sindrome horiei garapen- edo atzerapen-maila jakin batzuk egokitzen dizkie. Taxonomia horiek guztiek nahasteak sortzea eta akats larriak egitea eragiten dute. Adibidez: EDUCA erroldaren arabera (ikus J eranskina), Batxilergoa egiten ari diren bi mutil eta hiru neskek adimen-desgaitasun arina dute. Bost ikasle horiek, beharbada (ez dakigu), gaizki diagnostikatuta daude edo “ezkutatze-efektua” gertatu da. Ezkutatze-efektua gertatzen da sindrome edo nahasmendu espezifiko batek pertsona guztia hartzen duenean eta benetan ez dituen ezaugarri eta kondizioak egokitzen zaizkionean. Adimen-atzeratasun arinaren kondizio eta ezaugarriak kontuan hartuta, esan dezakegu bost ikasle horiek ezin izango luketela Batxilergora heldu. Alde horretatik, ez da harritzekoa hainbat sindromedun ikasle batzuk (besteak beste, Down sindromea dutenak), nahiz eta funtzionamendu kognitiboa izatea espero, goiko maila akademikoetara heltzen direla, baita unibertsitatara ere. Horrelakoetan, sindromeak ikaslea artatu zuten profesionalen irizpidean eragin handia izan zuen eta benetan ez duen adimen-atzeratasuna egokitu zioten.

Bestalde, guztiok dakigu diagnostikoak amuak bezalakoak direla: behin pertsona bati egokituz gero, zaila da kentzea. EDUCA erroldaren arabera, DBHko, Batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasle askok haurren nahasmenduak (mututasun selektiboa, haurtzaroko lotura-nahasmendua), hizkuntza-nahasmenduak (nahasmendu fonologikoa...) eta ikaskuntza-nahasmenduak (irakurketa-nahasmendua...) dituzte. Bigarren Hezkuntzako eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapetan, nahasmendu horietatik eratorritako hezkuntza-premiak arindu egin dira, baita desagertu ere. Ordea, ikasurtez ikasurte etiketa bera dute eta erroldan agertzen dira.

HLPBak dituzten pertsonak lanean nola hasten diren eta lanari nola eusten dioten aztertzea.

Desgaitasunak dituzten pertsonen enplegarritasunaren egoera eta bilakaera jasotzen dituzten ikasketa eta estatistika ugari daude; aurreko kapituluan horietako asko jaso ditugu. Ordea, ez dago desgaitasunik ez izan arren hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak lanean nola hasten diren eta lanari nola eusten dioten aztertzen duen ikerketarik.

Nahasmendu batzuek (portararen nahasmendu aztoratzaileak, nortasunaren nahasmenduak eta Asperger, adibidez) egikaritze-zereginetarako (plangintza, ordena, oroimena, aurreikuspena...) eta arauak onartzeko eta betetzeko zailtasun handiak eragiten dituzte. Bi gai horiek funtsezkoak dira enplegua bilatzeko eta, jakina, enpleguari eusteko. Pertsona horiek lan-merkatuan nola sartzen diren, zer lanpostu lortzen dituzten eta lanpostuei nola eusten dioten jakiteko, prozesu horien azterketa sekuentziala egitea komeni da, ikasle horiei titulatu ondoren bizpahiru urtean segimendua eginez.

3.

ONARRIZKO IZENDEGIA

■ **Irisgarritasun unibertsala:** ingurune, prozesu, ondasun, produktu eta zerbitzuek ez ezik objektu, tresna, lanabes eta gailuek bete behar duten baldintza pertsona guztiek seguru eta eroso eta ahalik eta modu autonomo eta naturalean ulertu eta erabiltzeko. «Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua» izan behar dute eta, behar izanez gero, zentzuzko egokitzapenak egin behar dira.

■ **Zentzuzko egokitzapenak:** ingurune fisiko eta soziala eta jarrera-ingurunea desgaitasunak dituzten pertsonen premia berezien arabera aldatzea eta egokitzea, betiere karga neurrigabe edo bidegabera eragiten ez badute, kasu bereziren batean irisgarritasuna eta partaidetza errazteko eta desgaitasunak dituzten pertsonen eskubide guztiak besteen baldintza beretan erabiltzeko.

■ **Enplegu-zentro bereziak:** enplegu babestuaren modalitate bat da, non enpresako langileen % 70ek, gutxienez, desgaitasunak dituen. Langileei lanpostu ordaindu eta produktiboa eskaintzen diete eta desgaitasunak dituzten pertsonen oztupoak gainditzen laguntzeko antolatuta da. Azken helburua desgaitasunak dituzten pertsonak enpresa arruntetan integratzeko zubi izatea da.

■ **Gizarteratze- eta laneratze-zentroak:** merkatuko edozein sektoretan ondasunak ekoizteko edo zerbitzuak emateko jarduera ekonomikoaren helburu sozializat gizarteak baztertuta dauden pertsonak prestatzea eta gizartearen eta lanean integratzea duten enpresak dira; asmoa da pertsona horiek, gero, enplegu arruntak aurkitzea.

■ **Profesionaltasun-ziurtagiria:** Lanbide Prestakuntzen Katalogo Nazionalako (LPKN) lanbide-prestakuntzak lan-administrazioaren esparruan ofizialki egiaztatze tresna da. Inor enplegurako garrantzitsua den lan-jardueraren bat gauzatzeko gai dela eta gaitasun hori

eskuratzeko behar den prestakuntza egin duela ziurtatzen du, Lanbide Heziketako tituluak hezkuntza-arloan egiten duten moduan. Profesionaltasun-ziurtagiri bakoitzak LPKNko lanbide-prestakuntza bat egiaztatzen du.

■ **Lanbide-gaitasuna:** Lanbidean ekoizpen-eta enplegu-betekizunen arabera jarduteko behar diren ezaupide eta gaitasunak. Lanbide-gaitasunak lanbide-prestakuntzen gaitasun-ataletan sartzen dira. Definizio horren ildoan, lanbide-jardueretan ezaupide, abilezia eta jarrerak batera gauzatzeko gaitasuna izatea eskatzen du, laneko ingurune eta egoerei erantzuteko.

■ **Lanbide-prestakuntza:** Enplegurako garrantzitsuenak diren lanbide-gaitasunen multzoa; gaitasun horiek modulu bidezko prestakuntzaren edo beste prestakuntza-mota baten bitartez jaso daitezke, baita lan-espereziaren bidez ere. Lanbide-prestakuntzak Lanbide Prestakuntzen Katalogo Nazionalan daude jasota eta Lanbide Heziketako tituluekin eta profesionaltasun-ziurtagiriekin ziurtatzen dira.

■ **Elkarrizketa zibila:** printzipio horren arabera, desgaitasunak dituzten pertsonak eta haien familiak ordezkatzeko dituzten erakundeek desgaitasunak dituzten pertsonen inguruan antolatzen diren politika ofizialak sortzen, gauzaten, segimendua egiten eta ebaluatzen parte hartzen dute, legeak eta gainerako xedapen normatiboak ezarritako moduan. Politika horiek ziurtatuko dute, betiere, desgaitasunak dituzten haurrek haiei eragiten dieten gaiei buruz duten iritzia libreki adierazteko eskubidea erabiltzea eta eskubide hori erabili ahal izateko haien desgaitasunaren eta adinaren arabera laguntzako jasotzea.

■ **Desgaitasuna:** urritasun seguru asko iraukorrak dituzten pertsonen eta pertsona horiek gizartearen erabat, modu eraginkorrean

eta besteen kondizio beretan parte hartzea mugatzen edo eragozten duten oztipoen arteko elkarrekintzatik eratorritako egoera da.

■ **Zuzeneko diskriminazioa:** desgaitasunak dituzten pertsonen bizi duten egoera, egoera horretan bertan dauden parekoen aldean tratua txarragoa jasotzen dutenean beren desgaitasuna dela eta.

■ **Zeharkako diskriminazioa:** legezko edo arauzko xedapen batek, hitzarmen edo kontraturen batek klausula batek, banako itun batek, alde bakarreko erabaki batek, irizpide edo jardunbide batek, edo ingurune, produktu edo zerbitzu batek, nahiz eta neutroak direlako itxura izan, pertsona bati, besteen aldean, desgaitasunen bat duelako desabantaila eragiten diotenean gertatzen da; hori, betiere, objektiboki bidezko helburu bat ez badute eta helburu hori lortzeko bitartekoak egokiak eta nahitaezkoak ez badira.

■ **Asoziazio bidezko diskriminazioa:** pertsona batek edo pertsona hori dagoen taldeak desgaitasunen bat duen beste pertsona batekin duen harremanagatik diskriminaziozko tratua jasotzen duenean gertatzen da.

■ **Diseinu unibertsala edo guztiontzako diseinua:** pertsona guztiek, ahal den heinean, egokitzen edo diseinu espezializaturik gabe, ingurune, prozesu, ondasun, produktu, zerbitzu, objektu, tresna, programa, gailu eta tresnak sortzea edo diseinatzea da, hasiera-hasieratik, baldin eta posible bada. «Diseinu unibertsal edo guztiontzako diseinua» ez ditu desgaitasunak dituzten pertsona-talde berezietan laguntzeko produktuak baztertu behar, nahitaezkoak badituzte.

■ **Lagundutako enplegua:** enplegu arruntaren modalitate bat da, desgaitasunak eta lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten langileei orientazioko eta bakarkako laguntzako jarduerak eskaintzen dizkiena; jarduera horiek laneko prestatzaile espezializatuek egiten dituzte lantokian bertan.

■ **Enplegu arrunta:** lan-modalitate bat da, non desgaitasunak dituzten pertsonen enpresa arruntetan lan egiten duten. Desgaitasunak dituzten pertsonak ingurune horietan baino ez dira erabat integratzen: desgaitasunik ez duten

lankideekin aritzen eta parekatzen dira eta beren presentzia normalizatu egiten da.

■ **Enplegu babestua:** desgaitasunak dituzten pertsonentzako sortutako lan-modalitate bat da; zehazki, jarduera profesional batean jardun daitezkeen arren, oraindik nekez gaindi ditzaketen eragozpenak dituztelako merkatu arruntetan aritu ezin duten pertsonentzako. Gaur egun, enplegu babestuak bi modalitate ditu: enplegu-zentro bereziak eta lan-guneak.

■ **Lan-guneak:** enplegu babestuaren modalitate honetan, desgaitasunak dituzten EZBetako langileak merkatu “arrunteko” enpresa bateko instalazioetara joaten dira aldi baterako; enpresa horri enpresa kolaboratzaile esan ohi zaio. Horretarako, enpresak eta EZBak kontratu bat sinatzen dute, desgaitasunak dituzten langileek obrak edo zerbitzuak egin ditzaten.

■ **Lanbide-gaitasuna ebaluatzea:** pertsona batek LPKNko lanbide-prestakuntza bateko gaitasun-atal batean ezarritako lanbide-gaitasuna duela egiaztatzea da; prozesu hori GEGko espezifikazioen arabera egituratzen da.

■ **Aukera-berdintasuna:** desgaitasunagatik inor ez diskriminatzea, ez zuenean ez zeharka, eta desgaitasunak dituzten pertsonak ez bereiztea, baztertea edo mugatzea esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilean, lanaren esparruan edo beste edozein arlotan dituzten giza eskubide eta oinarrizko askatasunak aintzatestea, gozatzea edo erabiltzea eragozteko edo asmoarekin. Aukera-berdintasuntzat jotzen da, halaber, jarduera positibo neurriak hartzea.

■ **Gizarteratzea:** printzipio horren bitartez, gizarteak guztien ongiaren eta gizarte-kohesioaren aldeko balioak sustatzen ditu, desgaitasunak dituzten pertsonen politikan, ekonomian, gizartean, hezkuntzan, lanean eta kulturaren erabat parte hartzeko eta besteen pareko bizi-baldintzak izateko aukera eta bitartekoak izan ditzaten.

■ **Jarduera positiboko neurriak:** neurri espezifiko horien helburuak dira desgaitasunak eragiten dituen desabantailak eragozteko edo konpentsatzea, desgaitasunak dituzten pertsonen egitatezko berdintasuna arintzea

edo lortzea, eta pertsona horiek politikan, ekonomian, gizartean, hezkuntzan, lanean eta kulturaren erabat parte har dezaten lortzea; hori, betiere, desgaitasun-mota eta -maila guztiak kontuan hartuta.

■ **Normalizazioa:** printzipio horren arabera, desgaitasunak dituzten pertsonen beste kondizio beretan bizitzeko aukera izan behar dute, hau da, beste eskura dauden toki, esparru, ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko aukera.

■ **Lanbide-profila:** lanpostu baterako egokiak diren ezaupide tekniko, esperientzia eta ezaugarri pertsonalak.

■ **Gazteentzako Berme Plana:** ekimen europar bat da, gazte lan-merkatuan sartzen laguntzea helburu duena. Espainian Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak 2013ko otsailean onarturiko Gazte Ekintzailtzako estrategiaren barruan dago. Gazte Bermeari buruzko gomendioak dio gazteek, ikasketak amaitu edo lanik gabe geratu ondoren, lan-, hezkuntza- edo prestakuntza-eskaintza bat jaso ahal izan behar dutela.

■ **EURES sarea (lan-mugikortasunaren Europako ataria):** sare horren helburua da langileei, enpresei eta Europako Ekonomia Erkidegoko herrialde guztien arteko pertsonen zirkulazio askeaz aprobetxatu nahi duten herritarrei informazio, aholkularitza eta kontratazioko zerbitzuak eskaintzea.

■ **Desgaitasunari buruzko politiken zeharkakotasuna:** printzipio horri jarraikiz, herri-administrazioak ez ditu desgaitasunak dituzten pertsonentzako plan, programa eta jarduerak espezifikoak antolatu eta gauzatu behar; horrez gain, jarduerak publikoaren edozein esparrutako politika eta jarduerak-ildoek desgaitasunak dituzten pertsonen premia eta eskariak barne hartu behar dituzte.

■ **Gaitasun-atala (GA):** Aintzatespen eta akreditazio partziala jaso dezakeen lanbide-gaitasunen gutxieneko multzoa da.

Gaitasun-atalak elementu hauek ditu (1128/2003 EDren 6. artikulua):

- a) Identifikazio-datuak: izena, maila eta egokitutako kodea.
- b) Gauzatutako jarduerak profesionalak, hau da,

pertsonak izatea espero den jarrera ezartzen duten gaitasunaren elementuak, alegia egindako jardueren ondorioak eta emaitzak.

c) Gauzatutako jardueren irizpideak, ekoizpen-erakundeen helburuak betetzen dituen jarduerak profesionalaren maila onargarria adierazten dutenak eta lanbide-gaitasuna ebaluatzeko gida gisa erabiltzen direnak.

d) Ingurune profesionala, honako hauek deskribatzen dituenak, orientatzeko: ekoizpen-baliabideak, lanaren produktu eta emaitzak, erabili edo sortutako informazioa eta jarduerak profesionala kokatzeko nahitaezko zat jotzen diren pareko elementuak.

■ **Bizimodu burujabea:** desgaitasunak dituzten pertsonen beren bizimoduaren gainean erabakiak hartzeko ahalmena erabiltzea eta bere erkidegoko bizitzan modu aktiboan parte hartzea da, nortasunaren garapen askerako eskubidearen arabera.

4.

BIBLIOGRAFIA

Desgaitasuna eta enplegua:

“*Legislación contra la discriminación de las personas con discapacidad. Informe elaborado por el grupo de trabajo para la legislación antidiscriminatoria de las personas con discapacidad del Consejo de Europa*”; con la colaboración de Heinz-Dietrich Steinmeyer. Madrid: Escuela Libre argitaletxea: Fundación ONCE, 2001.

ÁLVAREZ URRICELQUI, MARÍA JESÚS (2009).

La evolución del empleo de las personas con discapacidad intelectual en Navarra (1982-2007). Nafarroako Unibersitate Publikoa.

AZNAR LÓPEZ, MANUEL.

Introducción al empleo público de las personas con discapacidad: una perspectiva comparada. Real Patronato sobre Discapacidad erakundearen aldizkaria, 2000, 46. zk., 7-23.

CALVARRO ARROYO, RAQUEL.

Discapacidad y empleo: Análisis socioeconómico del mercado de trabajo. Trabajo Social Hoy, 2001, 33. zk., 11-21

COLECTIVO LOE (CARLOS PEREDA, MIGUEL ÁNGEL DE PRADA Y WALTER ACTIS) (2003).

La inserción laboral de las personas con discapacidades Fundación La Caixa argitaletxea.

DE MIGUEL BADESA, SARA y CERRILLO MARTÍN, ROSARIO (Coords.).

Formación para la inclusión laboral de personas con discapacidad intelectual. Pirámide argitaletxea. Madril. 2010

ESTEBAN LEGARRETA, RICARDO.

Derecho al trabajo de las personas con discapacidad. Madrid: Real Patronato sobre Discapacidad, 2001.

MARTÍ, RAMIRO; FERNÁNDEZ, SAMUEL; IGLESIAS, TERESA.

Transición escuela-empleo de las personas con discapacidad. Migración eta Gizarte Zerbitzuen Institutua. (2004)

ODISMET. ONCE FUNDAZIOA.

Desgaitasunaren eta lan-merkatuaren Espainiako Behatokia <http://www.odismet.es/>

PARRONDO SOTÉS, L.; ÁLVAREZ

DÍAZ, M.; RODRÍGUEZ GONZÁLEZ, F. *El Programa de Garantía Social: una alternativa de formación para la inserción socio-laboral*. Integración, 2001, n. 37, p. 43-52.

REAL PATRONATO SOBRE DISCAPACIDAD.

Guía de estilo sobre discapacidad para profesionales de los medios de comunicación. (2006)

RODRÍGUEZ ESCANCIANO, SUSANA (2008).

Un paso adelante en la protección de los derechos laborales de las personas con discapacidad: el nuevo sistema de contratación pública. CINCA. CERMI.ES 34. zk.

ENPLEGU SISTEMA NAZIONALA. www.sistemanacionalemplo.es/servicios.html

VILLA FERNÁNDEZ, NURIA (2007). *La inclusión progresiva de las personas con discapacidad intelectual en el mundo laboral (1902-2006)* Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa.

Didaktika eta curriculumaren egokitzapenak

CEREJIDO SAMOS, INMACULADA.

Programa de estrategias básicas del pensamiento. 1ª parte del programa de pensamiento de calidad. Nivel óptimo: Secundaria, F.P. EOS argitaletxea. Madril. 1997.

EDUCACIÓN ONCE.ES.

Guía sobre Tiflotecnología y Tecnología de Apoyo para uso educativo.

GALVE MANZANO, JOSÉ LUIS; LUIS AYALA FLORES, CARLOS.

Orientación y acción tutorial: Educación Infantil, Primaria, Secundaria, Bachillerato y Formación Profesional. CEPE argitaletxea. Madril. 2002.

GAVILÁN BOUZAS, PALOMA;

ALARIO SÁNCHEZ, RAMÓN. *Aprendizaje Cooperativo*. CCS argitaletxea. Madril. 2010

GUTIÉRREZ-CRESPO ORTIZ, ERNESTO.

Aprendiendo a buscar empleo desde el aula: taller de orientación laboral. CCS argitaletxea. 2002

LAFUENTE DE FRUTOS, ÁNGELES;
GUIL TORRES, ROCÍO. MINISTERIO DE
EDUCACIÓN. INSTITUTO DE TECNO-
LOGÍAS EDUCATIVAS.

*Educación Inclusiva. Personas con
discapacidad visual.*

ONRUBIA, JAVIER (coord.),
*Criterios psicopedagógicos y recursos
para atender la diversidad en secun-
daria.* Grao argitaletxea. 2004.

PUJOLAS MASET, PERE.
*Atención a la diversidad y apren-
dizaje cooperativo en la educación
obligatoria.* Aljibe argitaletxea.
Archidona. 2001.

VISO ALONSO, JOSÉ RAMIRO.
Cómo programar las competencias.
EOS argitaletxea. Madril.
2011.

Orientazioko esku-hartze
prozesuak

ERANSKINAK ETA KONTSULTA EGITEKO ESTEKAK

Lanbide Heziketako eta Bigarren
Hezkuntzako ikastetxeetan desgaitasunak
edota hezkuntza-premiak dituzten
ikasleekin esku hartzeko prozesuak.
LZ	<p>Instalazioen muntatze- eta mantentze-lanak programatzea.</p> <p>Instalazioak konfiguratzeko eta dagozkien ekipo eta elementuak aukeratzeko.</p> <p>Eskulanaren, ekipoen eta elementuen kostuak kalkulatzeko.</p> <p>Giza baliabideak eta baliabide materialak kudeatzea.</p> <p>Muntatze- eta mantentze-prozesuak planifikatzea.</p> <p>Muntatze- eta mantentze-prozesuak gainbegiratzea edo gauzatzea.</p>	<p>Matxurak edo disfuntzioak diagnostikatzea eta kokatzea.</p> <p>Mantentze-programak egitea.</p> <p>Funtzionamendu-parametroak kontrolatzea.</p> <p>Eraginkortasun energetikoko irizpideak aplikatzea.</p> <p>Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea.</p> <p>Instalazioa martxan jartzea eta eraginkortasun energetikoko irizpideak aplikatzea.</p> <p>Talde-lana antolatzea eta koordinatzea.</p>
GM	MEKATRONIKA INDUSTRIALA	
GO	Sistema mekatroniko industrialak konfiguratzeko eta optimizatzea, sistema horien muntatze- eta mantentze-lanak planifikatzea, gainbegiratzea eta gauzatzea eta, horretarako, kalitateari, segurtasunari, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumenaren errespetuari buruzko protokoloak betetzea.	
LZ	<p>Sistema mekatronikoen muntatze- eta mantentze-lanak programatzea.</p> <p>Sistema mekatroniko industrialak konfiguratzeko.</p> <p>Sistema mekatronikoen muntatze- eta mantentze-lanak planifikatzea.</p> <p>Muntatze- eta mantentze-prozesuak gainbegiratzea edota gauzatzea.</p> <p>Sistema mekatronikoen funtzionamendu-parametroak gainbegiratzea.</p> <p>Matxurak diagnostikatzea, kokatzea eta konpontzea.</p>	<p>Ekipoak prestatzea.</p> <p>Sistema automatikoak programatzea.</p> <p>Instalazioen abiaraztea gainbegiratzea edo gauzatzea.</p> <p>Dokumentazio tekniko eta administratiboa egitea.</p> <p>Planoak eta eskemak egitea, diseinu-tresna informatikoekin.</p> <p>Talde-lana antolatzea eta koordinatzea.</p>

GM	LANBIDE-ARRISKUEN PREBENTZIOA	
GO	Prebentzioan, babes kolektiboan eta babes pertsonalean parte hartzea, kontrol-neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarri edo egokituz, arriskuak maila onargarrietaraino gutxitzeko, lan-ingurunean segurtasuna eta osasuna hobetze aldera; hori, ezarritako arauen arabera.	
LZ	Ekoizpen-prozesuaren ikuspegi orokor eta integratua. Prebentzioan eskumenak dituzten zerbitzu eta erakundeekin batera lan egitea. Enpresan prebentzioa sustatzea. Jarduera bakoitzaren berezko arriskuak atzematea eta aztertzea. Segurtasun-, higiene- eta ingurumen-arauak zaintzea.	Prebentzio- eta babes-neurriak ezartzea. Norbera babesteko ekipamenduen erabilera kontrolatzea. Arriskuak kontrolatzeko eta gutxitzeko neurriak hartzea. Langileei laneko segurtasunari eta arriskuei buruzko informazioa eta oinarritzko prestakuntza ematea.



LANBIDE-ARLOA: "ZURGINTZA, ALTZARIGINTZA ETA KORTXOA"

GP	Ikusmen funtzionala. Mugimen funtzionala.	Aruak betetzea. Arriskuak saihestea. Segurtasuna. Arreta.
EM	ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA	
GO	Zurgintzako eta altzarigintzako elementuak fabrikatzea eta produktuak mekanizatzea, muntatzea, amaitzea, biltegiatzea eta ematea; eta, prozesu horretan, kalitateari, segurtasunari eta ingurumenaren babesari buruzko espezifikazioak betetzea.	
LZ	Fabrikazio-prozesuak zehaztea eta, horretarako, planoetako informazio teknikoa interpretatzea. Fabrikaziorako makinak eta ekipak prestatzea. Zenbakizko kontrolako (ZKK) makinak prestatzea. Euskarriak prestatzea eta nahasteak aplikatzea. Altzariak eta zurgintzako elementuak muntatzea.	Materialak, osagarriak eta produktuak aukeratzea eta biltzea. Mekanizazioko, muntaketako eta akaberako makina eta ekipoen mantentze-lanak egitea. Norberaren eskumeneko arloan arduraz eta autonomiaz jardutea. Intzidentziak konpontzea eta, horretarako, kausak atzematea. Eraginkorki komunikatzea eta taldean lan egitea.
EM	INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA	
GO	Zurgintzako elementuak, egurrezko egiturak eta altzariak instalatzea eta, horretarako, mekanizate-, muntatze-, doitze- eta akabera-prozesuak gauzatzea; eta, prozesu horietan, kalitateari, segurtasunari eta ingurumenaren babesari buruzko espezifikazioak betetzea.	
LZ	Fabrikazio-prozesuak zehaztea eta, horretarako, plano eta katalogoetako informazio teknikoa interpretatzea. Zurgintzako eta altzarigintzako elementuak ohiko moduan fabrikatzeko makina eta ekipak prestatzea. Instalazioak planifikatzen laguntzea, informazioa bilduz eta dokumentazio teknikoa eginez. Instalazioak birplanteatzea eta, horretarako, dokumentazio teknikoa interpretatzea eta neurri eta mailak egiaztatzea. Muntaketa- eta instalazio-makina eta -ekipoen lehen mailako mantentze-lanak egitea.	Altzariak instalatzea eta, horretarako, elementuak produktuaren eta instalazio-baldintzen arabera muntatzea. Zurgintzako elementuak instalatzea eta, horretarako, produktuaren eta instalazio-baldintzen arabera kokatzea. Egurrezko egiturak instalatzea eta, horretarako, dagozkien elementuak dokumentazio teknikoaren arabera finkatzea. Eraginkorki komunikatzea. Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko protokoloa eta neurriak betetzea.

GM	DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA	
GO	Altzariak eta zurgintzako elementuak diseinatzea, horien ekoizpena eta instalazioa kudeatzea, eta kalitatea zaintzeko, ingurumena babesteko eta laneko arriskuak prebenitzeko sistemen mantentze-lanetan parte hartzea.	
LZ	Zurgintzako eta altzarigintzako produktuen diseinu tekniko egitea. Altzari-hornikuntzako konponbideak proposatzea. Zurgintzako eta altzarigintzako elementuak instalatzeko proiektuak egitea. Lehengaien, produktuen eta osagaien zuzkidura kudeatzea. Fabrikazioa planifikatzea eta kontrolatzea.	Zurgintzako eta altzarigintzako elementuak mekanizatzeko programak egitea. Zurgintzako eta altzari-hornikuntzako elementuen muntaketa koordinatzea eta gainbegiratzea. Egoera, arazo eta gertakariak konpontzea. Lan-taldeak antolatzea eta koordinatzea.



LANBIDE-ARLOA: "KIMIKA"

GP	Ikusmen funtzionala. Ikusmena eta mugimena koordinatzea. Ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazmena. Arreta, oroimena.	Kalkulua eta gaitasun matematikoak. Arriskuak saihestea. Segurtasuna. Arauk betetzea (ordena, garbitasuna...)
EM	KIMIKA-LANTEGIA	
GO	Produktu kimikoak sortzeko eta eraldatzeko prozesuak gauzatzeko eta kontrolatzeko oinarritako jarduerak gauzatzea; sistemak, ekipoak eta zerbitzu lagungarriak erabiltzeko moduan edukitzea; eta prozesuaren aldagaiak kontrolatzea, produktuaren kalitatea ziurtatzeko; eta laneko arriskuak prebenitzeko, segurtasuneko eta ingurumeneko arauak betetzea.	
LZ	Fabrikazio-prozesurako materialak hartzea, banatzea eta biltegitzea. Ekipoen eraginkortasuna egiaztatzea. Prozesu kimikoa gauzatzea eta, horretarako, nahasteak, disoluzioak, bereizketak eta beste eragiketa batzuk egitea. Makina, ekipo eta instalazioak erabiltzea. Prozesua kontrolatzea, aldagaien balioak egiaztatuz.	Produktuaren kalitatea egiaztatzea, oinarritako entseguak eginez. Ekipoak gelditzea, protokolei jarraikiz. Ahalik eta azpiproduktu eta hondakin gutxien sortzea. Trazabilitatea ziurtatzea, erregistroak eginez. Lantokia garbitzea eta txukuntzea. Pertsona arteko komunikazio eraginkorra. Arazoak autonomiaz konpontzea.
GM	KALITATEA AZTERTZEKO ETA KONTROLATZEKO LABORATEGIA	
GO	Laborategiko jarduerak eta laginketa-plana antolatzea eta koordinatzea eta, horretarako, sortzen ari diren eta amaituta dauden gai eta produktuekin entseguak eta analisiak egitea, ikertzeko eta kalitatea kontrolatzeko, laborategiko jardunbide egokiei, laneko segurtasunari eta ingurumenari buruzko arauen arabera, eta lortutako emaitzak interpretatzea.	
LZ	Produktu bakoitza aztertzeke egokiena den teknika aukeratzea. Materialak eta ekipoa dagozkien kondizioetan prestatzea eta mantentzea. Laginketa-plana antolatzea eta lagina hartzea. Lagina prestatzea: laborategiko oinarritako jarduerak. Produktuen ezaugarri fisiko, kimiko eta mikrobiologikoak zehazteko entsegu eta analisiak egitea.	Analisisan lortutako datuak ebaluatzea eta txosten teknikoak egitea. Ingurumena babesteko eta laneko arriskuak prebenitzeko arau eta neurriak betetzen direla ziurtatzea. Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea. Lantokia garbi eta txukun edukitzea. Askotariko lanpostuetara egokitzea. Arazoak konpontzea eta erabakiak hartzea. Taldean eraginkorki lan egitea.

 LANBIDE-ARLOA: "OSASUNA"		
GP	Ikusmen funtzionala. Entzumen funtzionala. Mugimen funtzionala. Pertsona arteko komunikazio arin eta eraginkorra. Arreta, oroimena.	Kalkulua eta gaitasun matematikoak. Arriskuak saihestea. Segurtasuna. Arauk betetzea (ordena, garbitasuna...). Oreka emozionala.
EM	ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK	
GO	Gaixoiari/pazienteari zaintza osagarriak ematea eta bere inguruko osasun-baldintzetan jardutea, erizaintzako talde bateko kide gisa, arreta espezializatuko eta lehen mailako arretako osasun-zentroetan; edo, bestela, osasun-talde bateko kide gisa, jarduera liberaletik eratorritako osasun-laguntzan, dagokion gainbegiratupean.	
LZ	Kontsulta bateko administrazio- eta antolaketa-lanak egitea. Osasun-materiala mantentzea, zaintzea eta garbitzea. Pazientearen eta ingururen higie- eta osasun-kondizioak txukun eta garbi edukitzea. Pazienteei hitzordua ematea eta beren datuak erregistratzea. Erizaintzako zaintza osagarriak aplikatzea.	Oinarrizko teknika hidrotermalak aplikatzea. Lehen mailako arretako teknikak erabiltzea. Botikak ahotik, ipurditik eta modu topikoan ematea. Lan-taldeko kideekin batera lan egitea. Botikak prestatzen parte hartzea.
EM	FARMAZIA ETA PARAFARMAZIA	
GO	Farmazia-produktuak eta antzekoak ematen eta prestatzen laguntzea, parafarmaziako produktuak saltzea, osasuna sustatzea, lan administratiboak egitea biltegia kontrolatzea eta jarduera horietan kalitateari, segurtasunari eta ingurumenaren babesari buruzko espezifikazioak betetzea.	
LZ	Farmaziako eta parafarmaziako produktuen izakinak kontrolatzea eta biltegitratzea. Farmaziako produktuak ematen laguntzea. Parafarmaziako produktuak saltzea. Farmaziako produktuak banatzeko prestatzea. Farmaziako eta parafarmaziako produktuak egiten laguntzea. Fakultatiboari erabiltzailearen farmaziako eta terapiako segimendua egiten laguntzea.	Parametro somatometrikoak eta eta bizi-konstanteen balioak eskuratzea. Kontrol analitikoak egitea, fakultatiboaren gainbegiratupean. Materiala, tresnak, ekipoak eta lantokia zaintzea. Errezeten fakturazioa bideratzea. Lan administratiboak egitea. Larrialdi-egoeretan oinarriko arreta ematea. Hondakinak eta iraungitako produktuak aukeratzea, deuseztatzea.
EM	OSASUN-LARRIALDIK	
GO	Pazientea osasun-zentrorra eramatea, ospitale aurreko ingurunean oinarrizko osasun- eta psikologia-arreta ematea, osasun-arlok telejarduerak egitea eta telelaguntza ematea, eta banako larrialdi, larrialdi kolektibo eta hondamendietarako larrialdi-planak, aurreikusteko moduko arrisku-gailuak eta osasun-logistika antolatzen eta lantzen laguntzea.	
LZ	Pazientea edo biktima ebakutzea, mobilizazio- eta immobilizazio-teknikak erabiliz. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatzea, arnasketakoak eta zirkulaziokoak. Biktimak sailkatzen laguntzea. Mediku eta erizainei bizi-euskarria ematen laguntzea. Pazienteari, senideei eta eragindakoei oinarrizko laguntza psikologikoa ematea. Pazienteen mugikortasun- eta garraio-premiei erantzutea.	Telejarduera eta telelaguntza kudeatzen dituzten zentroek eskatutako osasun-laguntza ematea. Ibilgailu sanitarioa eta bertako elementuak garbitzea eta desinfektatzea. Ibilgailua eta sanitarioak ez diren elementuak erabiltzeko moduan edukitzea. Ekipo medikoen eta baliabide osagarrien oinarrizko funtzionamendua egiaztatzea. Pazienteen edo biktimen osasun-prestazioan eta lekualdatzean laguntzea eta dagozkion protokoloak betetzea. Esku-hartze eremuaren eta koordinazio-zentroaren arteko komunikazioa eraginkorra izatea.

GM	ANATOMIA PATOLOGIKOA ETA ZITODIAGNOSTIKOA	
GO	Lagin histologiko eta zitologikoak prozesatzea, zitologia ginekologiko eta orokorrak aukeratzea eta hurbilketa diagnostikoa egitea, eta nekropsia kliniko eta forentseak egiten laguntzea, diagnostiko kliniko edo mediko-legalaren euskarri izan daitezen; eta, halaber, lana antolatzea eta programatzea eta zerbitzuaren kalitateari eta baliabideak optimizatzeari buruzko irizpideak betetzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.	
LZ	Lan-ingurunea norberaren mailan antolatzea eta kudeatzea. Lagin biologikoak lortzea. Prozesuaren kalitatea eta trazabilitatea ziurtatzea. Ekipoek ongi funtzionatzen dutela egiaztatzea. Lagina aztertzeako moldatzea. Emaitzen koherentzia eta fidagarritasuna ebaluatzea. Análisi genetikoko teknikak erabiltzea.	Lagin zitologiko ginekologiko eta ez-ginekologikoen hurbilketa diagnostikoa egitea. Lagin histologiko eta zitologikoak lantzea eta prozesatzea. Teknika immunohistokimikoak eta biologia molekularrekoak erabiltzea. Nekropsia kliniko edo mediko-legalak egitea. Lan-taldeak antolatzea eta koordinatzea.
GM	AHO-HORTZETAKO HIGIENEA	
GO	Pertsonen eta erkidegoaren aho-hortzetako osasuna sustatzea, jarduera prebentibo, tekniko eta asistentzialen bitartez, odontologoarekin edo mediku estomatologoarekin batera miatzea, ebaluatzea, sustatzea eta teknika odontologikoak erabiltzea barne. Aho-hortzetako osasun-talde bateko kide gisa, kalitateari, segurtasunari eta baliabideak optimizatzeari buruzko irizpide egokiekin jardungo du.	
LZ	Pazienteen fitxak kudeatzea. Arriskuak prebenitzea eta baliabideak optimizatzea. Material suntsikorren, ordezko piezen, ekipoen eta tresnen erosketa, berritzea eta biltegiatzea kudeatzea. Kabineteko instalazio eta ekipoen eraginkortasunak ziurtatzea. Aho-hortzen barrunbearen osasunari eta gaixotasunei buruzko datuak lortzea eta erregistratzea. Prebentzio- eta asistentzia-teknikak erabiltzea, protokoloen arabera.	Hortzen erradiografiak egiten eta teknika erradiologikoak erabiltzen laguntzen. Osasun-heziketako jarduerak diseinatzea eta ezartzea. Tratamendu odontologikoetan babes- edo laguntza-teknikak erabiltzea. Larrialdi-egoeretan oinarritzko bizi-euskarria eskaintzea. Pazienteei/erabiltzaileei psikologikoki laguntzea. Lan-taldeak antolatzea eta koordinatzea.
GM	DIAGNOSI-IRUDIAK ETA MEDIKUNTZA NUKLEARRA	
GO	Giza gorputzaren erregistro grafiko, morfologiko edo funtzionalak egitea, helburu diagnostiko edo terapeutikoekin, fakultatiboaren aginduz eta irudi bidezko diagnostikoak egiteko eta medikuntza nuklearreko ekipoak erabiliz; eta unitatean dagoen bitartean pazienteari arreta ematea, erradiobabeseko, kalitatea ziurtatzeko eta asistentzia-unitatean ezarritako protokoloak aplikatuz.	
LZ	Lantokia antolatzea eta kudeatzea. Irudi normalak eta irudi patologikoak bereitzea. Ekipoek ongi funtzionatzen dutela egiaztatzea. Irudi medikoen kalitatea egiaztatzea. Irudi medikoak ateratzea, X izpien ekipoak eta erresonantzia magnetikoko eta medikuntza nuklearreko tresnak erabiliz, eta ekografiak egiten laguntzea.	Pazientea eroso eta seguru dagoela ziurtatzea. Erradiofarmakoak egitea, segurtasun-baldintza egokietan. Teknika analitiko diagnostikoak erabiltzea. Babes erradiologikoko prozedurak aplikatzea. Lan-taldeak antolatzea eta koordinatzea. Lan egiteko ingurune seguruak sortzea.
GM	LABORATEGI KLINIKO ETA BIOMEDIKOA	
GO	Lagin biologikoen azterketa analitikoak egitea, lanerako protokolo normalizatuei eta kalitatearen, segurtasunaren eta ingurumenaren gaineko arauei jarraikiz, eta emaitza teknikoak baloratzea, gaixotasuna prebenitzeko, diagnostikatzeko, bilakaera kontrolatzeko eta tratatzeko ez ezik, ikertzeko ere balio dezaten; eta hori guztia asistentzia-unitatean ezarritako protokoloei jarraikiz egitea.	
LZ	Lantokia antolatzea eta kudeatzea. Lagin biologikoak lortzea, protokoloaren arabera. Prozesuaren kalitatea eta trazabilitatea ziurtatzea. Ekipoek ongi funtzionatzen dutela egiaztatzea. Lagina aztertzeako moldatzea. Emaitzen koherentzia eta fidagarritasuna ebaluatzea.	Análisi genetikoko teknikak erabiltzea. Parametro biokimikoen zehaztapen analitikoak egitea. Análisi hematologikoko teknikak erabiltzea. Ingurumena eta norbera babesteko arau eta neurriak betetzen direla ziurtatzea. Lan-taldeak antolatzea eta koordinatzea.

GM	HORTZ-PROTESIAK	
GO	Hortz- eta aurpegi-protesiak, ortodontzia-aparatuak eta oklusio-ferulak diseinatzea, fabrikatzea eta konpontzea, fakultatiboaren aginduen eta jarraibideen arabera; protesi, aparatu eta ferula horiek egokitzea, akabera egokia izan dezaten; eta hortz-protesiaren laborategi bat kudeatzea eta produktua merkaturatzeko jarduerak egitea. Hori guztia, betiere, segurtasunaren eta ingurumenaren babesaren gainean indarrean dagoen araudia eta kalitatearen espezifikazioak aintzat hartuta.	
LZ	<p>Establezimenduaren zerbitzuak planifikatzea. Dokumentazio administratibo eta sanitarioa kudeatzea.</p> <p>Material, ekipo eta tresnen erosketak, biltegiatzea eta berritzea kudeatzea.</p> <p>Hortz- eta aurpegi-protesiak, ortodontzia-aparatuak eta oklusio-ferulak diseinatzea.</p> <p>Ekipoak eta materialak prestatzea.</p>	<p>Hortz- eta aurpegi-protesiak, ortodontzia-aparatuak eta oklusio-ferulak sortzea eta fabrikatzea.</p> <p>Protesi-produktuen, ortodontzia-aparatuaren eta oklusio-ferulen elementuak egiaztatzea.</p> <p>Hortz- eta aurpegi-protesiak, ortodontzia-aparatuak eta oklusio-ferulak konpontzea.</p> <p>Nola erabili eta zaindu azaltzea.</p> <p>Lan-taldeak antolatzea eta koordinatzea.</p>

		
LANBIDE-ARLOA: "SEGURTASUNA ETA INGURUMENA"		
GP	<p>Ikusmen funtzionala.</p> <p>Entzumen funtzionala.</p> <p>Mugimen funtzionala.</p> <p>Pertsona arteko komunikazio arina.</p>	<p>Arriskuak saihestea. Segurtasuna.</p> <p>Arauk betetzea (ordena, garbitasuna...).</p> <p>Oreka emozionala. Arreta. Memoria.</p>
GM	INGURUMEN-HEZKUNTZA ETA -KONTROLA	
GO	Biztanleria sentsibilizatzea eta hezteak eta, horretarako, ingurumena zaintzen eta hobetzen laguntzen duten jarrerak sustatzea, ingurumenaren balio eta arazoak berri ematea, erabakiak egoki hartzeko gaitzea, ingurumena ezagutzen eta iraunkortasun-printzipioei jarraituz erabiltzen erakusteko jarduerak diseinatzea eta ingurumena kudeatzeko ekintzak gauzatzea, ingurumena araudia aplikatuz kontrolatzeko eta babesteko.	
LZ	<p>Dokumentazioa biltzea eta aukeratzea, ingurumenari buruzko informazioa zabaltzeko.</p> <p>Ingurumenari buruzko informazioa ematea, komunikazio-teknika egokiak erabiliz.</p> <p>Ingurumen-hezkuntzako jarduerak diseinatzea.</p> <p>Ingurumen-hezkuntzako programa eta proiektuak lantzea.</p> <p>Ingurumen-hezkuntzako programak ebaluatzea.</p> <p>Bisitariak ingurunean gidatzea eta ezagutzeko jarduerak egitea.</p> <p>Ibilaldietako gertakariak konpontzea, ezarritako protokoloak aplikatuz.</p>	<p>Ingurumen-arazoak karakterizatzea eta konponbide iraunkorrak proposatzea.</p> <p>Erabilera publikoko jarduerak kudeatzea, ingurumena zaintzearekin bat datozen irizpideak aplikatuz.</p> <p>Natura-eremuak zaintzeko eta kontrolatzeko lanak egitea.</p> <p>Natura-ingurunearen ondarearen balioak sustatzea, natura ezagutzeko jarduerak gauzatuz.</p> <p>Natura-ingurunean hainbat jarduerak egiteko kartografia-produktuak sortzea.</p> <p>Ingurune bateko habitata kontrolatzeko lanak egitea eta aldaketan berri ematea.</p> <p>Lan-taldeak koordinatzea.</p>



LANBIDE-ARLOA: "GIZARTE- ETA KULTURA-ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKOAK"

GP	Ikusmen funtzionala. Mugimen funtzionala. Entzumen funtzionala. Pertsona arteko komunikazio arina.	Arriskuak saihestea. Segurtasuna. Arauak betetzea. Oreka emozionala. Arreta. Memoria.
EM	MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONEI ARRETA EMATEA	
GO	Mendekotasuna duten pertsonen (MDP) arreta ematea, etxean eta erakundeetan, haien bizi-kalitateari eusteko eta hobetzeko, eta, horretarako, jardura asistentzialak egitea, ez-sanitarioak, psikosozialak eta etxean moldatzen laguntzekoak, eta, behar denean, beste zerbitzu batzuetara bideratzea. Hori, betiere, prebentzioko eta segurtasuneko neurri eta arauak aintzat hartuta.	
LZ	MDPen premia asistentzial eta psikosozialak zehaztea. MDPei arreta emateko jarduerak antolatzea. MDPen higieena zaintzeko eta janzteko lanak egitea. Elikaduraren inguruko esku-hartzea antolatzea. Bizikidetzaren unitateko oinarriko dokumentazioa eta aurrekontua kudeatzea. Etxea zaintzeko eta garbitzeko lanak egitea. MDPen egoera fisikoarekin zerikusia duten esku-hartzeak egitea.	MDPak lekuz aldatzea, mobilizatzea eta mugitzen laguntzea. Prebentzio- eta segurtasun-neurriak aplikatzea. Larrialdi- eta arrisku-egoerei erantzuna ematea. Psikosozialki laguntzea, laguntza teknikoak, komunikatzeko laguntzak eta IKTak erabiliz. Laguntzeko eta asistentzia pertsonaleko lanak egitea. Autonomia pertsonal eta sozialeko abileziak mantentzeko eta lantzeko teknika eta estrategiak aplikatzea. Telelaguntza-zerbitzuan sartzen eta irteten diren deiak kudeatzea.
GM	ANIMAZIO SOZIOKULTURAL ETA TURISTIKOA	
GO	Animazio soziokultural eta turistikoko esku-hartzeak programatzea, antolatzea, ezartzea eta ebaluatzea; hartzailen pertsona eta taldeen partaidetza aktiboa sustatzea; eta norberaren ardurapean dauden profesional eta boluntarioen jarduerak koordinatzea.	
LZ	Esku-hartze soziokulturala premiei egokitzeko informazioa lortzea. Esku-hartze soziokulturaleko proiektuak egitea. Esku-hartze soziokulturaleko proiektuen ezarpena zuzentzea. Esku-hartze proiektuak sustatzeko eta hedatzeko gune, estrategia eta materialak diseinatzea. Animazio soziokultural eta turistikoko sail, programa eta jarduerak antolatzea.	Jolas-, kultura-, gorputz- eta olgeta-jarduerak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea. Taldea eta elkarteetako laguntza tekniko, dokumental eta logistikoa ematea. Gazte-informazioko zerbitzuak antolatzea eta kudeatzea. Jarduerak diseinatzea, aplikatzea eta ebaluatzea. Eskari, iradokizun eta erreklamazioak erantzutea. Lan-taldeak antolatzea eta koordinatzea. Begurale-taldeak sortzea, dinamizatzea eta gain-begiratzea.
GM	HAUR HEZKUNTZA	
GO	Haur Hezkuntzako lehen zikloan hurrei arreta emateko hezkuntza-proiektu eta -programak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea esparru formalean, Haur Hezkuntzan espezializatuta dagoen edo gradu-titulua baliokideren bat duen irakasle batek egindako proposamen pedagogikoaren arabera, eta etapa osoan esparru ez-formalean; eta ingurune seguruak sortzea, beste profesional batzuekin eta familiarekin elkarlanean.	
LZ	Haur Hezkuntzako hezkuntzako esku-hartzeak eta gizarte-arreta programatzea. Jardura gauzatzeko baliabideak antolatzea. Programatutako jarduerak gauzatea. Familiarekin aritzeko estrategiak diseinatzea eta aplikatzea. Haur Hezkuntzaren erantzutea. Haur txikiak segurtasunez eskuztatzea.	Ustekabeko gertakariari aurre egitean segurtasuna eta konfiantza erakustea. Esku-hartze prozesua eta emaitzak ebaluatzea. Autonomiaz eta aurrea hartuz jardutea. Haur Hezkuntzaren, haien familiarekin eta lan-taldearekin harreman onak izatea. Ingurune seguruak sortzea.

GM	GIZARTERATZEA	
GO	Gizarteratzeko esku-hartzeak programatzea, antolatzea, ezartzea eta ebaluatzea eta, horretarako, estrategia eta teknika espezifikoak aplikatzea, aukera-berdintasuna sustatzea, hartzailak uneoro errespetatzea eta hartzailentzat zein profesionalentzat ingurune seguruak sortzea.	
LZ	Gizarteratze-proiektuak egitea. Gizarteratze-proiektuen ezarpena zuzentzea. Behar diren administrazio-jarduerak egitea. Gizarteratze-jarduerak programatzea. Etxeo indarkeria prebenitzeko jarduerak diseinatzea eta gauzatzea. Premia fisiko eta psikosozialei arreta emateko jarduerak diseinatzea. Etxea kudeatzen laguntzeko jarduerak antolatzea.	Laguntza psikosozialeko jarduerak antolatzea eta gauzatzea. HLPBak dituzten ikasleekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko jarduerak diseinatzea eta gauzatzea. Lanean txertatzeko eta lanerako prestatzeko programak antolatzea eta ezartzea. Komunikatzeko abileziak trebatzea. Pertsona eta taldeen arteko bitartekaritza-lanak egitea. Erabiltzaileekin eta haien familiekin harreman onak izatea.



LANBIDE-ARLOA:GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK

GP	Ikusmen funtzionala. Entzumen funtzionala. Mugimen funtzionala.	Arriskuak saihestea. Segurtasuna. Arauk betetzea. Arreta. Memoria.
EM	KARROZERIA	
GO	Ibilgailua konpontzeko eta eraldatzeko eta osagarriak muntatzeko lanak egitea arlo hauetan: karrozeria, txasisa, kabina, ekipoak eta tresnak. Halaber, ezarritako prozedura eta aldiak ez ezik kalitateari, segurtasunari eta ingurumenaren babesari buruzko espezifikazioak betetzea.	
LZ	Konpontzeko prozesuak zehaztea eta, horretarako, informazio teknikoa interpretatzea. Ibilgailuen egituraren deformazioak atzematea eta diagnostikatzea. Karrozериako elementuak berritzea eta doitzea. Elementu metaliko eta sintetikoak konpontzea. Elementuak berritzea eta lotura finkoekin doitzea. Gainazalak prestatzea, babestea eta edertzea.	Egiturazko elementu finkoen deformazioak konpontzea. Esku-hartzeen emaitzak egiaztatzea. Makina eta ekipoen mantentze-lanak egitea. Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzea. Enpresaren helburuak betetzea. Arazoak konpontzea eta bakarkako erabakiak hartzea.
EM	IBILGAILU AUTOMOBILEN ELEKTROMEKANIKA	
GO	Mantentze-lanak, osagarriak muntatzeko lanak eta eraldaketak egitea automobilgintza-sektoreko arlo hauetan: mekanika, hidraulika, pneumatika eta elektrizitatea. Halaber, ezarritako prozedura eta aldiak ez ezik kalitateari, segurtasunari eta ingurumenaren babesari buruzko espezifikazioak betetzea.	
LZ	Konpontzeko prozesuak zehaztea eta, horretarako, informazio teknikoa interpretatzea. Sistema mekaniko, hidrauliko, pneumatiko, elektriko eta elektronikoetan matxurak atzematea. Motor termikoa eta dagozkien sistema osagarriak konpontzea. Sistema elektriko eta elektronikoaren multzo, azpimultzo eta elementuak konpontzea.	Esekidurako eta direkzioko elementuak berritzea eta doitzea. Indarren transmisio-sistemak eta freno-sistema konpontzea. Esku-hartzeen emaitzak egiaztatzea. Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko prozedurak aplikatzea. Enpresaren helburuak betetzea. Arazoak konpontzea eta bakarkako erabakiak hartzea.

GM	AUTOMOBILGINTZA	
GO	Automobilgintzaren sektoreko mantentze- eta logistika-lanak antolatzea, programatzea eta gainbegiratzea, kasu zailetan matxurak diagnostikatzea eta araudiak eta ibilgailuaren fabrikatzaileak ezarritako espezifikazioak betetzea.	
LZ	Ibilgailuen matxurak diagnostikatzea. Karrozeriaren eta elektromekanikaren alorrean tasazioak eta aurrekontuak egitea. Lantegiko eta mantentze-prozesuak planifikatzea. Ibilgailuen ordezkotako piezen arloa kudeatzea. Flota handien mantentze-lana programatzea.	Instalazio eta ekipoen mantentze-programak antolatzea. Ibilgailuen mantentze-lantegiak administratzea eta kudeatzea. Lantokian garbiketa eta ordena kudeatzea. Berritzeko eta eguneratzeko gogoari eustea. Lan-taldeak antolatzea eta koordinatzea.



ARTE PLASTIKO ETA DISEINUKO HEZIKETA-ZIKLOAK

GP	Ikusmen funtzionala. Ikusmena eta mugimena koordinatzea.	Arreta. Memoria.
EM	PRODUKTU GRAFIKO INPRIMATUEKIN LAGUNTZA	
GO	Ekoizpen grafikoko prozesuan laguntzea, estilo- eta teknika-jarraibideen arabera. Jasotzen den proiektuaren informazioa interpretatzea eta produktu grafikoaren argibide tekniko eta tipologikoak gauzatzea. Jatorrizko testuak transkribatzea, banatzea, egokitzea eta estilo-jarraibideen arabera konposatzea. Irudiak aukeratzea, egokitzea, prestatzea eta maketatzea, diseinu-espezifikazioei jarraikiz eta inprimatze-prozesuaren baldintzatzaile teknikoaren arabera. Informazio teknikoa eta, behar izanez gero, produktu grafikoak inprimatzeko behar diren fitxategi informatikoak egikaritzea, normalizatzea eta bateragarri egitea.	
LZ	Ekipamendu informatikoa erabiltzea eta programa espezifikoko menderatzea. Zirriborroak eta maketak egitea. Jatorrizkoak inprimatzeko prestatzea. Testuak, marrazkiak eta irudiak maketatzea, editatzeko eta tratatzeko programak erabiltzea.	Informazioa antolatzea, banatzea eta biltegitzea. Inprimaketa-aurreko, inprimaketako eta inprimaketa-osteko prozeduretan laguntzea. Testuak eta irudiak maketatzea. Testu eta irudiak lortzea, zuzentzea, transkribatzea eta digitalki tratatzea.
EM	PRODUKTU GRAFIKO INTERAKTIBOekin LAGUNTZA (curriculum zehazteko dago)	
GO	(Curriculum ofiziala ezartzeko dago.)	
LZ	(Curriculum ofiziala ezartzeko dago.)	(Curriculum ofiziala ezartzeko dago.)
GM	ARGAZKIGINTZA	
GO	Argazki originalak egitea, enkargu profesional bat betetzeko edo norberaren proiektu baterako. Argazkigintza-proiektuaren aldagai formal, funtzional, estetiko eta teknikoak zehaztea, eta prozesua planifikatzea eta gauzatzea. Proiektuaren faseak eta kalitate-kontrolak antolatzea eta gauzatzea, argazkiak eskatzen diren parametro profesionalekin bat etor daitezkeen.	
LZ	Erreferentziazko dokumentu eta materialak aukeratzea eta aztertzea. Gaiaren, estiloaren eta komunikazioaren ezaugarriak zehaztea. Ideiak eta konponbide fotografikoak proposatzea. Argazkia elementu limurtzaile, informatibo edota identifikagarri hornitzea.	Agindutako argazkiak egitea. Argazkigintzako teknika eta formatuak menderatzea. Argazkiak egiteko prozesuaren etapa guztiak betetzea. Argazkiak artxibatzea, indexatzea eta berreskuratzea. Argazkigintzarako materiala zaintzea.

GM	IKUS-ENTZUNEZKO GRAFIKOAK	
GO	Nahi den mezua eraginkorki komunikatzen duten eta kalitate teknikoak duten ikus-entzunezko proiektuak asmatzea, planifikatzea, antolatzea eta gauzatzea, eta, horretarako, irudia, tipografia, efektu bisualak eta ikus-entzunezko baliabide eta joera guztiak erabiltzea.	
LZ	Ikus-entzunezko lengoaiaren bitartez ideia eta mezua eraginkorki komunikatzea. Ikus-entzunezko produktu grafikoak planifikatzea eta profesionalen mailako kalitatearekin gauzatzea. Ikus-entzunezko produktua elementu limurtzaile, informatibo edota identifikagarri egokiz hornitzea. Ikus-entzunezko proiektu grafikoaren fase guztiak gauzatzea.	Helburuaren arabera ikus-entzunezko baliabide egokienak aukeratzea eta erabiltzea. Egoera desberdinetarako hainbat konponbide proposatzea. Ekoizpeneko eta ekoizpen-osteko prozesuak kalitateaz gauzatzea. Benetako agertokiak diseinatzea eta konposatzea, soinu, argi eta antzezleekin.



LANBIDE-ARLOA: "ESKULTURAK EGITEKO ARTE APLIKATUAK"

GP	Ikusmen funtzionala. Ikusmena eta mugimena koordinatzea. Arreta, oroimena.	Arriskuak saihestea. Segurtasuna.
GM	EBANISTERIA ARTISTIKOA	
GO	Jasotzen diren proiektuetako informazioa zehatz-mehatz eta sentsibilitate artistiko eta plastikoaren interpretatzea. Jarduerari dagozkion makina, erreminta eta tresnei buruzko informazio tekniko guztia ezagutzea eta erabiltzea. Piezak eta laneko prozesuak bakarka edo taldean egitea, proiektuaren plano, diseinu edo krokisen espezifikazioen arabera eta dagozkion teknika eta tresna automatiko edo eskuzkoak erabiliz. Goi-mailako teknikariek koordinatutako lan-taldeetan aritzea, proiektuak gauzatzeko prozesu, teknika eta tresna egokienak zehazteko eta gauzatzeko. Teknologia tradizionalak ez ezik gaur egungoak ere ezagutzea, prozedura berrietara etengabe egokitzen joateko.	
LZ	Proiektuak gauzatzeko material egokienak ezagutzea eta aukeratzea. Proiektu bat gauzatzeko behar diren erreminta, makina edo tresnak prestatzea. Gauzatze-prozesuan piezak egiaztatzea, muntatzea eta azken erreparatzea ematea.	Akabera egokia izan dadin, behar adina patina eta estaldura aplikatzea. Makina, tresna eta erremintak zaintzea eta konpontzea.
GM	ESKULTURAKO TEKNIKAK	
GO	Eskultura-lan originalak eta balio estetiko handiko objektu erabilgarriak egitea, kalitate tekniko eta artistikokoak, norberaren proiektuak edo agindu profesionalak betetzeko. Eskultura-lanak eta balio estetiko handiko objektu erabilgarriak nola egin planifikatzea eta, horretarako, alderdi estetiko, formal, funtzional, material eta ekoizpenekoak zehaztea. Prozesuaren faseak antolatzea eta gauzatzea eta, halaber, jardueren segurtasuna ziurtatzea eta dagozkion kalitate-kontrolak egitea, produktua lortu arte.	
LZ	Proiektuen ezaugarri formal, funtzional, tekniko, material eta estetikoak zehaztea. Planoak, zirriborroak eta marrazkiak egitea, kolore-teknikekin, eta baita maketa eta modeloak ere. Eskultura- edo apaindura-lanak egiteko prozesuak antolatzea eta gauzatzea. Harriarekin, egurrekin eta metalarekin eskulturak egiteko teknika nagusiak ezagutzea eta erabiltzea.	Kalitate-kontrolak egitea. Material egokienak ezagutzea, aukeratzea, prestatzea eta erabiltzea. Tresna, ekipo, erreminta eta makinaren espezifikazio teknikak ezagutzea. Moldatzeko teknika nagusiak ezagutzea eta erabiltzea. Kontsumoak zenbatzea eta bolumenak eta desmuntatzeak kalkulatzeko.



LANBIDE-ARLOA: "LIBURUAK EGITEKO ARTE APLIKATUAK"

GP	Ikusmen funtzionala. Ikusmena eta mugimena koordinatzea.	Arreta. Memoria.
GM	GRABATUAK ETA ESTANPAZIO-TEKNIKAK	
GO	Obra grafikoak editatzea, liburuak ilustratzea eta bibliofilia.	
LZ	Norberaren matrize xilografiko, kalkografiko, litografiko eta serigrafikoak egitea. Beste artista batzuekin batera matrizeak egitea eta laguntzea. Beste artista batzuen obra grafikoak estanpatzea.	Lantegia antolatzea eta makinak eta tresnak zaintzea. Estanpen txostenak eta aintzatespenak egitea. Lanaren alderdi tekniko eta ekonomikoak baloratzea.



LANBIDE-ARLOA: "BARNE-DISEINUA"

GP	Ikusmen funtzionala. Ikusmena eta mugimena koordinatzea.	Pertsona arteko komunikazio arina eta eraginkorra. Arreta. Memoria.
GM	DEKORAZIO-PROIEKTUAK EGITEA ETA DEKORAZIO-LANAK ZUZENTzea	
GO	Interiorismoko maila honetako obrak kudeatzea, koordinatzea eta zuzentzea eta goi-mailakoek egindako proiektuak gauzatzea, kudeatzea eta koordinatzea. Lan teknikoak eta proiektuak gauzatzen lan egiten duten beste lanbide batzuetako langileenak koordinatzea.	
LZ	Dekorazioko obra-proiektuak lantzea eta zuzentzea. Formak, materialak eta sortze-prozesuak aztertzea. Dokumentazio espezifikoak aztertzea eta egitea. Proiektuaren adierazpen grafikoak egitea, taldean edo bakarka. Balorazioak eta txostenak egitea.	Proiektuak ebaztea, jasotako datu edo elementuak oinarritzat hartuta. Lan teknikoak eta beste lanbideetako langileenak koordinatzea. Lanen egikaritzea zuzentzea. Materialen eta akaberen kalitatea baloratzea eta alderatzea.



LANBIDE-ARLOA: "INDUSTRIA-DISEINUA"

GP	Ikusmen funtzionala. Ikusmena eta mugimena koordinatzea.	Arreta. Memoria.
GM	ALTZARIAK DISEINATzea. EKODISEINUA - ALTZARIGINTZAKO TITULU OFIZIALA	
GO	Altzariak diseinatzea, sortzea, ekoiztea eta merkaturatzea eta altzari tradizionalen mantentze- eta kontserbazio-lanak egitea.	
LZ	Altzarien diseinu-ideia berriak eskaintzea. Ekoizpen-prozesuan arazo zehatzak konpontzea. Kudeatzeko eta koordinatzeko moduko talde-lan, azterlan eta lantegiak egitea.	Altzari tradizionalen mantentze-lanak egitea, teknikari eta kontserbazioari dagokionez, eta modelo historikoak kopiatzea. Altzarien diseinu berriak sortzea. Prototipoak egitea.

J1 ERANSKINA

Zentzumen-desgaitasuna duten ikasleak curriculumera sartzeko egokitzapenen adibidea

Jarraibideak

Ikasleari metodologia nola egokituko den, irakasleek laguntzeko zer ahalegin egingo dituzten eta zer laguntza jasoko dituen azaltzea.

Familiari curriculuma egokitu zaiola eta irakaskuntzan eta ebaluazioan egokitzapenak egingo zaiokiola jakinaraztea.

Tutore diren irakasleek curriculumaren egokitzapena eskura izatea eta irakasle-taldeari jakinaraztea egokitzapena zertan den eta ikasgeletan zer doitze egin behar dituzten.

Ikasgaien irakasleek curriculumaren egokitzapenean adierazitako elementuak kontuan hartzea, mar-txan jartzea eta eraginkortasuna aztertzea.

Ikasgaien irakasleek egoki iritzitako oharrak egitea.

IKASLEA

TALDEA/IKASGELA

TUTOREA

EGOKITZAPEN OROKORRAK.ALDATU BEHARREKO ELEMENTUAK

Ikaslea beren zailtasunak konpentsatzeko moduko lekuan kokatzea.

- Arbeletik gertu/urrun.Distirarik gabe.Leihoetatik gertu/urrun.Ikasgelaren eskuineko/ezkerreko aldean. Irakasletik gertu/urrun.
- Materiala eskuratu ahal izateko moduan.

Ikasleari behar duten ekipamendu tekniko espezifikoa ematea:material teknikoa, ikusmen-urritasuna duten ikasleentzat (Perkins makina, Braille N Print...)eta entzumen-urritasuna dutenentzat (begizta, FM...).

Ikasleari material espezifikoa ematea (erliebean lan egiteko orri plastifikatuak, ahozko liburuak, komunikatzeko taula edo txartelak, software espezifikoa eta abar).

Ikasgelan erabiltzen diren ohiko idatzizko materialak egokitzea, ikusmen-desgaitasuna duten ikasleek erabil ditzaten (aurkezpena aldatzea, edukia aldatzea...).

Ikasgelan ahotza zabaltzeko eta zaratak eta interferentziak kentzeko sistemak erabiltzea.

Ikusmen- edo entzumen-gaitasuna egoki estimulatzea, ahalik eta modu eraginkorrean funtziona dezan.

Argi- eta soinu-baldintza egokiak eskaintzea.

Ikaskuntza ahalbidetzeko edo errazteko teknika, tresna eta materialak eskaintzea (atrila, mahai eraisgarria, lupak, bozgorailuak...).

Daukaten ikusmen- edo entzumen-hondarra era guztietako lanetan etengabe erabiltzea.

Lanak egiteko edo xehetasunak hautemateko ikusmen/entzumen normala dutenei normalean ematen zaien baino denbora gehiago ematea.

Egin beharreko lanak edo hauteman beharreko kontuak berriz azaltzea, ulertutzat ez jotzea.

Behar dituen arloetan material espezifikoa edo egokituak erabiltzea (gorputz-hezkuntza, musika, laborategia...).

MATERIALAK EGOKITZEA

Idatzizko eta ahozko argibideak sinplifikatzea.

Testuen zati garrantzitsuenak aurretik azpimarratzea.

Testuak zati txikiagotan zatitzea edo, informazioa errepikatzen bada, zati batzuk kentzea.

Ikaslearen liburuan informazio garrantzitsuena eta funtsezko informazioa errotuladore fluoreszentearekin markatzea.

Atal eta moduluetan agertzen diren hitz berriekin glosario bat egitea.

Gaia azaldu aurretik, ikasleari edukiaren eskemak ematea (mapa kontzeptualak...).

Gaiak grabagailu batekin grabatzea eta ikaslearen eskura jartzea.

Ikasgelan ikusitako ikus-entzunezkoen kopia bat egitea ikaslearentzat.

METODOLOGIA EGOKITZEA

Ikaslea uneoro lana ulertzen ari dela ziurtatzea.

Pausoz pausoko argibideak erabiltzea. Lana pauso sekuentzian aurkeztea.

Hitzeko eta ikusizko informazioa ematea aldi berean. Gaia aurkezteko irudiak, Power Pointeko aurkezpenak, DVDak eta abar erabiltzea.

Gaiari buruzko atal eta hitz garrantzitsuenak arbelean idaztea, azalpenak eman aurretik.

Bikoteka edo talde txikitik elkarrekin ikasteko teknikak erabiltzea.

Tutore-irakaskuntza erabiltzea. Maila desberdinetako ikasleak elkartzea jarduerak errepasatzeko, azterketak prestatzeko...

Laguntzeko materiala erabiltzen uztea: abakoak, maketak, biderkatzeko taulak, kalkulagailua...

Alderdi garrantzitsuenak azpimarratzeko seinaleak erabiltzea: galderak edo ebaluaziorako garrantzitsuenak diren jarduerak nabarmentzeko, adibidez, izartxoak.

Jarduera gehigarriak ematea.

EBALUAZIOA EGOKITZEA

Ebaluazio ikaslearen ezaugarrien arabera egokitzea: ahozko azterketa, test moduko azterketa, azterketa material osagarriekin egitea (abakoa, kalkulagailua...).

Lanak eta azterketak egiteko denbora gehiago ematea.

Idatzizko materiala irudiekin laguntzea.

Erantzunen edukia baloratzea, eta ez ortografia edo testuaren osaera.

Galderak gainbegiratzea, jakiteko galdera ulertu ez duelako huts egin duen.

Azterketako galderak bakarka irakurtzea.

J2 ERANSKINA

Arreta-defizitaren nahasmendua (hiperaktibitatearekin edo gabe) eta ikaskuntzaren nahasmenduak dituzten ikasleentzako oso garrantzitsuak ez diren curriculum-egokitzapenen adibidea

Jarraibideak

Ikasleari metodologia nola egokituko den, irakasleek laguntzeko zer ahalegin egingo dituzten eta zer laguntza jasoko dituen azaltzea.

Familiari curriculum-a egokitu zaiola eta irakaskuntzan eta ebaluazioan egokitzapenak egingo zaizkiola jakinaraztea.

Tutore diren irakasleek curriculumaren egokitzapena eskura izatea eta irakasle-taldeari jakinaraztea egokitzapena zertan den eta ikasgeletan zer doitze egin behar dituzten.

Ikasgaien irakasleek curriculumaren egokitzapenean adierazitako elementuak kontuan hartzea, mar-txan jartzea eta eraginkortasuna aztertzea.

Ikasgaien irakasleek egoki iritzitako oharrak egitea.

IKASLEA

TALDEA/IKASGELA

TUTOREA

MATERIALAK EGOKITZEA

Idatzizko argibideak sinplifikatzea.

Testuen zati garrantzitsuenak aurretik azpimarratzea.

Testuak zati txikiagotan zatitzea edo, ezinbestekoak ez badira, zati batzuk kentzea.

Ikaslearen liburuan informazio garrantzitsuena eta funtsezko informazioa errotuladore fluoreszentearekin markatzea.

Gaia azaldu aurretik, ikasleari eskemak ematea.

Azalpenak emateko arbelean eskema bisual bat egitea.

Ikasgelan ikusitako ikus-entzunezkoen kopia bat egitea ikaslearentzat.

Lanak egiteko ereduak eskaintzea (ikaskuntza bikarioa).

Ikasteko edukiaren praktika gidatua egiteko denbora nahikoa ematea.

Dispensar un mayor tiempo en la realización de tareas o en la percepción de detalles que el que se destina normalmente a los sujetos de visión/audición normal.

Explicar otra vez las tareas a realizar, o los aspectos a percibir, no dándolos por sobreentendidos.

Utilizar los materiales específicos o adaptados en las áreas que lo precise (Educación Física, Música, laboratorio...).

METODOLOGIA EGOKITZEA
Ikaslea uneoro lana ulertzen ari dela ziurtatzea.
Pausoz pausoko argibideak erabiltzea. Lana pauso sekuentzialetan aurkeztea.
Gaiari buruzko atal eta hitz garrantzitsuenak arbelean idaztea, azalpenak eman aurretik.
Bikoteka edo talde txikitan elkarrekin ikasteko teknikak erabiltzea (ikaskideak aukeratzea eta trebatzea).
Ikaslea irakasletik gertu jartzea.
Azalpenetan irakaslearen laguntzaile gisa parte hartzea (faseak eta eskemako gai garrantzitsuenak adieraztea, egindakoa ezabatzea...).
Alderdi garrantzitsuenak azpimarratzeko seinaleak erabiltzea: galderak edo ebaluaziorako garrantzitsuenak diren jarduerak nabarmentzeko, adibidez, izartxoak.
Ongi egin dituen lanak gainerako ikasleei erakustea, autoestimua hobetzeko.
Tutore-irakaskuntza erabiltzea. Maila desberdinetako ikasleak elkartzea jarduerak errepasatzeko, azterketak prestatzeko...
Jarduera gehigarri eta osagarriak eta berrindartzeko jarduerak ematea.
Explicar otra vez las tareas a realizar, o los aspectos a percibir, no dándolos por sobreentendidos.
Utilizar los materiales específicos o adaptados en las áreas que lo precise (Educación Física, Música, laboratorio...).

EBALUAZIOA EGOKITZEA
Azterketak eta probak formatu eta adierazpide desberdinekin diseinatzea (ahozkoak, idatzizkoak, laburrak, sekuentziazkoak, test modukoak...).
Laguntzeko materialak eta material osagarriak ematea: <ul style="list-style-type: none"> • Formulak, ortografiako arauak... • Eskemak edo ariketa bat nola egiten den zerrendatzen duten gidoiak. • Ikusizko laguntza (marrazkiak, piktogramak edo benetako irudiak). • Maketak, biderkatzeko taulak, kalkulagailua...
Azterketako galderak aurretik irakurtzea eta ulertu dituela ziurtatzea.
Azterketa nola egiten duen gainbegiratzea, animatzea eta zertxobait laguntzea.
Probak eta azterketak egiteko denbora gehiago ematea.
Berrikusi ondoren, azterketak errepikatzea (teknika horren bitartez gehiago ikasten da).
Zuzenketak ikaslearen aurrean egitea eta, ahal izanez gero, osa ditzan eskatzea.
Material bereziak edo egokituak erabiltzea behar dituen arloetan (Gorputz Hezkuntza, Musika, Laborategia...).

J3 ERANSKINA

Mugimen-desgaitasun dela eta hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleentzako oso garrantzitsuak ez diren curriculum-egokitzapenen adibidea

Jarraibideak

Ikasleari metodologia nola egokituko den, irakasleek laguntzeko zer ahalegin egingo dituzten eta zer laguntza jasoko dituen azaltzea.

Familiari curriculum-a egokitu zaiola eta irakaskuntzan eta ebaluazioan egokitzapenak egingo zaiola jakinaraztea.

Tutore diren irakasleek curriculumaren egokitzapena eskura izatea eta irakasle-taldeari jakinaraztea egokitzapena zertan den eta ikasgeletan zer doitze egin behar dituzten.

Ikasgaien irakasleek curriculumaren egokitzapenean adierazitako elementuak kontuan hartzea, mar-txan jartzea eta eraginkortasuna aztertzea.

Ikasgaien irakasleek egoki iritzitako oharrak egitea.

IKASLEA

TALDEA/IKASGELA

TUTOREA

MATERIALAK EGOKITZEA

Ingurune fisikoa hobetzea eta aldatzea, ikasleen irisgarritasuna eta mugitzeko erraztasuna ziurtatzeko, ikaskideen kondizio beretan:maldak, barandak, eskubandak, ez labaintzeko gomak, ateen zabalera, igogailua...

Ikasgelak eta ikastetxeko eremu fisikoa ikasleek beharko dituzten laguntza teknikoak (gurpil-aulkia, bastoiak, orga...) kontuan hartuta antolatzea eta banatzea.

Ikasleak erabiltzen dituen altzari espezifikoko erraz sartzeko eta irteteko lekuetan jartzea (gailuentzako korrante-harguneak, larrialdietako irteera...), baina ikaskideenarekin integratua.

Ikaslea irakaslea eta ikaskideak ongi ikusten dituen lekuan kokatzea.

Lanerako objektu eta materialak eraginkorki erabiltzea eta jarduerak egitea errazteko egokitzapenak egitea (IKTak, orri-pasatzaileak, arkatz lodituak...).

Altzariak moldatzea, ikasleak jarrera egokia izan dezan:jangune edo eskotaduradun mahaia, beso- eta oin-euskaridun aulkia, falkak, kuxinak...

Komunikatzeko ordezeko sistemak erabiltzea (IKTak).

Gauzatze-ereduak eskaintzea (Ikaskuntza bikarioa)

Behar adina denbora eskaintzea ikaskuntza-dukien ikaskuntza-gidatuta egiteko.

Lanak egiteko edo xehetasunak antzemateko orduan ikusmen/entzumen normaleko subjektuei ematen zaiena baino denbora gehiago ematea.

Egin beharreko lanak edo antzeman beharreko aldeak berriro azaltzea, ulertutzat eman orde.

Material bereziak edo egokituak erabiltzea behar dituen arloetan (Gorputz Hezkuntza, Musika, Laborategia...).

METODOLOGIA EGOKITZEA

Esperientzia zuzena errazten duten metodoak lehenestea, ikasleak ingurunearekin elkarrekintzan aritzeko dituen zailtasunak konpentsatzeko.

Parekoek elkarlanean ikasteko estrategiak indartzea.

Talde-lanetan erantzukizunak txandakatzea.

Edukiak bi komunikazio-kanal erabiltzea (entzutezkoa eta ikusizkoa).

Ingurumen-baldintzak kontrolatzea, interferentziak eta zarata gutxitzeko.

Ahalegina sustatzeko berrindartzea eta estimulazioa erabiltzea.

EBALUAZIOA EGOKITZEA

Azterketetan eskoletan erabiltzen dituen laguntza-materialak erabiltzen uztea.

Probak eta azterketak egiteko denbora gehiago ematea.

Ikasleak modu eraginkorrean erabiltzen dituen adierazpideak erabiltzea (ahozkoa, idatzizkoa).

Galdera labur, argi eta zehatzak egitea.

Galdera gutxiago egitea edo azterketa ondoz ondoko bi proba edo gehiagotan zatitzea.

Galderak audioan grabatzen uztea, berriz entzun ahal izan ditzan.

Azterketak ikaslearekin zuzentzea eta indargune eta ahulguneak azpimarratzea.

Nork bere burua zuzentzea eta azterketa errepikatzen uztea.

K ERANSKINA

“Ikasleak ikasketen/lanaren gaineko erabakiak hartzeko datuen laburpena”

Jarraibideak

Tresna honen helburua desgaitasunak edota hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei ikasketetan edota lanean gora egiteko erabakiak hartzen laguntzea da.

Ikastetxeko orientatzaileak osatu behar du ikasturtean eta ikasleekin edo haien guraso edo legezko tutoreekin egindako elkarrizketetan lortutako datu guztiekin.

Erabakiak hartu aurreko asteetan betetzea da egokiena, LHko zikloetan izena emate aldera.

Lehen datu-multzoa ikasleen indargune eta ahulguneei, ekartzen dituen diagnostikoei, norberaren gaitasunen gaineko sentimenduei eta bere erantzukizun eta errendimendu akademikoari buruzkoa da.

Bigarren multzoan, orientatzaileak, batetik, ikasleen ezaugarriekin zer lanbide-arlo bat datozen aztertu beharko du, daukan informazio guztiarekin. Eta bestetik, ikasleak zer ziklo aukeratu dituen eta aukera hori zergatik egin duen jasoko du.

Ikasleak zer aukera egin duen jakin ondoren, Orientabide Sailak ziklo horretan eskatzen diren betekizun eta gaitasunak jasoko ditu tresnan (G eranskinean daude jasota: “Nafarroan eskaintzen diren lanbide-arlo eta heziketa-zikloak), eta ikaslearen lehentasunen aldeko edo kontrako argudioak emango ditu.

Azkenik, orientatzaileak bere eskolatzeko proposamena egingo du; proposamen hori ikaslearenarekin bat etor daiteke ala ez.

Azken erabakia ikasleak hartuko du. Erabakia hartu ondoren, ikasleari izena emateko prozesu, toki eta epean berri emango zaio eta ikasleak ziklo berrian zer laguntza behar izan ditzakeen jasoko da idatziz.

K ERANSKINA

IKASLEAK IKASKETETAN GORA EGITEKO DATUEN LABURPENA

IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK	Taldea	Etapak		
		DBH	Batxilergoa	EM
IKASTETXEA		Tutorea		Urtea
GAITASUNAK, AHALMENAK ETA ABILEZIAK	Ikusmen funtzionala			
(ikaslearen indarguneak)	Entzumen funtzionala			
	Mugimen funtzionala			
	Psikosozialak			
	Instrumentalak			
	Kognitiboak (oinarrikoak)			

HLPB EDOTA DESGAITASUN-ESPARRUAK	Ikusmen-disfuntzioa	
(ikaslearen ahulguneak)	Entzumen-disfuntzioa	
	Mugimen-disfuntzioa	
	Disfuntzio psikosozialak	
	Abilezia instrumentalen disfuntzioak	
	Oinarrizko disfuntzio kognitiboak	

DIAGNOSTIKOAK	EDUCAko kodeak

NORBERAREN GAITASUNEN INGURUKO SENTIMENDUAK (POSITIBOAK - NEGATIBOAK)						
Ariketa matematiko eta zientifikoak	+	-		Motrizitate larriko ariketak	+	-
Hizkuntza-ariketak	+	-		Eskuztatzeko ariketak eta ikusmen- eta mugimen-ariketak	+	-
Komunikazio-ariketak	+	-		Gizarte-ariketak	+	-

ERANTZUKIZUNA ETA EMAITZAK	Ikasketa-plan bat du eta bete egiten du.	
	Ez du ikasketa-plana betetzen.Gutxi ikasten du.	
	Ebaluazio bakoitzean bizpahiru irakasgai edo gehiago ez ditu gainditzen.	
	Ebaluazio bakoitzean irakasgai bat edo bi ez ditu gainditzen.	
	Irakasgai guztiak gainditzen ditu.	

IKASLEAK AUKERATUTAKO HEZIKETA-ZIKLOAK, LEHENTASUN-ORDENAN	
1º.	2º.
ZIKLO HORIEK LEHENESTEKO ARRAZOIAK	
1º.	

LEHENBIZI AUKERATUTAKO HEZIKETA-ZIKLOKO BALDINTZAK ETA OINARRIZKO GAITASUNAK

Ikusmena:

Entzumena:

Mugimena:

Psikosozialak:

Instrumentalak:

Kognitiboak:

ORIENTAZIOAREN ARGUDIOAK, IKASLEAREN LEHENTASUNEN INGURUAN

1°.

2°.

3°.

4°.

5°.

ORIENTATZAILEAK PROPOSATUTAKO HEZIKETA-ZIKLOAK (HALA BADAGOKIO)

1°.

2°.

IKASLEAREN AZKEN ERABAKI ARRAZOITUA.AUKERATU DUEN HEZIKETA-ZIKLOA.

IZENA EMATEKO INFORMAZIOA

Zentroak:

Izena emateko epea:

Matrikula epea:

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Aukeratutako ikastetxera bisita:

Data:

LAGUNTZEN AURREIKUSPENA	Curriculumera sartzeko egokitzapenak beharko ditu.	
	Baliabide tekniko edota teknologikoak beharko ditu.	
	Komunikatzeko ordezeko sistemak beharko ditu.	
	Ingurune fisikoa egokitzea beharko du.	

OHARRAK

Blank area for notes or comments.

.....n, 2.....korena

Izpta: Orientatzailea

